


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

DOKTOREGO-PROGRAMA: MEDIKUNTZA ETA KIRURGIA.
PROGRAMA DE DOCTORADO: MEDICINA Y CIRUGÍA.

MEDIKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO: MEDICINA.

**ARNAS-APARATUAREN ERDI-MAILAKO ZAINKETA UNITATE
BATEAN OSPITALERATUTAKO PAZIENTEEN HILKORTASUNAREN
FAKTORE PRONOSTIKOAK**

**FACTORES PRONÓSTICOS DE MORTALIDAD EN PACIENTES
INGRESADOS EN UNA UNIDAD DE CUIDADOS RESPIRATORIOS
INTERMEDIOS**

DOKTOREGOA/DOCTORANDO: TXOMÍN ZABALA HERNÁNDEZ

TESI ZUZENDARIAK/DIRECTORAS DE LA TESIS: DRA. SUSANA GARCIA GUTIERREZ DOKTOREA

DRA. ANE URANGA ECHEVERRIA DOKTOREA

BILBO [2025]

Arrebarentzat,
zure bizitzeko indarra nire egiten duzulako

Haritzentzat,
bizitza zoriontasunez betetzen didazulako

ESKER ONAK

Aneri, doktoradutzako bide onetan gidari izan zaitudalako. Baita erdi-mailako arnas-gaixoen zainketan, unibertsitateko irakaskuntzan, eta bizitzan, gidari eta lagun zaitudalako.

A Susana, por hacer facil lo que parece difícil. Por la cercanía, la disponibilidad, el entusiasmo. Y por poner en valor todos los avaces que damos en el mundo de la investigación. Gracias al equipo del Servicio de Investigación por tener siempre la puerta abierta. En especial a Mari Jose que, siempre accesible, tanto me ha ayudado con las interminables tablas.

Nire Pneumologiako zenbitzuko lankide guztiei. Pneumologiako mundu hau erakusteagatik eta profesional moduan hezten laguntzeagatik. Talde lana zer den irakasteagatik. Bereziki ondoan euskarri izan ditudan Amaiak (x3), equipo A eta Ventiladores. Pedro Españari, nigan konfiantza izateagatik eta zerbitzuburu izan zaren heinean, bultzada emateagatik. A las personas que creasteis la UCRI y pontenciasteis la investigación en ella, y a las personas que continúan hoy fortaleciendo este trabajo. Lan taldea osatzen duten erizainei, erizain-laguntzailei, idazkariei, ikerkuntza laguntzaileei... eskerrik asko ondoan izateagatik eta lan hau ahalbidetzeagatik.

Medikuntzako lagunei, ikaskideei, Tailandian edo urgentzietako guardietan barre-kide izan dudana Melaniri. Madaleni, zutik jartzen diren ihiak garelako.

Munduko Medikuek erakundeari. Gaixotasunak osatzeaz gain gizartea ere zaindu eta osatu behar delako.

Ezagutzen ez dudana Alexandra Elbakyani, SciHub-eko sortzaileari, zientza jakinduria sozializatzetik.

Osasun sistema publiko unibertsalari, ikerketa hau ahalbidetu duena. Espero dut ikerketa honetako emaitzek honetan eragina izatea.

Zientziari. Zientzilariak garenon bidea egiten duelako. Baia ez edozein motatako zientziari... etekin pertsonalik edo ekonomikomikorik bilatzen ez duez zientziari.

Bizitzako lagunei. Kaña, pitis-lokos, igeriketa edo bidaien artean bizitza partekatzeari. Bereziki Ederri, tesi honek lapurtu dizkigun, kaña eta marianito arteko elkarriketengatik.

Nire gurasoei. Porque es gracias a vosotros que soy la persona y profesional que soy hoy en día. A Jaio por la fuerza que trasmite en esta vida, a veces, dura. Naparri, egun zailtan mendira joatera behartzeagatik.

Haritz, nire bizilaguna. Ilha de Moçambiquen, Itakan, Busanen, Gallipollin edo Euskal Herrian, nire bidaia eta baita etxea zarelako. ESKERRIK ASKO.

*Ten siempre Ítaca en tu mente.
Llegar allí es tu destino. Mas no apresures el viaje.
Mejor que dure muchos años y atracar, viejo ya, en la isla,
enriquecido de cuanto ganaste en el camino, sin aguantar a
que Ítaca te enriquezca.*

C. P. Cavafis
ÍTACA

LABURPENA

Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitateek (AEZU) ospitaleko oheen kudeaketaren optimizazioaren bidez, koste-efektiboak direla demostratu dute, horrela SARS-CoV-2aren pandemiaren ondoren garrantzi berezia harturik. Nolanahi ere, unitate hauetako hilkortasuna eta honekin erlazionatutako faktoreak ez dira guztiz ikertuak izan. Ospitaleko hilkortasunaren arrisku-faktoreak identifikatzea garrantzitsua da, arrisku altuagoa daukaten pazienteen detekzio azkarra ahalbidetzen baitu. Horrela, kontrol eta tratamendu intentsiboagoak erraztu eta, ondorioz, hilkortasuna murriztu liteke.

Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitaleko AEZUan aurrera begirako ikerketa behatzailea egin zen. 2007ko otsailaren 1etik 2016ko maiatzaren 31ra ospitaleratutako paziente guztiak ikerketan sartu ziren. Ospitale-barneko hilkortasunaren faktore pronostikoen identifikazioa eta aurreikuspen-eredu baten eraketa izan ziren helburu nagusiak. Bigarren mailako helburutzat 10 urtetan zehar ospitaleratutako pazienteen ezaugarri kliniko eta epidemiologikoak deskribatu ziren eta ospitaleratzean izandako atzerapenak eboluzio klinikoan duen eragina analizatu zen.

Guztira 2.105 paziente sartu ziren ikerketan (2.008 hilkortasunaren analisisian). Hamaika aldagai hilkortasunaren aurreikusle moduan identifikatu ziren: adina > 80 urte, oinarritzko egoera funtzionala (ECOG eskala), komorbilitatea (Charlson indizea), aurreko ospitale egonaldia > 48 ordu, hipotentsioa, takikardia, takipnea, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazio baxua, leukozitosia, urea altua eta hipoalbuminemia. Aldagai hauek barne dituen eta aurreikuspen-ahalmen altua duen, aurreikuspen-eredua garatu zen. Gainera, AEZUan ospitaleratzean izandako atzerapenak eboluzio kliniko okerragoekin erlazionatuta dagoela ikusi zen.

Ikerketa honi esker, arnas-patologia larria duten pazienteen hilkortasun-faktore pronostikoak ikertzen jarraitzeko garrantzia agerian geratzen da. Ondorioz, eboluzio okerrera arriskua duten pazienteak identifikatu, hauen maneiu klinikoa optimizatu eta, azkenik, beren pronostikoa hobetzeko aukera izanik.

RESUMEN

Las unidades de cuidados respiratorios intermedios (UCRI) han demostrado ser coste-efectivas, optimizando la gestión de camas hospitalarias y adquiriendo una relevancia especial tras la pandemia por SARS-CoV-2. Sin embargo, la mortalidad en estas unidades y los factores asociados no han sido completamente estudiados. Identificar los factores de riesgo de mortalidad hospitalaria es importante, puesto que permite la detección precoz de los pacientes con mayor riesgo, facilitando un control y un tratamiento más intensivos, lo que podría contribuir a reducir la mortalidad.

Se llevó a cabo un estudio prospectivo observacional en el que se incluyeron todos los pacientes ingresados en la UCRI del Hospital Universitario Galdakao-Usansolo entre el 1 de febrero de 2007 y el 31 de mayo de 2016. Los objetivos principales fueron identificar factores pronósticos de mortalidad intrahospitalaria y diseñar un modelo predictivo. Como objetivos secundarios, se describieron las características clínicas y epidemiológicas de los pacientes ingresados en la unidad a lo largo de 10 años y se analizó el impacto del retraso en el ingreso en la evolución clínica.

Se incluyeron un total de 2.105 pacientes (2.008 en el análisis de mortalidad), identificándose once variables como predictoras de mortalidad: edad > 80 años, situación funcional basal (escala ECOG), comorbilidad (índice de Charlson), estancia hospitalaria previa > 48 h, hipotensión, taquicardia, taquipnea, relación $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ baja, leucocitosis, urea elevada e hipoalbuminemia. Se desarrolló un modelo predictivo que incluyó estas variables, con alta capacidad predictiva. Además, se observó que el retraso en el ingreso en UCRI se asoció con una peor evolución clínica. Este estudio destaca la importancia de seguir investigando en los factores pronósticos de mortalidad en pacientes con patología respiratoria grave, con el fin de identificar a los pacientes en riesgo de mala evolución, optimizar su manejo clínico y en última instancia, intentar mejorar su pronóstico.

ABSTRACT

Respiratory Intermediate Care Units (RICU) have proven to be cost-effective, optimising hospital bed management and have gain particular relevance following the SARS-CoV-2 pandemic. However, mortality rates within these units and the factors associated with them have not been thoroughly investigated. Identifying risk factors for in-hospital mortality is crucial, as it enables the early detection of high-risk patients, allowing for more intensive monitoring and treatment, which could contribute to reducing mortality.

A prospective observational study was conducted, including all patients admitted to the RICU of Galdakao-Usansolo University Hospital between 1 February 2007 and 31 May 2016. The primary objectives were to identify prognostic factors for in-hospital mortality and to develop a predictive model. Secondary objectives included describing the clinical and epidemiological characteristics of patients admitted over a 10-year period, and analysing the impact of delayed admission on clinical outcomes.

A total of 2,105 patients were included (2,008 in the mortality analysis). Eleven variables were identified as predictors of mortality: age > 80 years, baseline functional status (ECOG scale), comorbidity (Charlson index), prior hospital stay > 48 hours, hypotension, tachycardia, tachypnoea, low $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ ratio, leukocytosis, elevated urea and hypoalbuminaemia. A predictive model incorporating these variables was developed, demonstrating high predictive accuracy. Furthermore, delayed admission to the RICU was associated with poorer clinical outcomes.

This study highlights the importance of continuing to investigate prognostic factors for mortality in patients with severe respiratory disease, in order to identify those at risk of deterioration, optimise their clinical management and ultimately improve outcomes.

AURKIBIDEA – ÍNDICE

LABURPENA	XI
RESUMEN	XIII
ABSTRACT	XIV
AURKIBIDEA – ÍNDICE	XVII
IRUDIEN AURKIBIDEA	XXI
ÍNDICE DE FIGURAS	XXIII
TAULEN AURKIBIDEA	XXV
ÍNDICE DE TABLAS	XXVII
LABURDUREN AURKIBIDEA	XXIX
ÍNDICE DE ABREVIATURAS	XXXI
EUSKERAZKO BERTSIOA	1
I. SARRERA	3
1. Arnas-Aparatuaren Erdi-mailako Zainketa Unitateak	5
1.1. Sarrera eta definizioa	5
1.2. Arnas-euskarriaren eboluzio historikoa	7
1.3. AEZUek osasun sisteman duten inpaktua	12
1.4. Ezaugarriak eta azpiegitura	15
1.5. Pazienteen ezaugarriak	20
1.6. Hilkortasuna AEZUetan	22
2. Hilkortasunaren faktore pronostikoak	25
2.1. Definizioa	25
2.2. Hilkortasunaren faktore eta eskala pronostikoen berrikuspena	26
2.2.1. Zainketa Intentsiboak	26
2.2.2. Pneumologia	31
2.2.3. AEZU	35
II. JUSTIFIKAZIOA	41
III. HIPOTESI eta HELBURUAK	45
IV. MATERIALA eta METODOAK	49
1. Ikerketaren diseinua	51
2. Ikertu beharreko subjektuak	52
3. Ikerketa-eremua	54
4. Datuak biltzeko metodoak	57
5. Aldagaiak	59

5.1. Aldagai soziodemografikoak	59
5.2. Oinarrizko egoera funtzionala eta komorbiditateak	59
5.3. Aldagai kliniko eta analitikoak.....	60
5.4. Ospitaleratzearekin lotutako aldagaiak	61
5.5. Konplikazio eta bilakaerari buruzko aldagaiak	64
6. Analisi estatistikoa	66
7. Datu-galerak eta onartzeak	68
8. Etika batzordea eta datuen konfidentzialtasuna	68
V. EMAITZAK	69
1. AEZU batean ospitaleratutako pazienteen ezaugarri kliniko eta epidemiologikoak analizatu eta deskribatu	72
1.1. Lagin osoaren analisi deskriptiboa	72
1.2. Ospitaleratze helburuaren araberrako analisia	78
1.3. Diagnostikoen araberrako analisi konparatiboa	85
2. 10 urteetan zehar AEZUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarrien analisi deskriptiboa	93
3. Ospitale-barneko hilkortasunarekin lotutako faktoreen identifikazioa	100
3.1. Analisi geruzatua	100
3.2. Aldagai bakarrekko analisia	107
3.3. Aldagai anitzeko analisia	115
4. Ospitaleratzean izandako atzerapenaren eragina	119
VI. EZTABAIDA	127
1. Emaizen interpretazioa eta literaturarekin konparaketa	130
1.1. AEZUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarri kliniko eta epidemiologikoak	130
1.2. 10 urteetan zehar AEZUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarriak	141
1.3. Ospitale-barneko hilkortasunarekin lotutako faktoreak	142
1.4. Ospitaleratzean izandako atzerapenaren eragina	155
2. Indarguneak eta mugak	160
3. Aplikazio klinikoa eta etorkizuneko ikerkuntzak	162
VII. ONDORIOAK	165
VERSIÓN en CASTELLANO	171
I. INTRODUCCIÓN	173
1. Las Unidades de Cuidados Respiratorios Intermedios	175
1.1. Introducción y definición	175

1.2. Evolución histórica del soporte respiratorio	177
1.3. Impacto de las UCRI en el sistema sanitario	182
1.4. Características e infraestructura	186
1.5. Características de los pacientes	190
1.6. Mortalidad en las UCRI	192
2. Factores Pronósticos de Mortalidad	196
2.1. Definición	196
2.2. Revisión sobre los factores y escalas pronósticas de mortalidad existentes ...	197
2.2.1. Cuidados intensivos	197
2.2.2. Neumología	202
2.2.3. UCRI	207
II. JUSTIFICACIÓN	213
III. HIPOTESIS y OBJETIVOS	217
IV. MATERIAL y METODOS	221
1. Diseño del estudio	223
2. Sujetos a estudio	224
3. Ámbito del estudio	226
4. Métodos de recogida de datos	229
5. Variables	231
5.1. Variables sociodemográficas	231
5.2. Situación funcional basal y comorbilidades	231
5.3. Variables clínicas y analíticas	232
5.4. Variables relativas al ingreso	233
5.5. Variables sobre complicaciones y evolución	236
6. Análisis estadístico	238
7. Pérdida de datos y asunciones	240
8. Comité de ética y confidencialidad de datos	240
V. RESULTADOS	241
1. Analizar y describir las características clínicas y epidemiológicas de los pacientes ingresados en una UCRI	244
1.1. Análisis descriptivo de toda la muestra	244
1.2. Análisis comparativo según el objetivo del ingreso	250
1.3. Análisis comparativo según los diagnósticos	257

2. Análisis descriptivo de las características de los pacientes ingresados en la UCRI durante un periodo de 10 años	265
3. Identificar factores relacionados con la mortalidad intrahospitalaria	272
3.1. Análisis estratificado	272
3.2. Análisis univariable	279
3.3. Análisis multivariable	287
4. Impacto del retraso en el ingreso	291
VI. DISCUSIÓN	299
1. Interpretación de los resultados y comparación con la literatura	302
1.1. Características clínicas y epidemiológicas de los pacientes ingresados en una UCRI	302
1.2. Características de los pacientes ingresados en la UCRI durante un periodo de 10 años	312
1.3. Factores relacionados con la mortalidad intrahospitalaria	313
1.4. Impacto del retraso en el ingreso	327
2. Fortalezas y limitaciones	332
3. Aplicación clínica y futuras investigaciones	334
VII. CONCLUSIONES	337
VIII. BIBLIOGRAFIA – BIBLIOGRAFÍA	341
IX. ERANSKINAK – ANEXOS	363

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1. Maila asistentzial ezberdinen arteko pazienteen fluxua	7
Irudia 2. Altzairuzko birika. Sant'Orsola Ospitalea (Bologna, Italia)	8
Irudia 3. Pazienteak ikerketan sartzeko eta baztertzeko fluxua	53
Irudia 4. Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitaleko AEZUren barrukaldea	54
Irudia 5. Ikerketan sartutako pazienteen fluxu-diagrama	71
Irudia 6. Komoribilitateen banaketa lagin osoan	73
Irudia 7. Diagnostikoen banaketa lagin osoan	77
Irudia 8. Komoribilitateen banaketa ospitaleratze helburuaren arabera	80
Irudia 9. Diagnostikoen banaketa ospitaleratze helburuaren arabera	84
Irudia 10. Pazienteen hilkortasuna diagnostikoaren arabera	92
Irudia 11. Diagnostikoen banaketa ospitaleratze garaiaren arabera	98
Irudia 12. Konplikazioak eta bilakaera ospitaleratze garaien arabera	99
Irudia 13. Ospitale barnean hiltzen diren eta ez diren pazienteen arteko komoribilitateen konparaketa	102
Irudia 14. Ospitale barnean hiltzen diren eta ez diren pazienteen arteko diagnostikoen banaketa	106
Irudia 15. Ospitale-barneko hilkortasunarekin erlazionatutako faktoreak (aldagai bakarreko analisisa)	114
Irudia 16. Ospitale-barneko heriotzaren faktore pronostikoen Odds Ratioak	117
Irudia 17. AEZUan ospitaleratutako pazienteen ospitale-barruko hilkortasuna auresateko aldagai anitzeko ereduaren ROC kurba	118
Irudia 18. AEZUan ospitaleratutako pazienteen ospitale-barruko hilkortasuna auresateko aldagai anitzeko ereduaren kalibrazioa	118
Irudia 19. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko diagnostikoen banaketa	124

INDICE DE FIGURAS

Figura 1. Flujo de pacientes en diferentes niveles asistenciales	177
Figura 2. Pulmón de acero. Hospital Sant'Orsola (Bologna, Italia)	178
Figura 3. Flujo de la inclusión y exclusión de los pacientes en el estudio	225
Figura 4. Interior de la UCRI del Hospital Universitario Galdakao-Usansolo.....	226
Figura 5. Diagrama de flujo de los pacientes incluidos en el estudio	243
Figura 6. Distribución de las comorbilidades en toda la muestra	245
Figura 7. Distribución de los diagnósticos en toda la muestra	249
Figura 8. Distribución de comorbilidades según el objetivo del ingreso	252
Figura 9. Distribución de los diagnósticos según el objetivo del ingreso	256
Figura 10. Mortalidad de los pacientes dependiendo del diagnóstico	264
Figura 11. Distribución de los diagnósticos según el periodo de ingreso	270
Figura 12. Complicaciones y evolución según los diferentes periodos	271
Figura 13. Comparación de las comorbilidades entre los pacientes con mortalidad intrahospitalaria y los que no	274
Figura 14. Distribución de los diagnósticos entre los pacientes con mortalidad intrahospitalaria y los que no	278
Figura 15. Factores relacionados con la mortalidad intrahospitalaria (análisis univariable)	286
Figura 16. Odds Ratios de factores pronósticos de mortalidad intrahospitalaria	289
Figura 17. Curva ROC del modelo multivariante para la predicción de mortalidad intrahospitalaria en pacientes ingresados en una UCRI	290
Figura 18. Calibración del modelo multivariante para la predicción de mortalidad intrahospitalaria en pacientes ingresados en una UCRI	290
Figura 19. Distribución de los diagnósticos entre los grupos inmediato y retraso	296

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1. Arnas-aparatuaren patologia larria duten pazienteen kudeaketan arreta-mailen ezaugarriak	18
Taula 2. ZIUko heriotza escala pronostiko ezberdinetan sartutako aldagaien konparaketa	30
Taula 3. Pneumonia duten pazienteen pronostiko-escala ezberdinetan sartutako aldagaien arteko konparaketa	32
Taula 4. AMEIaren porroterako unearen araberako arrisku-faktoreak	34
Taula 5. Literaturan azterutako hilkortasun aurreikuspen-faktoreen laburpena	38
Taula 6. Laginaren analisi deskriptiboa. Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera	72
Taula 7. Laginaren analisi deskriptiboa. Aldagai kliniko eta analitikoak	74
Taula 8. Laginaren analisi deskriptiboa. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak	76
Taula 9. Laginaren analisi deskriptiboa. Konplikazioak eta bilakaera	77
Taula 10. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratzeko helburuaren arabera. Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera	79
Taula 11. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratzeko helburuaren arabera. Aldagai kliniko eta analitikoak	81
Taula 12. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratzeko helburuaren arabera. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak	83
Taula 13. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratzeko helburuaren arabera. Konplikazioak eta bilakaera	84
Taula 14. Pazienteen analisi konparatiboa, AEZUan ospitaleratzeko diagnostikoaren arabera	88
Taula 15. Ospitaleratze garaiaren araberako analisi konparatiboa. Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera	94
Taula 16. Ospitaleratze garaiaren araberako analisi konparatiboa. Aldagai kliniko eta analitikoak	95
Taula 17. Ospitaleratze garaiaren araberako analisi konparatiboa. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak	97
Taula 18. Ospitaleratze garaiaren araberako analisi konparatiboa. Konplikazioak eta bilakaera	99
Taula 19. Ospitale barnean hiltzen diren eta ez diren pazienteen arteko analisi konparatiboa. Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera	101

Taula 20. Ospitale barnean hiltzen diren eta ez diren pazienteen arteko analisi konparatiboa. Aldagai kliniko eta analitikoak	103
Taula 21. Ospitale barnean hiltzen diren eta ez diren pazienteen arteko analisi konparatiboa. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak.)	105
Taula 22. Ospitale barnean hiltzen diren eta ez diren pazienteen arteko analisi konparatiboa. Konplikazioak ospitaleratzean zehar	107
Taula 23. Ospitale-barneko heriotzaren iragarpenerako aldagai bakarreko analisia. Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera	108
Taula 24. Ospitale-barneko heriotzaren iragarpenerako aldagai bakarreko analisia. Aldagai kliniko eta analitikoak	110
Taula 25. Ospitale-barneko heriotzaren iragarpenerako aldagai bakarreko analisia. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak	112
Taula 26. Ospitale-barneko heriotzaren iragarpenerako aldagai bakarreko analisia. Konplikazioak eta bilakaera	113
Taula 27. AEZU baten ospitaleratutako pazienteen ospitale-barneko heriotzaren iragarpenerako aldagai anitzeko analisia	116
Taula 28. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko analisi konparatiboa. Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera	120
Taula 29. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko analisi konparatiboa. Aldagai kliniko eta analitikoak	122
Taula 30. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko analisi konparatiboa. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak	123
Taula 31. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko analisi konparatiboa. Konplikazioak ospitaleratzean zehar	125

INDICE DE TABLAS

Tabla 1. Características de los niveles asistenciales en el manejo de los pacientes con patología respiratoria grave	188
Tabla 2. Comparativa de variables incluidas en las diferentes escalas pronósticas de mortalidad en UCI	201
Tabla 3. Comparativa de variables incluidas en las diferentes escalas pronósticas en pacientes con neumonía	203
Tabla 4. Factores de riesgo de fracaso de la VMNI según el momento	205
Tabla 5. Resumen de los factores predictores de mortalidad estudiados en la literatura	210
Tabla 6. Análisis descriptivo de la muestra. Variables sociodemográficas y situación basal	244
Tabla 7. Análisis descriptivo de la muestra. Variables clínicas y analíticas	246
Tabla 8. Análisis descriptivo de la muestra. Causas del ingreso en UCRI	248
Tabla 9. Análisis descriptivo de la muestra. Complicaciones y evolución	249
Tabla 10. Análisis comparativo de los pacientes según el objetivo del ingreso. Variables sociodemográficas y situación basal	251
Tabla 11. Análisis comparativo de los pacientes según el objetivo del ingreso. Variables clínicas y analíticas	253
Tabla 12. Análisis comparativo de los pacientes según el objetivo del ingreso. Causas de ingreso en UCRI	255
Tabla 13. Análisis comparativo de los pacientes según el objetivo del ingreso. Complicaciones y evolución	256
Tabla 14. Análisis comparativo de los pacientes según el diagnóstico al ingreso en UCRI	260
Tabla 15. Análisis comparativo según periodo de ingreso. Variables sociodemográficas y situación basal	266
Tabla 16. Análisis comparativo según periodo de ingreso. Variables clínicas y analíticas	267
Tabla 17. Análisis comparativo según periodo de ingreso. Causas de ingreso en UCRI	269
Tabla 18. Análisis comparativo según periodo de ingreso. Complicaciones y evolución	271
Tabla 19. Análisis comparativo entre los pacientes que mueren en el hospital y los que no lo hacen. Variables sociodemográficas y situación basal	273
Tabla 20. Análisis comparativo entre los pacientes que mueren en el hospital y los que no lo hacen. Variables clínicas y analíticas	275

Tabla 21. Análisis comparativo entre los pacientes que mueren en el hospital y los que no lo hacen. Causas de ingreso en UCRI	277
Tabla 22. Análisis comparativo entre los pacientes que mueren en el hospital y los que no lo hacen. Complicaciones durante el ingreso	279
Tabla 23. Análisis univariante para la predicción de mortalidad intrahospitalaria. Variables sociodemográficas y situación basal	280
Tabla 24. Análisis univariable para la predicción de mortalidad intrahospitalaria. Variables clínicas y analíticas	282
Tabla 25. Análisis univariable para la predicción de mortalidad intrahospitalaria. Causas de ingreso en UCRI	284
Tabla 26. Análisis univariable para la predicción de mortalidad intrahospitalaria. Complicaciones y evolución	285
Tabla 27. Análisis multivariable para la predicción de mortalidad intrahospitalaria en pacientes ingresados en una UCRI	288
Tabla 28. Análisis comparativo entre los grupos Inmediato y Retraso. Variables sociodemográficas y situación basal	292
Tabla 29. Análisis comparativo entre los grupos Inmediato y Retraso. Variables clínicas y analíticas	293
Tabla 30. Análisis comparativo entre los grupos Inmediato y Retraso. Causas de ingreso en UCRI	295
Tabla 31. Análisis comparativo entre los grupos Inmediato y Retraso. Complicaciones y evolución	297

LABURDUREN AURKIBIDEA

AA	Adimen Artifiziala
AEEI	Arnas-Euskarri Ez-Inbaditzailea
AEZU	Arnas-Aparatuaren Erdi-Mailako Zainketa Unitatea
AG	Arnas-Gutxiegitasuna
AGA	Arnas-Gutxiegitasun Akutua
AM	Arnas-Maiztasuna
am	arnasketa minutuko
AMEI	Aireztapen Mekaniko Ez-Inbaditzailea
AMI	Aireztapen Mekaniko Inbaditzailea
AMU	Arnas-Monitorizazio Unitatea
APACHE II	<i>Acute Physiology and Chronic Health Evaluation II</i>
AUC	ROC Kurbaren Azpiko Azalera <i>[Area Under the ROC Curve]</i>
BEA	Biriketako Edema Akutua
BGBK	Biriketako Gaixotasun Buxatzaile Kronikoa
BGI	Biriketako Gaixotasun Interstiziala
BiPAP	Bi Mailako Aire-Bideetako Presio Positiboa <i>[Bilevel Positive Airway Pressure]</i>
BM	Bihotz-Maiztasuna
BTE	Birika Tronboenbolismoa
CPAP	Aire-Bideetan Presio Positibo Jarraitua <i>[Continuous Positive Airway Pressure]</i>
CRIT-RICU	<i>Critical Illness Mortality Score for Respiratory Intermediate Care Unit</i>
ECOG	<i>Eastern Cooperative Oncology Group</i>
EPAP	Arnas-botatze Presio Positiboa <i>[Expiratory Positive Airway Pressure]</i>
EZU	Erdi-Mailako Zainketa Unitatea
FiO2	O2-aren Frakzio-Inspiratorioa
GMI	Gorputz Masa Indizea
HADS	Helduaren Arnas Distres Sindromea
HIES	Hartutako Immunoeskasiaren Sindromea
HOS	Hipoaireztapen Obesitate Sindromea
HTA	Hipertentsio Arteriala
IOT	Intubazio Orotrakeala
IPAP	Arnas-hartze Presio Positiboa <i>[Inspiratory Positive Airway Pressure]</i>

KT	Konfiantza Tarte
MRC	<i>Medical Research Council</i>
OR	Odds Ratio
PCR	Proteina C-erreaktiboa
PD	Protrona Denbora
PEEP	Espirazio Amaierako Presio Positiboa <i>[Positive End-Expiratory Pressure]</i>
SEPAR	Pneumologiako eta Toraxeko Kirurgiako Espainako Elkarte <i>[Sociedad Española de Neumología y Cirugía Torácica]</i>
SKFAT	Sudur-Kanula bidezko Fluxu Altuko Terapi
TAD	Tentsio Arterial Diastolikoa
TAS	Tentsio Arterial Sistolikoa
ZIU	Zaintza Intentsiboko Unitate

INDICE DE ABREVIATURAS

APACHE II	<i>Acute Physiology and Chronic Health Evaluation II</i>
AUC	Área Bajo la Curva ROC <i>[Area Under the ROC Curve]</i>
BiPAP	Presión Positiva Binivel en la Vía Aérea <i>[Bilevel Positive Airway Pressure]</i>
CPAP	Presión Positiva Continua en la Vía Aérea <i>[Continuous Positive Airway Pressure]</i>
CRIT-RICU	<i>Critical Illness Mortality Score for Respiratory Intermediate Care Unit</i>
EAP	Edema Agudo de Pulmón
EPAP	Presión Positiva Espiratoria <i>[Expiratory Positive Airway Pressure]</i>
EPI	Enfermedad Pulmonar Intersticial
EPOC	Enfermedad Pulmonar Obstructiva Crónica
ETEV	Enfermedad Tromboembólica Venosa
FC	Frecuencia Cardíaca
FiO ₂	Fracción Inspiratoria de O ₂
FR	Frecuencia Respiratoria
HTA	Hipertensión Arterial
IA	Inteligencia Artificial
IC	Intervalo de Confianza
IMC	Índice de Masa Corporal
IOT	Intubación Orotraqueal
IPAP	Presión Positiva Inspiratoria <i>[Inspiratory Positive Airway Pressure]</i>
IR	Insuficiencia Respiratoria
IRA	Insuficiencia Respiratoria Aguda
lpm	latidos por minuto
MRC	<i>Medical Research Council</i>
NAC	Neumonía Adquirida en la Comunidad
ONR	Orden de No Reanimar
OD	Odds Ratio
PCR	Proteína C Reactiva.
PEEP	Presión Positiva al Final de la Espiración <i>[Positive End-Expiratory Pressure]</i>
rpm	respiraciones por minuto
SDRA	Síndrome de Distrés Respiratorio del Adulto

SEPAR	Sociedad Española de Neumología y Cirugía Torácica
SHO	Síndrome de Hipoventilación Obesidad
SIDA	Síndrome de Inmunodeficiencia Humana Adquirida
SIRS	Síndrome de Respuesta Inflamatoria Sistémica
SRNI	Soporte Respiratorio No Invasivo
TAFCN	Terapia de Alto Flujo Mediante Cánulas Nasales
TAD	Tensión Arterial Diastólica
TAS	Tensión Arterial Sistólica
TEP	Tromboembolismo Pulmonar
TP	Tiempo de Protrombina
TVP	Trombosis Venosa Profunda
UCI	Unidad de Cuidados Intensivos
UCIm	Unidad de Cuidados Intermedios
UCRI	Unidad de Cuidados Respiratorios Intermedios
UMR	Unidad de Monitorización Respiratoria
VM	Ventilación Mecánica
VMI	Ventilación Mecánica Invasiva
VMNI	Ventilación Mecánica No Invasiva


*Anai-arrebak, entzun ene aho-hotsa,
izaite bat ez daike hezur hutsez osa,
herria da gorputza, hizkuntza bihotza,
bertzetik berextean bitarik bakotxa,
izaite horrendako segurra hil hotza.*

Xalbardor – Urepereleko artzaina
HERRIA eta HIZKUNTZA

**ARNAS-APARATUAREN ERDI-MAILAKO
ZAINKETA UNITATE BATEAN
OSPITALERATUTAKO PAZIENTEEN
HILKORTASUNAREN FAKTORE
PRONOSTIKOAK**

I. SARRERA





Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitateak (AEZU) arnas-aparatuaren gaixotasun larriak dituzten pazienteak artatzeko ospitaleko eremu espezializatuak dira. Unitate hauen garapena munduko osasun-sistema ezberdinetan modu heterogeneoan garatu da. Ondorioz, unitate hauetan egindako ikerketak urriak izan dira.

Maneiu klinikoa optimizatzeko eta osasun errekurtsuen erabilera efizienteagoa egiteko, AEZUan ospitaleratutako pazienteen faktore pronostikoak identifikatzea garrantzitsua da.

1. ARNAS-APARATUAREN ERDI-MAILAKO ZAINKETA UNITATEAK

1.1. SARRERA ETA DEFINIZIOA

Erdi-mailako zainketa unitateak (EZU), logistikoki zainketa intentsiboko unitateen (ZIU) eta ospitaleratze arruntaren tartean kokatzen dira ¹. Testuinguru honetan, patologia ezberdinak dauzkaten pazienteak artatzen dituzten EZU "orokorrak" daude; eta bestalde, patologia espezifiko bat duten pazienteen maneian espezializatutako EZU "espezifikoak" ere bai, esaterako iktus unitateak, unitate koronarioak edo arnas-aparatuaren erdi-mailako unitateak (AEZU) ². Beraz, AEZUak konplexutasunaren ondorioz ospitalizazio arruntan artatzerik ez dagoen, baina zainketa intentsiboa ere behar ez duten, arnas-aparatuaren patologia larria duten pazienteentzako eremu espezializatuak dira ^{3,4}.

Pazienteek monitorizazio jarraia eta arnas-euskarri ez-inbaditzaileko (AEEI) terapiak jasotzen dituzte AEZUetan. Terapia hauen artean ohikoenak dira aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea (AMEI), aire-bideetan presio positibo jarraitua (CPAP) edo sudur-kanula bidezko fluxu altuko terapia (SKFAT).



Batzuetan, trakeostomia bidez aireztapen mekaniko inbaditzailea (AMI) duten pazienteak ere artatzen dira unitate hauetan.

2002. urtean arnas-aparatuaren patologia larria artatzeko lau asistentzia-maila definitu ziren *European Respiratory Journal*-en argitaratutako aditu-talde baten adostasun-dokumentu batean ⁵, zeinetan pneumologoak, anestesistak eta intentsibistak parte hartu zuten:

Maila 0: ospitalizazio arruntean artatuak izan daitezkeen pazienteak.

Maila 1: okertze klinikoa izateko arriskua duten pazienteak edo goragoko mailetatik datozenak.

Maila 2: organo bakar batek (arnas-aparatuak) huts egiteagatik arreta behar duten pazienteak, ebakuntza-osteko zainketa behar duten edo goragoko mailetatik datozen pazienteak.

Maila 3: arnas-euskarri aurreratua behar duten pazienteak edo oinarritzko euskarria behar dutenak baina, gutxienez bi organoen huts egitea daukatenak.

AEZUak 2. mailan honetan kokatzen dira.

AEZUan ospitaleratu aurretik egondako maila asistentzialaren arabera, bi klasetan bereiz dezakegu funtzionamendua:

- Step-up (maila igoera): arnas-gutxiegitasunaren (AG) fase goiztiarretan dauden pazienteak dira, normalean Larrialdietatik edo ospitaleratze arruntetik lekualdatuak. Helburua monitorizazioa eta arnas euskarria eskaintzea da, gaixotasunaren fase akutua gainditzeko eta, aldi berean, ZIUan ospitaleratzea saihesteko.
- Step-down (maila jeitsiera): intentsiboetako unitateetan luzaro ospitaleratuta egon ondoren AEZUetara lekualdatuak diren, osatze




prozesuan dauden pazienteak dira. AG iraunkorra eta/edo aireztapen mekanikoarekiko menpekotasuna izaten dute. Helburua aireztapen mekanikoaren deskonexioa (*weaning*-a) da.

Funtzionamendu berezi hauek pazienteen ezaugarri, behar eta pronostiko ezberdinak dakartzate. Horrela, hilkortasun handiagoa antzeman da *step-up* moduan ospitaleratutako pazienteen artean⁶. Hau azaltzen da *step-down* moduan datozenetan, nahiz eta AG eta, baliteke, arnas-euskarriko terapien beharra mantendu, ZIUan ospitaleratzeko arrazoia izan zen prozesu akutua gainditua dutelako.

Maila asistentzial ezberdinen arteko pazienteen fluxua dinamikoa izan beharko litzateke, Irudia 1 ikus daitekeen moduan.

Irudia 1. Maila asistentzial ezberdinen arteko pazienteen fluxua. Nava et al.-etik moldatua⁷.



ZIU: Zainketa intentsiboko unitatea. AEZU: Arnas aparatuko erdi-mailako zainketa unitatea.

1.2. ARNAS-EUSKARRIAREN EBOLUZIO HISTORIKOA: POLIOMELITISAN HASI ETA COVID-19an AMAITU

AEZUen gaur egungo garrantzia ulertzeko, haien sorrera eta garapen historikoa aztertzea funtsezkoa da.



Hasiera: altzairuzko birikak

Arnas-euskarriko terapien garapena, European eta Ipar Amerikan, XX. mendeko poliomieltisaren pandemietan hasi zen ⁸. Muskuluen asalduraren ondoriozko AG eragiten zuen gaixotasun honek, eta hau tratatzeko ahaleaginean "altzairuzko birikak" moduko gailuen sorrera bultzatu zen (Irudia 2). Philip Drinker eta Louis Agassiz Shaw izan ziren honen asmatzaileak 1928. urtean ⁹ eta tresna horiek azkar bilakatu ziren ezinbestekoak 1930 eta 1950 hamarkaden arteko poliomieltis agerraldietan.

Pazientearen gorputz osoa estaltzen zuen tamaina handiko ganbera metalikoak ziren, burua kanpoan uzten zutelarik. Torax inguruan presio negatiboa sortzen zuten, haren hedapena eraginez. Honi esker, presio negatiboa pleura barrunbera eta albeoloetara transmititzen zen, biriketara airearen sarrera erraztuz eta birika aireztapena ahalbidetuz.

European izandako ondorengo epidemiek AG zuten pazienteak maneiatzeko ospitale-unitate espezializatuak sortzeko beharra nabarmendu zuten. Unitate hauei esker, arnas-euskarriko terapien erabilpena hobetu eta paziente hauen emaitzak hobetzea lortu zen.



Irudia 2. Altzairuzko birika. Sant'Orsola Ospitalea (Bologna, Italia).



Aireztapen mekanikoaren iraultza eta ZIUen garapena

1950ko hamarkadan Copenhagen, Bjørn Ibsen-ek, poliomelitisaren ondoriozko AG tratamenduan iraultza bat ekarri zuen, trakeostomia bidez eta presio positiboa erabiltzen zuen aireztapen mekanikoa ezarri zuenean ^{10 11}. Aurrerapauso hau gertaera garrantzitsua izan zen medikuntzan eta ondorioz, lehengo ZIUen sorrera eman zen. Hauek, baliabideak eta terapia berezien erabileran gaitasun espezifikodun osasun-langileak eremu zehatz batean elkartzeko sortu ziren.

Hurrengo hamarkadetan aireztapen mekaniko inbaditzailearen eta ZIUen zabaltzearen ondorioz, terapia ez-inbaditzaileak baztertu ziren, eta haien erabilera nabarmen gutxitu zen ⁸. Aldaketa honek, ZIU orokorren garapenari bide eman zion European, arnas-gutxiegitasun akutua (AGA) tratatzeko unitate espezifikoek indarra galduz. Bestalde, Ipar-Amerikako garapena ezberdina izan zen: zainketa intentsiboak arnas-paziente larriaren maneian estuki lotuta mantendu ziren, eta horrek 1960ko hamarkadan arnas-aparatuaren zainketa intentsiboko unitate espezifikoaren garapena erraztu zuen ¹². Unitate hauek ZIU orokorrekiko paraleloki funtzionatzen zuten, azken hauekin lehian sartu gabe. ZIU orokorren teknologia eta monitorizazio-hornikuntza antzekoa zuten, eta AGA zein AG kronikoa zuten pazienteak artatzen zituzten.

Presio positiboz egindako aireztapen ez inbaditzailearen agerpena

Austrian, 1988. urtean, H. Benzer irakaslea izan zen presio positiboaren erabilera AGren tratamendurako AEEI terapietan deskribatu zuen lehenengoa ^{13 14}. Bi mailako aire-bideetako presio positiboak (BiPAP), turbina baten bidez, arnas-hartzean presio positibo altua (IPAP) eta arnas-botatzean presio positibo baxuagoa (EPAP) sortzen zuen. Gailua tubulatura eta sudurreko edo sudur-ahoko interfase baten bidez pazienteari konektatzen zitzaion. Presio-gradiente honek biriketarik airearen sarrera eta irteera baimentzen zuen, aireztapena ahalbidetuz.



Gaur egun, terapia hau aireztapen mekaniko ez-inbaditzaile (AMEI) gisa ezagutzen da.


Erdi-mailako unitateak eta hauen eboluzioa

Terapia hauen hedapenak *step-down* unitateen sorrera ahalbidetu zuen, "erdi-mailako" unitate moduan ezagunak, oinarrizko arnas-euskarria eta monitorizazio sinplea behar duten pazienteen maneiturako zuzendutakoak. Eremu hauek aukera kostu-efektiboagoa eskaini zuten, arnas-ZIUekin konparatuta¹⁵. Hasieran, menpekotasun altuko unitate (*high dependency units*) edo arnas-zainketa ez-inbaditzaile (*non-invasive respiratory care units*) izendatuak izan ziren, gaur egungo AEZUen aitzindari gisa.

AEZUen lehenengo erreferentziak 1994. urtean agertu ziren Italian¹⁶. Arnas-ZIUen eta AEZUen garapena Europan modu heterogeneoan gertatu da. 1998an, Europan zeuden unitateen egoeraren inguruko berrikuspen batek⁷ herrialde ezberdinen arteko hazkunde desberdina adierazi zuen. Italia zen unitate gehien zituen herrialdea, Frantzia bigarrena¹⁷, banaketa geografiko zabala izanik. Esan beharra dago garai hartan unitate hauek herrialde mugatu batzuetan ofizialki onartuak zeudela bakarrik: Frantzia, Grezia, Italia, Espainia, Eslovenia eta Turkia.

2002an, herrialde ezberdinetako AEZUen analisi epidemiologiko bat burutu zuen *European Respiratory Society*-k⁵. Ikerketa honen bidez, unitateak hiru maila asistentzialetan sailkatu ziren:

1. Arnas-aparatuaren zainketa intentsiboko unitateak (Arnas-ZIU): organo bat baino gehiagoko hutsegitea duten pazienteentzako diseinatua, erizain-paziente ratioa 1:4 baino txikiagoa izanik.
2. Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitateak (AEZU): euskarri eta monitorizazio aurreratua behar duten eta AG duten pazienteak artatzeko eremuak.



3. Arnas monitorizazio unitateak (AMU): baliabide mugatuak dituzten unitateak. Hauetan ez dago AMEI terapia behar duten pazienterik, eta erizain-paziente ratioa 1:4 baino handiagoa da.

Analisian 68 unitateetako informazioa bildu zen: hauetatik 12 (%18) arnas-ZIU moduan sailkatu ziren, 42 (%62) AEZU moduan eta 14 (%21) AMU moduan. %25ek unitate independente moduan funtzionatzen zuten; %59, pneumologiako ospitalizazio solairuan integratuta zeuden; eta %9, ZIUekin elkartuta.

Aurreko ikerketetan agertzen zen moduan, Italia, Alemania eta Frantzia ziren arnas-unitate gehien zituzten herrialdeak, eta Europa mailan unitate hauen presentziari dagokionez heterogenotasun handia behatu zen.

Espainian, ofizialki zabaldu zen lehenengo AEZUa Cácereseko San Pedro de Alcántara Ospitalean izan zen 2007an. Hala ere, inaugurazio ofizial hori baino lehenago, BiPAParen erabileraren inguruan oinarritzko "monitorizazio unitateak" ezarri ziren hainbat ospitaleetan. Euskal Autonomia Erkidegoan, Osakidetzan, Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitalean 2007ko otsailean zabaldu zen lehen AEZUa ¹⁸, eta bertan burutu zen hemen aurkeztu den ikerketa.

2000ko lehen hamarkadetan zehar, bai Espainian eta bai Europan, AEZUen garapena aldakorra izaten jarraitu zuen ¹⁹. Testuinguru honetan, *Sociedad Española de Neumología y Cirugía Torácica* (SEPAR) erakundeak 2004an eta 2008an egindako inkestetan, unitate hauen %10eko hazkundera behatu zen, nahiz eta garapena ezberdina izan ²⁰. Ospitale batzuek AEZUen sendotze prozesuan aurrera egiten zuten bitartea, beste batzuk hauen inplementazioaren aldi goiztiarretan mantentzen ziren, berriz ere garapen heterogeneoa agerian utziz ²¹.

Hala ere, 2020. urtean hasitako COVID-19aren pandemiak AEEI terapien garrantzia azpimarratu zuen berriz, eta AEZUen moduko unitate espezializatueta paziente horien maneiuaren beharra ere bai. SARS-CoV-2aren kasu larrietan, helduen arnas distres sindromea (HADS) konplikazio ohikoenetakoa izan zen ²².



HADSaren manei u goiztiarrean, AEEI terapiak eginkizun oso garrantzitsua izan zuten²³, AMI eta, ondorioz, ZIUan ospitaleratzea ekidituz. Mundu mailako osasun-emergentziari erantzuteko, ospitale askotan azkar inplementatu zen erdi-mailako unitateen garapena^{24 25}, COVID-19 zuten pazienteak artatzeko eta ZIUen gainkarga saihesteko^{26 27}. Espainian, SEPARek inkesta berri bat egin zuen, eta bertan parte hartu zuten 67 ospitaletatik 28k (%42) AEZUa zuten pandemia aurretik; aldiz, 11tan (%16) berariaz pandemiarako sortuak izan ziren²⁸.

Pandemia amaituta, ikusi beharko da zenbat AEZU mantenduko diren zabalik denboran zehar²¹.

1.3. AEZUek OSASUN SISTEMAN DUTEN INPAKTUA

Unitate hauek duten balio erantsia zalantzan jarria izan da mediku-espezialitate batzuen eta osasun-kudeatzaile batzuen aldetik. Hala ere, nahiz eta unitate hauen ibilbidea laburra izan, badaude beren garapena eta jarraipena defendatzen duten hainbat argudio.

ZIUko oheen optimizazioaren ondorioz lortutako aurrezpen ekonomiko eta asistentzialak AEZUen garapena justifikatzen dute, kalitate asistentziala bermatuta mantentzen den bitartean¹⁵. Unitate hauek ZIUko ospitaleratzeak saihestu eta hauetatik alta errezago egitea ahalbidetzen dute.

1980ko hamarkadan, Estatu Batuetan, osasun gastuaren %20a ZIUen mantentzera bideratzen zela ikusi zen²⁹. Hala eta guztiz ere, bertan ospitaleratzen ziren pazienteen %40ak ez zuen euskarri inbaditzailerik behar ikusi zen^{30 31 32}. Estatu Batuetako lehenengo AEZUen inplementazioek analisi ekonomikoak ahalbidetu zituzten, hauek aurrezpen esanguratsua agerian utziz: aireztapen mekanikoa zuten AEZUan ospitaleratutako pazienteen gastua 1.976\$ txikiagoa zen, ZIUan ospitaleratutakoekin alderatuta³³. Duela gutxi, tokiko ikerketa batek 500.000€-ko urteko aurrezpena kalkulatu zuen ZIUko egonaldiak laburtuz²⁰. Italiako ikerketa



batek, bestalde, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoaren (BGBK) areagotzearen ondorioz AEZUan eta ZIUan ospitaleratzeen osasun-gastuen konparaketa egin zuen, kostuen %50eko murrizketa ikusiz (1.507€, 754€ kontra) ³⁴. Aurrezpen hau erizaintzako gastu txikiagoari, diagnostiko tekniken erabilpen urritzari eta azpiegitura sinpleagoari egozten zaio.

AEZUak ZIUan ospitaleratzeak ekiditeaz gain, ZIUko egonaldia eta berrospitaleratzeak murrizten lagundu dezakete. ZIUan aireztapen mekanikoaren menpe egondako denboraren %41a *weaning* (aireztapen mekanikoaren deskonexioa) prozesuan ematen dela nabarmendu da, BGBK duten pazienteetan %59ra igoz ³⁵; gainera, ZIUan emandako denboraren %35,8an esku-hartze inbaditzaileen beharrik gabe ematen da ³⁶. Behin klinikoki egonkortuta, pazienteak AEZU batera lekualdatuak izan litezke, prozesuari jarraipena emanez, ospitale egonaldia gutxituz eta kostuak murriztuz ^{37 38}. Kontrolatutako paziente-fluxu honek (*step-down*) ZIUko berrospitaleratzeak murriztea ahalbidetzen du ³⁹, pazienteen pronostikoa arriskuan jar dezaketen ospitalizazio-ohe arruntetara alta goiztiarrak ekidituz ⁴⁰. Adibidez, ospitale batean emandako erdi-mailako zainketa unitate baten itxierak, ZIUan arrisku baxuko pazienteen egonaldia luzatu zuen ⁴¹. Orobat, ZIUko oheen eskuragarritasuna optimizatzen da, behar kritikoak dituzten pazienteentzat gordez ⁴², ikusi baita ZIUko oheen eskuragarritasun faltak ospitaleratzean atzerapena ekar dezakeela, eta ondoriozko hilkortasuna handituz ⁴³.

AEZUen beste onura ekonomiko bat ZIUko monitorizazio inbaditzaileen ondoriozko konplikazioen murrizketa da ⁴⁴. Nahiz eta monitorizazio ez-inbaditzailearen efikazia eta kostu-efektibitatea oraindik ez dagoen guztiz frogatuta, etorkizun handiko ikerketa-esparrua izan daiteke.

Bestalde, AEZUen eragina ospitaleko dinamikan aztertzeko helburuarekin hainbat ikerketa burutu dira. Hauetako batean, ospitalean AEZU bat zabaldu aurretik eta ondoren, AG, BGBK eta pneumonia zuten pazienteak sartu ziren; AEZUa zabaldu




ostean ospitale-barneko hilkortasuna eta ospitale egonaldia murriztu egin ziren ⁴⁵. Europako 17 herrialdeetan, 5.834 paziente sartu zituen zentru-anitzeko ikerkuntza batean, ospitalean EZU baten presentziak ZIUan ospitaleratutako pazienteen hilkortasunaren murrizketa adierazgarria dakarrela frogatu zen ⁴⁶.

AEZUen garapenean funtsezko beste mugarri bat AMEIaren inplementazioa da. Teknika honek BGBK areagotzea eta AGA hiperkapnikoa duten pazienteen hilkortasuna murrizten eta intubazio orotrakeala (IOT) gutxitzen duela berretsi du ^{47 48}. Ondorioz, azken hamarkadetan terapia honen erabilpena paziente talde honetan modu esanguratsuan handitu da ⁴⁹. Bere efektibitatea beste egoera batzuetan ere baieztatua izan da, batik bat hipopaireztapen obesitate sindromean (HOS) ⁵⁰; bihotz jatorriko biriketako edema akutuan (BEA), hilkortasunaren murrizpenean CPAP terapiaren antzeko emaitzak erakutsiz ⁵¹; eta immunodeprimitutako pazienteen AG hipoxemikoan hilkortasunaren eta AMIaren erabilpenaren murrizketa frogatuz ⁵². Historikoki, terapia hau azidosi larria ($\text{pH} < 7,25$) zuten pazienteetan erabiltzea saihesten zen, hauetan ikusitako emaitza eskasen ondorioz ⁵³. Hala ere, berriki egindako Espainiako zentru-anitzetako ikerketa batean, AMEIaren erabilpena segurua eta eraginkorra dela baieztatu da paziente hauetan ⁵⁴. Alabaina, terapia honen inplementazio eta kontrol zuzenerako espezializatutako osasun-taldea eta monitorizazio sistema egokia izatea ezinbestekoa da ^{55 56 57}.

Aldi berean, sudur-kanula bidezko fluxu-altuko terapien (SKFAT) erabilera gero eta ohikoagoak dira AGA hipoxemikoaren tratamenduan ⁵⁸. Nahiz eta hilkortasun-tasan inpaktu zuzena ez egiaztatu, intubazio-tasaren murriztea frogatu da, arnas-patologia duten paziente larrien kudeaketan balio erantsia emanez ⁵⁹.

Onura kliniko eta ekonomikoez gain, unitate hauek pazientearentzako ingurune gizatiarra goa eskaintzen dute: pribatutasun handiagoa, zarata eta argi gutxiago eta bisitaldi ordutegi malguagoak ⁷.



Hala eta guztiz ere, EZUen kostu-efektibitatea zalantzan jarri izan da aditu batzuen aldetik ⁶⁰. Hauen arabera, ez dago guztiz frogatuta kostu orokorren murrizketa eta, bestalde, larritasun kliniko arina duten pazienteen ospitaleratzearen ondorioz gastua handitu lezake (hauek bestela, ospitalizazio solairu arruntetan egongo lirateke). Gainera, EZUak dituzten ospitaleetan, ZIUko oheen erabileraren murrizketa esanguratsurik frogatu ez dela defendatzen dute ⁶¹. Aditu hauek, unitate mistoen sorrera proposatzen dute, zeinetan patologia larriagoak eta arinagoak dituzten pazienteek espazioa partekatzen duten, pazienteen fluxua optimizatuz.

Laburbilduz, AEZUak kalitatezko osasun-arreta emateko gaitasunagatik justifikatzen dira; honekin batera:

- 1) ZIUen baliabideen optimizazioa, benetan tratamendu intentsiboa behar duten pazienteentzako gordez ⁴¹.
- 2) Mediku edo erizaintzako arreta espezializatua edo *weaning*-a errazteko AMEIaren beharra duten, ZIUtik eratorritako pazienteen alta goiztiarra errazteko aukera. Paziente hauek beraien gaixotasunaren fase akutua gainditu dute, baina ospitalizazio solairu arruntetan behar duten arreta maila ezin da eman.
- 3) Osasun-langileen behar txikiagoa, bereziki erizain eta erizain-laguntzaile gutxiago; baita baliabide tekniko eta asistentzialen kontsumo txikiagoa ⁶².

1.4. EZAUGARRIAK ETA AZPIEGITURA

AEZUen ezarpena eremu geografiko ezberdinetan aldakorra izan den moduan, hauetan beharrezkoak diren ezaugarriak eta oinarrizko azpiegiturak elkarte zientifikoen partetik ez dira behar bezala definitu. 1988an Italiako talde batek AEZUen beharrezko azpiegitura proposatu zuen ⁷. Hau, Espainiako errealitatera 2005ean moldatua izan zen ⁴. Duela gutxi (Italiako elkarte zientifikoek 2021.



urtean ⁶³ eta SEPAREk 2022. urtean ³), unitate hauen behar espezifikoak ezartzen dituzte berrikuspen eguneratuak argitaratu zituzten.

Langile-Hornidura

AEZU baten mediku-taldearen burua eta koordinatzailea pneumologian espezializatutako medikua izan beharko litzateke. Medikuek arnas-aparatuaren zainketa kritikoetan zehazki trebatuak izan behar dute, hala nola, aire bidean, aireztapen mekanikoan eta bronkoscopia eta pleura-drainatze moduko teknika interbentzionisten maneian ⁶⁴. 4-6 pazienteekiko mediku bat egotea gomendatzen da, 24 orduko zaintza-mediku presentzialarekin. Zaintza-mediku hau ez da zertan AEZUan bakarrik egon behar, ospitalizazio arrunteko pazienteak artatzeko aukera izanik.

Erizaintzako langileek arnas-patologia duten paziente kritikoen maneirako gaitasunak izan behar dituzte, bereziki aire-bidearen, sedoanalgesiaren eta aireztapen-euskarriaren maneian. Erizain bat lau pazienteekiko ratioa iradokitzen da, 24 ordutan zehar.

Fisioterapeuta edo errehabilitatzailearen lana funtsezkoa da, batez ere ZIUtik lekualdatutako pazienteengan (*step-down* modeloa) egin daitekeen arnas-fisioterapia eta fisioterapia funtzionala. Fisioterapeuta bat gomendatzen da sei pazienteekiko, goizeko eta arratsaldeko lanaldietan modu egokienean.

Erizantza-laguntzaile teknikariek egindako medikamenturik gabeko zaintza berebizikoa da: garbiketa, postura-alaketak eta eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan laguntza tarteko. Monitorizazioan, oxigenoterapian eta arnas-euskarrian oinarritzko formakuntza izan behar dute.



Azpiegitura

Ohe bakoitzeko eskuragarri dagoen azalera ospitalizazio arruntekoa baino handiagoa izan behar da, monitorizazio materiala eta beharrezko tratamendua bertan sartzeko.

Erizaintza-kontrol zentral bat egon behar da, monitoreen, trenkada gardenen edo kameren bidez urruneko gainbegiratzea ahalbidetuko duena.

- Monitorizazioa:
 - Funtzio-anitzeko monitoreak: pulsioximetria, elektrokardiografia, tentsio arterial ez-inbaditzailea eta bihotz-maiztasuna (BM) modu jarraituan neurtu behar dituzte.
 - Gasen analisirako gasometroa.
 - Larruazal-zeharreko kapnografia (modurik egokienean).
 - AMEIaren monitorizaziorako sistema aurreratuak: fluxu- eta presio-kurbak, aire-ihesak, bolumen arrunta eta arnasketa-patroiaren ikusmen zuzena, paziente eta arnasgailuaren arteko sinkronia bermatzeko.
- Arnas-euskarri ez-inbaditzailearen (AEEI) hornikuntza:
 - Gama ertain-altuko etxerako arnasgailuak eta bizi-euskarriko ospitaleko arnasgailuak.
 - Sudur-kanula bidezko fluxu-altuko terapia (SKFAT).
 - Lainoztagailuak eta y hezedura-sistemak.
 - Eztul-laguntzailea.

Azkenik, ekografo eta bronkoskopio bat izateko aukera izan behar da, baita xurgagailura konektatutako pleura-drainatze sistemak ere.

Taula 1ean AEZU batek izan beharko lituzkeen ezaugarriak zerrendatzen dira, arnas-ZIU batekin dituen ezberdintasunak erakutsiz.



Taula 1. Arnas-aparatuaren patologia larria duten pazienteen kudeaketan arreta-mailen ezaugarriak.

	Arnas-ZIU	AEZU
Irizpide nagusiak		
Erizain/paziente erlazioa txandako	<1:3	1:3 edo 1:4
Ohe tresneria	Funtzio anitzeko monitoreak; zainketa intentsiborako eta AMElrako arnagailuak.	Funtzio anitzeko monitoreak; arnagailu mekanikoak (AMElrako, zainketa intentsiborakoak eskuragai)
Tratamendua	AG beste organoetako hutsegitearekin batera edo gabe	AG (organo bakarreko hutsegitea)
Guardiako medikua	24 ordu (dedikatua)	Txandaka (ez eskusiboki dedikatua)
Aireztapen mekanikoa	Intentsiboa, AMEI	AMEI, intentsiboa behar izatekotan (trakeotomizatutako pazienteetan bakarrik)
Bronkoskopia	Unitatearen barruan	Unitatearen barruan
Gasometroa	Unitatearen barruan	Unitatearen barruan
Ekografoa	Unitatearen barruan	Unitatearen barruan edo kanpoan
SKFAT	Unitatearen barruan	Unitatearen barruan
Heziketa eta prestakuntza	Langileentzako prestakuntza-programa ad hoc eta aldizkakoak; egoiliarren prestakuntza	Langileentzako prestakuntza-programak ad hoc; egoiliarren prestakuntza
Eskualdeko eta estatu mailako gertaeren aurreko erantzuna	Hondamendi eta pandemien aurrean erantzuteko gaitasuna; prestakuntza-plana	Hondamendi eta pandemietarako eskuragarri; kritikoki gaixo dauen pazienteentzako baliabidea
Mediku arduraduna	Aireztapen mekanikoak aditua den pneumologoa	—
Irizpide gehigarriak		
ECCO ₂ R (CO ₂ -aren gorputz kanpoko ezabaketa)	Unitatearen barruan	—
Ultrainagazpen-gailua	Unitatearen barruan ahal izatekotan	—
Ikerkuntza eta kalitate-programak	Ikerkuntza klinikoan parte-hartze aktiboa; kalitatea hobetzeko programa formala	Ikerkuntzarekin elkarlan aktiboa ad hoc; kalitatea hobetzeko oinarritzko programa



	Arnas-ZIU	AEZU
Zerrendatutako irizpideak eskualdeko baliabideen, gaitasunen eta etengabe aldatzen diren beharren arabera alda daitezkeen arren, funtsezko irizpide guztiak bete behar dira maila bakoitzeko unitate bat definitzeko.		
AMEI: Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea; AG: Arnas-gutxiegitasuna; SKFAT: Sudur-kanula bidezko fluxu-altuko terapia; ECCO ₂ R: CO ₂ -aren gorputz kanpoko ezabaketa.		
Iturria: Renda T et al.-etik moldatua ⁶³ .		

Ospitaleko AEZU eredu ezberdinak

Ospitalean AEZUaren kokapenari dagokionez, eredu ezberdinak bereiz daitezke:

- Banandutako eredua: pneumologiako ospitalizazio-solairutik eta ZIUtik bananduta funtzionatzen du, leku fisiko, kudeaketa eta administrazio propioekin. Pneumologia zerbitzura eta/edo ZIUra sarbide zuzena izan beharko luke. Larritasun ertaina duten paziente kopuru handi bat artatzeko aukera ematen du, nahiz eta bere zurruntasunak osasun-langileen malgutasuna mugatu.
- Eredu paraleloa: ZIUarekin leku fisikoa eta baliabideak elkarbanatzen ditu. Langileen eta hornikuntzaren lekualdaketa errazten du, baina betetze baxuaren arriskua dauka pazienteak ZIUra eramaten badira.
- Integratutako eremua: ZIUko edo pneumologiako ospitalizazio-solairuko parte da. Pazienteen jarraipen asistentziala laguntzen du eta hauen eboluzioaren araberako unitateen arteko lekualdatzea saihesten du. Eredu hauen betetzea oso aldakorra izan daiteke, osasun-langileen etengabeko doikuntza beharrezkoa delako. Unitate hauen muga garrantzitsuena kostu altua da, kualifikazio eta formakuntza handiko langileak behar direlako.

Egitura fisikoaren arabera, 2 eredu bereizten dira:

- Itxitako AEZUa: oheen arteko trenkadekin, pazienteen eta familiarren pribatutasuna eta erosotasuna lortzen da. Beirazko trenkada bidez edo kontrol-telemetria bidez, erizaintzak pazientearen bistaratze zuzena izan behar du.



- Irekitako AEZUa: trenkada gabeko egitura irekia da, erizaintzako kontrol zentralizatua izanik. Malgutasun handiagoa eskaintzen du mugimenduan, eta zainketa eta bistaratze hobeak ahalbidetzen ditu.


Aipatutako AEZU eredu ezberdinen arteko konparazio-ikerketarik ez dago. Ospitale bakoitzeko ezaugarri bereizgarrien arabera erabakitzen da AEZU eredua. Espainian pneumologiako ospitalizazio-oheetan integratutako eredua ohikoena da ⁶⁵.

1.5. PAZIENTEEN EZAUGARRIAK

Unitate hauetan ospitaleratu beharreko pazienteen ezaugarriei buruzko adostasun orokorrik ez dago. Herrialde ezberdinetako elkarte zientifikoek bestelako onarpen-irizpideak argitaratu dituzte ^{3 7 66}.

Laburbilduz, paziente hauek proposatzen dira AEZU batean ospitaleratzeko hautagai gisa:

- Arnas-gaixotasun larria nagusi duten pazienteak (*step-up*):
 - Arnas-euskarri ez-inbaditzaile (AEEI) terapia akutua behar dutenak, hots, AMEI, CPAP edo SKFAT.
 - Oinarrizko gaixotasunaren larritasunaren ondorioz, kontrol eta monitorizazio ez inbaditzailea behar dutenak, egoeraren okertzea garaiz antzemateko.
 - Beste organo baten edo gehiagoren hutsegitea duten pazienteak baztertuz.
 - Medikazio basoaktiboa edo intubazio orotrakeala (IOT) eta aireztapen mekaniko inbaditzailea (AMI) behar duten paziente ez-egonkorren kasuak baztertuz.



- Arnas-gaixotasun larria duten pazienteak egoera ez-egonkorrean, baina adinaren edo komorbiditatearen ondorioz ZIUan onartuak izateko ez-subsidiarioak, eta ahalegin terapeutikoa mugatzeko hautagai ez direnak.
- Maila asistentzial altuago batean, prozesu akutua gainditu ondoren, monitorizazioa edo arnas-euskarri ez inbaditzailea (AEEI) behar duten pazienteak, ohiko ospitalizaziora lekualdatuak izan aurretik (*step-down*).

Ezaugarrien eta gerta daitekeen eboluzio desberdinaren ondorioz, pazienteak batez ere bi taldetan bana daitezke:

- AMEIrako onartutako pazienteak: AGA hiperkapnikoa duten pazienteak dira. Gaixotasun ohikoenak hauek dira: BGBKren areagotzea, hipoaireztapen obesitate sindromea (HOS), birika edema akutua (BEA) eta gaixotasun neuromuskularrak.
- Monitorizaziorako onartutako pazienteak: egoera hemodinamikoaren edo arnas-egoeraren ondorioz eboluzioaren kontrol zorrotza behar duten pazienteak dira. Hemen AGA hipoxemikoa eta SKFAT behar duten pazienteak barne daude. Talde honetan sartzen diren pazienteen ezaugarriak heterogeneoagoak dira. Gaixotasun ohikoenak hauek dira: pneumonia, birika gaixotasun interstizialak (BGI), birika tronboenbolismoa (BTE) eta asma areagotzea.

AEZUetan gailentzen diren patologiak kohorte aztertuen arabera alda daitezke. Balearretako AEZU baten egindako ikerketa deskriptiboan, BGBK (%47,1) izan zen diagnostikorik ohikoena, pneumonia (%18,9) bigarrena ⁶⁷. Italiako kohorte batean, berriz, prebalentzia handien izan zuen diagnostikoa AGA (%71,5) izan zen, jarraian pneumonia (%18) eta BGBK (%10,3) agertu ziren ⁴⁵. Bestalde, Espainiako zentro-anitzetako kohorte batean AMEIa hasteko helburuarekin AEZUan ospitaleratutako pazienteen artean, diagnostiko nagusienak hauek izan ziren: BEA (%55,73), BGBK (%24,77) eta HOS (%19,5) ⁵⁴.




Ikerketa batzuek AGA hipercapniko eta AGA hipoxemikoa duten pazienteen arteko ezberdintasunak aztertu dituzte. Australian egindako ikerketa batean, AEZUan ospitaleratutako pazienteen %17k AGA hipoxemikoa zutela ikusi zen, eta %41ek, berriz, AGA hiperkapnikoa ⁶⁸. Ikerketa honek diagnostiko eta hilkortasun ezberdinak nabarmendu zituen: pneumonia, BGI eta birika hipertentsio prebalentzia altuagoa izan zen AGA hipoxemikoa zuten pazienteen artean, hilkortasun-tasa altuagoa izanik; AGA hiperkapnikoa zutenen artean, berriz, BGBK izan zen gaixotasun nagusia.

1.6. HILKORTASUNA AEZUetan

AEZUetako hilkortasun-tasari buruzko informazioa mugatua da, ez direlako helburu honekin ikerketarik egin. Hala ere, zenbait ikerketek unitate hauen barruko (intra-AEZU) hilkortasun-tasen informazioa eman dute, %5,3 eta %6,4ren tartekoak izanik. Testuinguru honetan, pazienteen ehuneko garrantzitsu bat AEZUan hiltzen ez den heinean, ospitale-barruko hilkortasuna aztertzea adierazgarriagoa da. Narritadura klinikoa jasaten duten paziente batzuk ZIUrak lekualdatzen dira, edo, beste batzuk, ahalegin terapeutikoa mugatzearen irizpideei jarraituz, ospitalizazio-ohe arruntetara lekualdatuak dira ingurune egokiago batean hil daitezten. Emandako ospitale-barneko hilkortasun-tasak %5,4 eta %16,4 tartekoak dira ^{20 18 45 67}.

Erdi-mailako zainketa unitateei (EZU) dagokionez, datu gehiago daude eskuragai ^{69 70 71 72 73}. Mota askotariko patologiak artatzen dituzten unitate hauen hilkortasun-tasak AEZUan ikusitakoen antzekoak dira, %2,7 eta %19,7 tartekoa izanik.

Bestalde, AMEI bidez tratatutako pazienteen hilkortasuna ere ikertua izan da, nahiz eta emaitzak heterogeneoak izan patologia eta hasierako larritasunaren arabera. Arestiko ikerketek %23 eta %33 tarteko hilkortasun-tasak eman dituzte, AGA hipoxemikoa duten pazienteetan handiagoa izanik ^{74 75 76 77}.




AEZUan onartuak diren patologia ezberdinen ospitale-barneko hilkortasunari buruzko informazioa badago. Deskribatutako hilkortasun-tasak honako hauek dira:

- BGBK areagotzea: batezbesteko ospitale-barruko hilkortasuna %6,2koa da, nahiz eta ikerketen eta herrialdeen arabera aldatu ⁷⁸. ZIUan ospitaleratzea behar izanez gero %24,5raino igo dateke ⁷⁹.
- Komunitatean hartutako pneumonia: ospitale-barruko hilkortasun-tasa %2,2 eta %20,4 tartekoa da ^{80 81 82}, kontuan hartutako ikerketaren arabera aldatuz. ZIUan ospitaleratutako pazienteen hilkortasuna 30 egunetara %23-36,5era igoaten da ^{83 84}.
- Birika tronboenbolismoa (BTE): ezaugarri klinikoen larritasunaren arabera hilkortasuna aldakorra da: arrisku baxuko pazienteetan %3koa, eta kasu larrietan %21ekoa ⁸⁵. Ikerketa batzuek diote ZIUan ospitaleratzea behar duten pazienteen hilkortasuna %14koa dela ⁸⁶.
- Bihotz jatorriko birika edema akutua (BEA): miokardioko infartu akutua izan gabe, ospitale-barneko hilkortasuna %13,8koa da ⁸⁷.
- Hipoaireztapen obesitate sindromea (HOS): arnas sintomen okertzearen ondorioz ospitaleratutako pazienteen ospitale-barneko hilkortasuna %9koa da ⁸⁸.
- Asma areagotzea: asma areagotzearen ondorioz ospitaleratutako pazienteen hilkortasun-tasa baxua da (%0,5) ⁸⁹, baina %10-25era igo daiteke ZIUan ospitaleratzea eta IOT behar duten kasuetan ⁹⁰.
- Birika gaixotasun interstizialaren (BGI) areagotzea: hilkortasuna altua da, %50-66koa izanik ^{91 92}, eta %79ra igo daiteke birika fibrosi idiopatikoa duten kasuetan ⁹³ eta %90ra ZIUan ospitaleratzea behar izanez gero ⁹⁴.
- Arnas-larritasuna duten gaixotasun neuromuskularrak: hilkortasuna patologia eta oinarritzko egoeraren arabera da, %6 eta %26 tartekoa izanik ^{95 96}.



ZIUetako hilkortasuna, berriz, sakonago ikertua izan da. Dena den, emaitzak oso aldakorrak dira eta faktore anitzen araberakoa: osasun-azpiegitura, eskuragarritasuna, langileen trebakuntza eta ospitaleratzearen arrazoia, besteak beste. Estatu Batuetan, ZIUetako hilkortasun-tasa %8 eta %19 tartekoa da. Ipar-Amerika, Ozeania, Asia eta Europa bezalako eskualde garatuetan, hilkortasun-tasak orokorrean baxuagoak dira, batzaz beste %9,3, %10,3, %13,7 y %18,7, hurrenez hurren. Bestalde, Hego-Amerikan eta Ekialde Ertainean, hilkortasuna altuagoa da, %21,7 eta %26,2koa, hurrenez hurren ⁹⁷. Azkenik, badaude arnas-ZIUetan egindako ikerketak ere, eta horien hilkortasun-tasak %18-%24,8 ingurukoak izan dira ¹²⁶.

Kontuan hartuta paziente hauek duten hilkortasun altua, funtsezkoa da unitate hauetan hilkortasunarekin lotutako faktoreak identifikatzea eta aztertzea. Honek emaitza klinikoak hobetzen eta osasun-baliabideak optimizatzen lagun dezake.



2. HILKORTASUNAREN FAKTORE PRONOSTIKOAK

XX eta XXI. mendeetan zehar, arrisku-faktoreen identifikazioa garrantzi handiko erronka izan da, batez ere aurreko mendeko erdialdean epidemiologia modernoa sortu zenetik. Desafio hau benetako buruhaustea izan da osasun profesionalentzat, zeintzuk etengabe gaixotasun konkretu bat garatzeko edo eboluzio kliniko bat jarraitzeko probabilitate altua duten pazienteak, modu goiztiar baten, identifikatzea bilatzen duten ⁹⁸.

Aurrerapen hauei esker, faktore pronostikoak ia gaixotasun guztietan garatu dira, ebaluazio zehatzago eta pertsonalizatuagoa ahalbidetuz. Hauen artean, hilkortasunaren faktore pronostikoek ezinbesteko papera dute, gaixotasunari eta heriotzari "aurre hartzeko" aukera emanez.

2.1. DEFINIZIOA

Faktore pronostiko bat zera da: osasun-egoera konkretua duten pertsonen artean, osasun-eboluzio bat izateko arriskuarekin lotutako edozein aldagai ⁹⁹. Hauek hainbat erabilera izan ditzakete, tratamenduen eta bizitza-estiloen aldaketetan erabakiak hartzen erraztu, banakako arriskuaren aurreikuspena hobetu, helburu terapeutiko berriak identifikatu eta ausazkotutako saiakuntza klinikoen diseinua eta analisia optimizatu ¹⁰⁰.

Hortaz, hilkortasunaren faktore pronostikoak paziente baten heriotza estimatzen ahalbidetzen duten ezaugarri kliniko, biologiko, demografiko, edo ingurunearekin erlazionatutakoak dira. Faktore hauen identifikazioa eskala pronostikoen garapenaren oinarria da. Hauek, faktore ezberdinen konbinazioaren bidez, hilkortasun-arriskuaren estimazioa eskaintzen duten tresnak dira. Eskala hauen erabilera erabaki medikuak hobetzeko eta pazientearekiko arreta optimizatzeko funtsezkoa da, interbentzioak banakako arriskura doitzuz.



Nahiz eta urtero hainbat ikerketa publikatu, hauen kalitatea oso aldakorra da eta aurkikuntzak sendotasunik gabekoak izaten dira. AEZUen esparruan, faktore pronostikoen eta aurreikuspen eskalen inguruko ikerketak eskasak dira (ikusi 2.2.3. atala). Hori dela eta, ZIUetan, EZUetan eta arnas-patologiaren testuinguruan identifikatutako faktoreak eta garatutako eskalak berrikusiko dira atal honetan.


2.2. HILKORTASUNAREN FAKTORE ETA ESKALA PRONOSTIKOEN BERRIKUSPENA

2.2.1. ZAINKETA INTENTSIBOAK

ZIUan ospitaleratutako pazienteek larritasun kliniko altua dute eta, horren ondorioz, hilkortasun-tasa handia ere⁹⁷. Horregatik, faktore pronostikoen identifikazioa eta aurreikuspen eskalen garapena lehentasunezko ikerkuntza arloa izan da. Praktika klinikoan gehien erabiltzen diren tresnen artean APACHE II (*Acute Physiology, Age, Chronic Health Evaluation II*), SAPS-II (*Simplified Acute Physiology Score II*) eta SOFA (*Sequential Organ Failure Assessment*)¹⁰¹ nabarmentzen dira. Beste eskala batzuk existitzen badira ere, frogatuta dago hauek diskriminazio ahalmen sendoa dutela, eta ez direla bereziki konplexuak erabiltzeko.

Esaterako, nahiz eta APACHE IV¹⁰² moduko bertsio berriagoak garatu diren, hauen erabilera mugatuagoa izan da, konplexutasun handiagatik (129 aldagai erabiltzen ditu) eta kanpo-balioztatze txikiagoa duelako. Era berean, "ohean" azkar erabiltzeko diseinatutako tresna sinplifikatuek, hala nola qSOFA (*Quick Sequential Organ Failure Assessment*)¹⁰³, aurreko eskalen emaitza okerragoak izan dituzte¹⁰⁴.

Hortaz, eskala esanguratsuenak eta hauetan barneratutako faktore pronostikoak berrikusiko ditugu.



APACHE II (Acute Physiology, Age, Chronic Health Evaluation II)

1985. urtean Estatu Batuetan garatua eta balioztatuta, APACHE II eskala paziente kritikoen ospitale-barneko hilkortasuna auresateko diseinatua izan zen ¹⁰⁵. Lehenengo 24 orduetan bildutako 12 neurketa fisiologikoetan, adinean eta aurretiko osasun egoeran oinarritzen da:

1. Aldagai fisiologiko akutuak: gorputz temperatura (T^a), tentsio arterial sistolikoa eta diastolikoa (TAS eta TAD), bihotz-maiztasuna (BM), arnas-maiztasuna (AM), oxigenazioa (pO_2 arteriala edo PaO_2/FiO_2 erlazioaren bidez neurtuta), azido-base oreka (pH edo bikarbonatoaren bidez neurtuta), sodio, potasio eta kreatininaren maila serikoak, hematokritoa, leukozitoak, eta egoera neurologikoa (Glasgow eskalaz neurtua).
2. Pazientearen adina.
3. Aurretiazko gaixotasun kronikoak (komorbilitateak): bihotz, gibel edo giltzurrun-gutxiegitasuna edo arnas-gaixotasun kronikoa moduko patologia kronikoak barne daude.

Aldagai horien neurketaren arabera, hilkortasun-arriskua adierazten duen puntuazio bat kalkulatzen da:

- 0-10 puntu: arrisku baxua.
- 11-20 puntu: arrisku ertaina.
- >20 puntu: arrisku altua.

SAPS II

1993. urtean garatua, SAPS II eskala paziente kritikoen hilkortasuna auresateko helburuarekin sortu zen, bere aurrekaria zen SAPS I hobetuz ¹⁰⁶. Ospitaleratzearen lehenengo 24 orduetan neurtutako parametro kliniko eta fisiologikoetan oinarritzen da eskala:



- Parametro fisiologikoak: adina, BM, TAS, gorputzeko T^a, Glasgow eskala bidez neurtutako egoera neurologikoa, urearen kontzentrazio serikoa, sodioa, potasioa, bilirrubina y bikarbonatoa, leukozitosis eta PaO₂/FiO₂ erlazioa.
- Ezaugarri klinikoak:
 - Hartutako immunoeskasiaren sindromea (HIES), minbizi metastasikoa eta neoplasia hematologiko gaiztoa moduko patologia larrien presentzia.
 - Ospitaleratze mota: kirurgia programatua, kirurgia ez-programatua edo ospitaleratze medikua.

Parametro ezberdinen puntuaketa gehituz puntuazio orokor bat lortuko da, pazientearen banakako hilkortasun-arriskua adieraziko duena:

- 0-30 puntu: arrisku baxua.
- 31-60 puntu: arrisku ertaina.
- 61-100 puntu: arrisku altua.
- >100 puntu: arrisku kritikoa.

SOFA eskala (*Sequential Organ Failure Assessment score*)

Hasiera batean organo-anitzeko disfuntzioa ebaluatzeko diseinatu zen SOFA eskala, baina geroago hilkortasuna aurreratzeko tresna gisa balioztatu zen^{107 108}. APACHE II eta SAPS II eskalek ez bezala, SOFA eskalak pazientearen egoeraren jarraipen dinamikoa egiteko aukera ematen du. Funtsezkoak diren sei sistema organikoen ebaluaketan oinarritzen da, parametro kliniko eta laborategiko parametroen bidez :

1. Arnas-aparatua: PaO₂/FiO₂ erlazioa.
2. Koagulazioa: plaketa zenbaketa.
3. Gibela: bilirrubina serikoa.
4. Kardiobaskularra: tentsio arteriala eta farmako basopresoreen erabilera.
5. Neurologikoa: Glasgow eskala.



6. Giltzurruna: kreatinina serikoa eta diuresi bolumena.

Puntuazio altuagoek disfuntzio organiko handiagoa eta hilkortasun-arrisku handiagoa islatzen dute:

- 0-6 puntu: disfuntzio minimoa, hilkortasun-arrisku baxua.
- 7-12 puntu: disfuntzio ertaina, hilkortasun-arrisku ertaina.
- >12 puntu: disfuntzio larria edo hutsegite multiorganikoa, hilkortasun-arrisku altua.

Nahiz eta APACHE II eta SAPS II hilkortasuna auresateko diseinatuak izan, SOFA hutsegite multiorganikoa ebaluatzeko garatua izan zen, eta bere erabilera hilkortasuna aurreikuspenean estrapolatua da.

Ausazkotutako saiakuntza klinikorik ezean, ez da frogatu eskala batek besteek baino aurreikuspen ahalmen handiagoa duenik. Berrikuspen sistematiko baten arabera ¹⁰⁹, APACHE eskalek abantaila txiki bat erakutsi zuten, nahiz eta APACHE edo SAPS II eskalak SOFArekin konbinatzeak emaitzen aurreikuspena hobetzen duten.

Hiru eskaletan sartutako aldagaiak aztertuz eta konparatuz, hilkortasunaren arrisku-faktore amankomunak identifika daitezke (Taula 2). Eskala guztietan hurrengo lau aldagaiak daude sartuta:

- Tentsio arteriala (eta bihotz-maiztasuna, kasu batzuetan): pazientearen egoera hemodinamikoaren informazioa ematen du.
- PaO₂/FiO₂ erlazioa: arnasketa funtzioa adierazten du.
- Glasgow eskala: egoera neurologikoa adierazten du.
- Urea edo kreatininaren maila serikoak: giltzurrun funtzioa adierazten du.

Horrez gain, adina eta komorbilitateak APACHE II eta SAPS II eskaletan barneratuta daude, baina ez SOFA eskalan.



Taula 2. ZIUko heriotza escala pronostiko ezberdinetan sartutako aldagaien konparaketa.


Variable	APACHE II	SAPS II	SOFA
Adina	Bai	Bai	Ez
Bihotz maiztasuna	Bai	Bai	Ez
Presio arteriala	Bai	Bai	Bai
Basopresoreen erabilera	Ez	Ez	Bai
Arnas maiztasuna	Bai	Ez	Ez
PaO ₂ /FiO ₂ erlazioa	Bai	Bai	Bai
Glasgow eskala	Bai	Bai	Bai
Gorputz-T ^a	Bai	Bai	Ez
Diuresia	Ez	Bai	Bai
Kreatinia serikoa	Bai	Ez	Bai
Urea serikoa	Ez	Bai	No
Bilirrubina serikoa	Ez	Bai	Bai
Sodio serikoa	Bai	Bai	Ez
Potasio serikoa	Bai	Bai	Ez
Azido-base oreka	Bai	Bai	Ez
Hematokrito	Bai	Ez	Ez
Leukozitoak	Bai	Ez	Ez
Plaketak	Ez	Ez	Bai
Komorbilitateak	Bai	Bai	Ez
Ospitaleratzearen arrazoia	Ez	Bai	Ez

Nahiz eta ikerkuntzan hilkortasunaren eskala pronostiko onena diseinatzeko ahaleginak egin diren, badaude ikerketak non adituen iritzia klinikoaren zehaztasuna eskalena baino hobea dela erakusten duten ¹¹⁰.

Gainera, pazientearen aldagai intrintsekoek aparte, hilkortasunean eragina duten azpiegitura edo osasun-sistemaren faktoreak ere identifikatu dira.

Ikertutako faktoreen artean, osasun-langileen kopurua eta asistentzia-zama dira eragin handiena dutenak. ZIUko pazienteen artean asistentzia-zama handiagoa biziraupen txikiagoarekin erlazionatzen duten ikerketak badaude, erizainen kasuan inpaktu esanguratsua izanik ^{111 112}.

Beste faktore erabakigarri bat ZIUan ospitaleratzearen atzerapena da. Hainbat ikerketetan ikusi da atzerapen hori duten pazienteek pronostiko txarragoa eta



hilkortasun handiagoa dutela ^{113 114}. Ondorio hauek arnas-patologia duten pazienteetan ere ikusi dira ^{115 116}, esku-hartze goiztiar eta egokiaren garrantzia azpimarratuz.

2.2.2. PNEUMOLOGIA

Gaur egun, arnas-patologiaren ondorioz ospitaleratutako pazienteentzat ez dago orokorrean onartutako hilkortasunaren arrisku-faktorerik edo eskala pronostikorik. Hala ere, patologia zehatzetan, esaterako komunitatean hartutako pneumonia (hemendik aurrera testuan pneumonia bezala adierazita) edo BTE, faktore eta eskala espezifikoak garatu izan dira, hauetan hilkortasun-arriskua estratifikatzeko helburuarekin. Atal honetan, zientzia-literaturan ohikoenak diren arrisku-faktore eta eskalak birpasatuko dira.

Pneumonia

Gaixotasun infekziosoen artean, pneumonia hilkortasun-kausa nagusia da ^{117 118}. 30 eguneko hilkortasun-tasa aldakorra da: %2,8koa da 60 urte baino beherako pazienteetan, eta %26,8 nagusiagoetan ¹¹⁹. Hori dela eta, patologia honen ondorioz ospitaleratutako pazienteen hilkortasuna estimatzeko, hainbat eskala pronostiko garatu dira, PSI eskala (*Pneumonia Severity Index*) ¹²⁰ eta CURB-65 ¹²¹ dira esanguratsuenak ¹²². Horrez gain, pneumonia larria auresateko tresnak ere badaude, hala nola SCAP eskala (*Severe Community-Acquired Pneumonia*) ¹²³, ZIUko ospitaleratzea behar duten pazienteak identifikatzeko baliagarria dena.

Taula 3an hiru eskala hauetan sartzen diren aldagai nagusien konparaketa aurkezten da. Aldagai komunak artean, funtzio hemodinamikoari eta arnas-funtzioari lotutakoak daude. Halaber, adina, egoera neurologikoa eta giltzurrunaren funtzioa PSI eta CURB-65 eskalen artean komun agertzen diren aldagaiak dira.



Taula 3. Pneumonia duten pazienteen pronostiko-eskala ezberdinetan sartutako aldagaien arteko konparaketa.


Aldagaia	PSI	CURB-65	SCAP
Adina	Bai	Bai	Ez
Sexua	Bai	Ez	Ez
Komorbilitateak	Bai	Ez	Ez
Bihotz maiztasuna	Bai	Ez	Ez
Presio arteriala	Bai	Bai	Bai
Asnas maiztasuna	Bai	Bai	Bai
Tenperatura	Bai	Ez	Ez
Konfusioa	Bai	Bai	Ez
pH arteriala	Bai	Ez	Ez
Urea	Bai	Bai	Ez
Sodioa	Bai	Ez	Ez
Glukosa	Bai	Ez	Ez
Hematokrito	Bai	Ez	Ez
Oxigenazioa	Bai	Ez	Bai
Lobulu-anitzeko afekzioa	Bai	Ez	Bai
Isuri pleurala	Bai	Ez	Ez

Birika tronboenbolismoa (BTE)

BTE, zainetako gaixotasun tronboenbolikoaren adierazpenetako bat da, hirugarren sindrome kardiobaskular ohikoena¹²⁴ eta hilkortasun-kausa esanguratsua¹²⁵. Patologia honetan gehien erabiltzen den eskala pronostikoa PESI indizea da (*Pulmonary Embolism Severity Index*)¹²⁶, 30 eguneko hilkortasuna aurreikusteko diseinatua. 11 aldagai kliniko eta analitiko hartzen ditu kontuan:

- Datu demografikoak: adina eta sexua.
- Komorbilitateak: bihotz-gutxiegitasuna, BGBK eta minbizi aktiboa.
- Zeinu klinikoak: BM, tentsio arteriala, AM, tenperatura, oxigenazioa eta konfusioa.

Indize honen indargunerik handiena hilkortasun-arrisku baxuko pazienteak identifikatzeko duen gaitasunean datza¹²⁷. Duela gutxi, bertsio sinplifikatu bat garatu da (PESIs)¹²⁸, 30 eguneko hilkortasun-arrisku baxua duten pazienteak



identifikatzeko ahalmen bera mantentzen duena, baina erabilera sinpleagoa duena.

BGBK

Birika gaixotasun buxatzaile kronikoaren (BGBK) areagotzeak hilkortasunaren arrisku-faktore garrantzitsuak dira, gaixotasunaren oinarritzko larritasuna edozein izanda ere ^{129 130}. Areagotzeen larritasuna neurtzeko garatutako tresna nagusiak ROMA proposamena ¹³¹ eta DECAF eskala ^{132 133} dira.

ROMA proposamena, aditu talde baten literaturaren berrikuspenean oinarritua, sei parametro neurtzen ditu areagotzearen larritasuna neurtzeko: disnea, AM, BM, oxigeno asetasuna, gas arterialak (pH eta pCO₂ arterialaren neurketarako) eta proteina C-erreaktiboa (PCR). Hala ere, tresna hau hilkortasuna aurreikusteko moduan balioztatzeko ikerketa espezifikorik ez da egin.

DECAF eskala (*Dyspnoea, Eosinopenia, Consolidation, Acidaemia and atrial Fibrillation Score*) berriz, ospitale-barneko hilkortasuna aurreikusteko diseinatu da. Bost aldagai hartzen ditu kontuan: disnea, eosinopenia, torax erradiografian kontsolidazioak, arnas-azidosia eta fibrilazio aurikularra.

Bi tresnen hauen artean, disnea eta arnas-azidosia amankomuneko aldagaiak dira.

Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea

AMEIaren porrota eta harekin lotutako faktoreak hainbat ikerketen xede izan dira, nahiz eta emaitzak aldakorrak izan. AMEIaren porrota IOTaren beharra edo pazientearen heriotza bezala definitzen da, eta ikerketetan %5 eta %60 tartekoak izanik ¹³⁴. Zifra hauek hainbat faktoreen arabekoak dira, eta AGaren azpiko kausa da erabakigarrien. AMEIaren porrota IOTaren atzerapenarekin lotu da, eta horrek pazienteen eboluzio kaltegarria ekar dezake ¹³⁵. Hala ere, oraindik ez dira identifikatu terapiaren erantzuna aurreikusteko faktore argi eta sendoak.



Ikerketen berrikuspen batean, AMEIaren porrotarekin erlazionatutako faktoreak laburbildu dira (Taula 4), porrotaren unearen arabera sailkatuta ¹³⁶. Kategorizazio honek arrakasta edo porrota baldintzatzen duten faktoreak hobeto ulertzen laguntzen du.

Taula 4. AMEIaren porroterako unearen arabeko arrisku-faktoreak.

Unea	Arrisku-faktoreak
Berehalakoa	1. Eztul-erreflexu ahula eta/edo gehiegizko sekrezioak 2. Hiperkapnia ondoriozko entzefalopatia eta koma egoera. 3. Agitazio psikomotorra 4. Paziente-arnasgailu asinkronia
Goiztiarra, AGA hipoxemikoaren ondoriozkoa	1. Oinarrizko gasometria eta gas-trukaketa zuzentzeko ezintasuna ($\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa < 150) 2. Oinarrizko larritasunaren puntuazioak (SAPS II > 35) 3. HADS/pneumonia/sepsia/organo-anitzeko hutsegitearen presentzia 4. AMren areagotzea (> 25 am) 5. Hainbat: Ospitaleratze eta AMEIren erabileraren arteko atzerapena, egindako bronkoskopia kopurua, AMEIren erabileraren iraupena, erradiografian infiltratuen areagotzea lehenengo 24 orduetan, ustekabeko diagnostikoa ('de novo')
Goiztiarra, AGA hiperkapnikoaren ondoriozkoa	1. Oinarrizko gasometria eta gas-trukaketa zuzentzeko ezintasuna ($\text{pH} < 7.25$) 2. Gaixotasunaren larritasun handiagoa 3. AMren areagotzea (> 35 am, oinarrizkoa eta AMEI hasi eta 2 ordutara) 4. Indize mistoak: - Glasgow eskala, APACHE II puntuazioa, AM eta pH - AM, ausazko glukosa-maila eta APACHE II puntuazioa - Anemia eta OMEren egoera funtzionala. 5. Hainbat: Nutrizio egoera txarra, BMren areagotzea, PCR/leukozitoen maila altuak, potasio seriko baxua, gram negatibo ez hartzitzaileen bidez arnas-bideen kolonizazioa.
Berantiarra	1. Loaren asaldurak 2. Mugaketa funtzionala 3. pHaren hasierako hobekuntza posiblea. 4. Hipergluzemia

HADS: Helduen arnas distres sindromea. AM: arnas-maiztasuna. BM: Bihotz-maiztasuna. PCR: Proteina-C-erreaktiboa. OME: Osasunaren Mundu Erakundea.

Ozyilmaz et al.-etik moldatua ¹³⁶

Dena den, ikerketa gehienek AG hiperkapnikoa duten pazienteak soilik hartu dituzte kontuan. Horregatik, Txinako ikerketa talde batek AG hipoxemikoa duten



pazienteetan AMEIaren porrota aurreikusteko eskala bat garatu eta balioztatu zuen ⁷⁷. Eskala hori HACOR izenarekin ezagutzen da, eta AMEIaren porrota aurreikusteko honako faktore hauek barne hartzen ditu: BM, azidosia (pHaren bidez neurtua), kontzientzia maila (Glasgow eskala bidez neurtua), oxigenazioa eta AM. Eskala honi esker, AMEIaren porrota izateko probabilitate handiagoa duten pazienteak identifikatu daitezke, eta horrela IOT eta AMIaren atzeratzea saihestu.

Sudur-kanula bidezko fluxu-altuko terapia

Azken urteetan, SKFATren erabilera zabaltzearekin batera, terapiaren porrotarekin lotutako faktoreen inguruko ikerketak garatu dira. Testuinguru honetan, ROX indizea ¹³⁷ sortu da, ohean bertan neurtu daitekeen hiru aldagaitan oinarritutako eskala erreza: O₂ asetasuna (pulsioximetria bidez neurtua), SKFAT emandako O₂-aren frakzio-inspiratorioa (FiO₂) eta AM. Indize hau terapia hasi eta lehenengo orduetan erabiltzen badugu (2, 6 eta 12 orduetan), terapiaren porrota eta IOTaren beharra aurreikusi dezake.

2.2.3. AEZUa

AEZUko hilkortasunaren faktore pronostikoak gutxi ikertuak izan dira eta ez da unitate hauetan balioztatutako eskalarik garatu.

Heili-Frades et al.-ek egindako ikerketaren helburu nagusia AEZUaren ondoriozko osasun-gastuen murrizketa aztertzea zen ²⁰, baina bigarren helburu gisa hilkortasunaren faktore pronostikoak ere ikertu ziren. Ikerketak %16,4ko ospitale-barneko hilkortasun-tasa eman zuen. Poisson erregresioaren bidezko analisiak ez zuen asoziazio esanguratsurik aurkitu ikertutako aldagai eta hilkortasunaren artean. Hala ere, aldagai anitzeko analisisian AMak, odoleko leukozitoen mailak, hemoglobinak, potasio serikoak eta pH arterialak hilkortasunarekin erlazio esanguratsuak erakutsi zituzten, ROC kurbaren azpiko azalera (AUC) 0,75koa izanik (konfiantza tartea (KT) 95%: 0,66-0,85). Dena den,



ikerketaren helburu nagusia faktore pronostikoen identifikazioa ez zenez, emaitzak zuhurtziaz interpretatzea komeni da.

Bestalde, AEZUan ospitaleratutako pazienteen artean, populazio espezifikoetan faktore pronostikoen ikerketak badaude. Esaterako, Bizkaiko AEZU batean egindako aurrera-begirako ikerketa batek BGBK areagotzearen ondorioz ospitaleratutako pazienteen ospitale-barneko hilkortasunaren faktore pronostikoak ikertu zituen ¹³⁸. Aldagai-anitzeko analisiaren bidez, hilkortasunarekin erlazionatutako aldagaiak identifikatu zituen: pazientearen oinarritzko disnea (*Medical Research Council* (MRC) eskala bidez neurtua ¹³⁹), BGBK areagotzeagatik azken urtean izandako ospitaleratze kopurua eta BGBKren oinarritzko larritasuna (ADO dimentsio-anitzeko eskalaren arabera ¹⁴⁰), AMaren eboluzioa eta Glasgow eskalaren puntuazioa. Aldagai-anitzeko analisisian, hiru aldagai hilkortasunarekin erlazionatu ziren: izandako ospitaleratze kopurua, AEZUan ospitaleratu eta bi ordutara neurtutako AM, eta gaixotasunaren oinarritzko larritasuna. Aurreikuspen-ereduak 0,867ko AUCa lotu zuen (KT 95%: 0,703-1), aurreikuspen-ahalmen altua erakutsiz.

Iruñeako erdi-mailako zainketa unitate (EZU) batean, AMEI bidez tratatutako hilkortasuna aztertu zen, eta SAPS II eta SAPS 3 eskalek ingurune honetan duten aurreikuspen-ahalmena ikertu zen ¹⁴¹. Paziente hauen %32,4ko hilkortasuna ikusi zen. SAPS IIak diskriminazio ahalmen aldakorra zuela erakutsi zuen, batez ere hasierako diagnostikoaren arabera, BGBK eta BEA duten pazienteengan hobeia izanik. Ikerketa honen emaitzei esker, eskala pronostiko bat proposatu zen, hurrengo aldagaiak barne zituen: SAPS II eskalaren puntuazioa, hasierako diagnostikoa (BGBK eta BEA faktore babesleak izanik), immunosupresioa, ahalegin terapeutikoa mugatzeko irizpidea, pCO₂ arterial maila, azido laktikoa eta hemoglobina. Azkenik, AMEI bidez tratatutako pazienteen aldagai espezifikoetan oinarrituta, egokitutako SAPS II eskalaren bertsio bat proposatu zen, zehaztasuna hobetzeko asmoz.



COVID-19aren pandemiak AEZUen erabilpena sustatu zuen SARS-CoV-2ak eragindako AGAren kudeaketan. Ondorioz, profil honetako pazienteekin hainbat ikerketa egin ziren. Bartzelonako AEZU batean egindako ikerketan, adina eta aurretik arnas- zein giltzurrun-patologia izateak ospitale-barneko hilkortasun-arrisku handiagoarekin erlazionatu ziren ¹⁴². Italiako beste ikerketa batek, gizonezko izatea, linfopenia eta PCR maila altuak ZIUra lekualdatzeko arrisku handiagoarekin erlazionatu zituen ¹⁴³. Azkenik, Suitzako ikerketa batek $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa eta gorputz masa indizea (GMI) ZIUan ospitaleratze beharrarekin erlazionatu zituen ²⁶.

EZUei dagokionez, AEZUen antzerako azpiegitura izanik ere, profil ezberdineko pazienteak artatzen dituzte, beraz, unitate hauetan lortutako emaitzen estrapolazioa mugatua da.

Zenbait ikerketek ZIUan erabiltzeko diseinatutako SAPS II eta APACHE II eskalen erabilera aztertu dute ingurune honetan, aurreikuspen-ahalmen ona dutela erakutsiz, nahiz eta kalibrazioan eta hilkortasunaren estimazioan muga nabarmenak agertu ^{69 144 145 70}.

Azkenik, EZUko hilkortasuna auresateko eskala espezifikoak garatu dira. Iruñan egindako ikerketa batek ImCUSS (*Intermediate Care Unit Severity Score*) izeneko eskala proposatu zuen ⁷¹. Eskala honek, ospitaleratzean neurtutako bederatzia aldagai dikotomiko barne hartzen ditu: aurreko ospitaleko egonaldia ≥ 7 egun, osasun-arretaren ondoriozko infekzioa, minbizi metastasikoa, immunosupresio terapia, Glasgow eskalan ≤ 12 puntu, AMEI terapiaren beharra, plaketa kopurua odolean $\leq 50.000/\text{mCL}$, urea serikoa $\geq 0,6 \text{ g/L}$ eta bilirrubina serikoa $\geq 4 \text{ mg/dL}$. Nahiz eta eskalak diskriminazio ahalmen egokia izan (AUC 0,843; KT 95%: 0,805-0,881), AEZUetako pazienteen profil ezberdinek erabilera mugatzen dute. Ikerketa honetan, %34,2k soilik AGAren ondorioz izan zuten ospitaleratzea EZUn, arrazoi nagusienak sepsia (%21,9), patologia kardiobaskularra (%11,6), gastrointestinala (%9,8) eta neurologikoa (%4,8) izan ziren. Geroago, ImCUSS eskalaren kanpo-




balioztapena aztertu zen ⁷², eta diskriminazio ahalmen onargarria erakutsi zuen (AUC 0,72; KT 95%: 0,64-0,78), baina kalibrazio desegokia eta heriotza azpiestimatu zituen. Muga horiek ikertutako populazioen arteko ezberdintasunak islatzen dituzte eta testuinguru espezifikotara tresnak egokitzeko beharra azpimarratzen dute.

Bestalde, Oslon (Norwegian), EZUan hilkortasun-faktore pronostikoak aztertzeke helburuarekin ikerketa bat egin zen ⁷³. Emaitez hilkortasunarekin modu esanguratsuan erlazionatutako hainbat aldagai detektatu zituzten: SAPS II eskalaren puntuazioa, adina, infekzio baten presentzia, komoribilitateak (Charlson indizearen bidez neurtuak ¹⁴⁶) eta unitatean onartzearen aurreko ospitaleratzea. Kasu honetan, pazienteen %32ak soilik izan zuten arnas-patologiaren ondoriozko ospitaleratzea (%18 pneumonia eta %14 BGBKren).

Azkenik, Italiako arnas-ZIU batean, bertan ospitaleratutako pazienteen biziraupenean eragina zuten faktoreak ikertu ziren bigarren mailako helburu gisa ⁶. Emaizen arabera, honako faktoreek hilkortasun-arrisku txikiagoa zuten: AMEIaren erabilerarik ez izatea, adin gaztea, emakumezkoa izatea, odoleko albumina maila altuak, SAPS II eskalan puntuazio baxuagoak eta bihotz-gutxiegitasun kronikoaren eza.

Taula 5. Literaturan azterutako hilkortasun aurreikuspen-faktoreen laburpena.

Faktore pronostikoak	AEZU Madrilén ²⁰	AEZU Bizkaian (BGBK) ¹³⁸	EZU Iruñian (AMEI) ¹⁴¹	AEZU Bartzelonan (COVID-19) ¹⁴²	AEZU Italian (COVID-19) ¹⁴³	AEZU Suitzan (COVID-19) ²⁶	EZU Iruñian (ImCUSS) ⁷¹	EZU Oslon ⁷³	Arnas ZIU Italian ⁶
Adina	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez
Sexua	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Bai
BMI	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez
BGBK larritasuna (ADO)	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Oinarrizko disnea	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Aurreko ospitaleratzeak	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Komoribilitateak	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez	Ez	Bai	Bai	Ez
SAPS II	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai



Faktore pronostikoak	AEZU Madrilén ²⁰	AEZU Bizkaian (BGBK) ¹³⁸	EZU Iruñian (AMEI) ¹⁴¹	AEZU Bartzelonan (COVID-19) ¹⁴²	AEZU Italian (COVID-19) ¹⁴³	AEZU Suitzan (COVID-19) ²⁶	EZU Iruñian (ImCUSS) ⁷¹	EZU Oslon ⁷³	Arnas ZIU Italian ⁶
Ospitaleratze aurreko kokapena	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Bai
Diagnostikoa	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez
AMEI beharra	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez
Glasgow eskala	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez
AM	Bai	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Leukozitoak	Bai	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez
Hemoglobina	Bai	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
Plaketak	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez
Potasio serikoa	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
pH arteriala	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
pCO ₂ arteriala	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
PaO ₂ /FiO ₂ erlazioa	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez
Azido laktikoa	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez
PCR	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez	Ez	Ez
Albumina	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
Urea	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez
Bilirrubina	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai	Ez	Ez

AEZU: Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitatea. EZU: Erdi-mailako zainketa unitatea. ImCUSS: *Intermediate Care Unit Severity Score*. GMI: Gorputz masa indizea. BGBK: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa. ADO: BGBKren larritasuna baloratzeko dimentsio-anitzeko eskala. AMEI: Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea. PCR: Proteina-C-erreaktiboa.

Laburbilduz, nahiz eta erdi-mailako zainketa unitateetako faktore pronostikoen identifikazioan esfortzuak egin diren, lortutako emaitzak mugatuak eta sendotasun gutxikoak izan dira, batez ere AEZUen testuinguruan. Gainera, ikusi da ZIUetan dagoen informazioa ezin dela AEZUetara egokitu, bai larritasunagatik zein diagnostiko eta ezaugarri klinikoengatik, pazienteak oso ezberdinak baitira. Patologia espezifikoetan identifikatutako faktoreen aplikazioa ez litzateke egokia izango, AEZUan ospitaleratzeak larritasun maila ezberdin bat baitakar, unitate hauen beharra ez dutenekin alderatuz gero. Era berean, patologia ezberdinen artean, unitate hauetan ospitaleratutako pazienteek ezaugarri komunak partekatzen dituzte.

Hori guztia kontuan hartuta, AEZUan ospitaleratutako paziente guztiak barne hartzen dituen faktoreen ikerkuntza eta eskala pronostikoen garapena



ezinbestekoa da. Lan honek ezagutzen dauden hutsuneei heldu nahi die eta unitate hauetako faktore pronostikoen ikerketetan ekarpen esanguratsua egitea du helburu.

II. JUSTIFIKAZIOA



Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitateek (AEZU) kostu-efektiboak direla erakutsi dute^{33 34 20}, eta ospitaleko oheen kudeaketan hobekuntza nabarmenak ekarri dituzte^{37 38 39 40 41}. Nahiz eta mundu mailan unitate hauen eboluzioa heterogeneoa izan, azken urteetan kopurua areagotu da, bereziki SARS-CoV-2aren pandemiaren ondorioz^{24 25 26 27 28}.

Unitate hauetan ospitaleratutako pazienteak, beti arnas-patologiaren ondorioz, heterogeneoak dira eta eboluzio kliniko ezberdinak izaten dituzte^{6 68}. Unitate hauetako hilkortasun-tasa ez dago guztiz aztertua. Ikerketa batzuen arabera, ospitalizazio-ohe arruntetan dauden pazienteak baino hilkortasun-tasa handiago dute, baina zainketa intentsiboko unitateena baino txikiagoa^{20 18 45 67}.

Ospitale-barneko hilkortasunaren faktore pronostikoen ikerketa eta identifikazioa oso garrantzitsua da. Faktore hauek dituzten pazienteen detekzio goiztiarrak tratamendu edo zainketa estuagoa behar dutenen identifikazioa ahalbidetuko du, eta, ondorioz, heriotzak saihesteko aukera emango du⁹⁹.

Nahiz eta ZIUan ospitaleratutako pazienteen^{101 105 106 107 108} edo arnas-patologia ezberdinen^{120 121 123 126 128 131 132 133 136 77 137} hilkortasunaren arrisku-faktoreak ondo identifikatuta egon, AEZUetan ez dira froga maila nahikoa duten ikerketarik egin faktore hauen identifikaziora bideratuta.

Gainera, behin hilkortasunarekin erlazionatutako faktoreak identifikatuta, hilkortasun-arrisku indibidualaren estratifikazioa ahalbidetzen duen aurreikuspen-eredu bat garatu daiteke.

Honenbestez, lan honek AEZUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarriak eta hilkortasun-tasa aztertzea du helburu. Halaber, hilkortasunarekin erlazionatutako aldagaien analisia egin nahi da, baita eredu pronostiko bat sortzea ere. Hilkortasunarekin erlazionatutako aldagaien artean, unitate hauetan



ospitaleratzean izandako atzerapenek izan dezaketen eraginaren analisi
espezifikoa egin nahi da.

III. HIPOTESI eta HELBURUAK



HIPOTESIAK

Hipotesi nagusiak

- AEZU batean ospitaleratutako pazienteetan, ospitale-barneko hilkortasunarekin erlazionatutako aldagai klinikoak identifika daitezke.
- Aurretik identifikatutako aldagaietan oinarrituta, AEZU batean ospitaleratutako pazienteen ospitale-barneko hilkortasun-arriskua aurreikusteko eredu pronostiko bat garatu daiteke.

Bigarren mailako hipotesiak

- AEZU batean ospitaleratutako pazienteen ezaugarri epidemiologiko eta klinikoak aztertu eta deskribatu daitezke.
- AEZU batean 10 urtez ospitaleratutako pazienteen ezaugarri klinikoak aztertu eta deskribatu daitezke.
- AEZU batean ospitaleratzekoan atzerapena izan duten pazienteek atzerapenik izan ez dutenek baino eboluzio okerragoa izan dezakete.

HELBURUAK

Helburu nagusiak

- AEZU batean ospitaleratutako pazienteen ospitale-barneko hilkortasunaren faktore pronostikoak identifikatzea.
- AEZU batean ospitaleratutako pazienteen ospitale-barneko hilkortasuna balioesteko eredu pronostiko bat garatzea.

Bigarren mailako helburuak

- AEZU batean ospitaleratutako pazienteen ezaugarri kliniko eta epidemiologikoak aztertzea eta deskribatzea.
- AEZU batean 10 urtez ospitaleratutako pazienteen ezaugarrien eboluzioa aztertzea eta deskribatzea.
- AEZU batean ospitaleratzekoan atzerapena izan duten pazienteen eta atzerapenik izan ez dutenen arteko eboluzio kliniko konparatzea.

IV. MATERIALA eta METODOAK





1. IKERKETAREN DISEINUA

Aurrera begirako kohorte-ikerketa behatzailea egin zen. Honetan, 2007ko otsailaren 1etik 2016ko maiatzaren 31ra bitartean Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitaleko arnas-aparatuaren erdi-mailako unitatean (AEZU) ospitaleratutako pazienteak inklusio-irizpideen arabera sartu ziren.

Hurrengo datuak bildu ziren: a) Aldagai soziodemografikoak, b) Oinarrizko egoerari eta komorbiditateei buruzko informazioa, c) Parametro kliniko eta analitikoak, eta d) Bilakaeraren eta konplikazioen jarraipena.

Ikerketaren analisia hiru faseetan egituratu zen:

- Analisi deskriptiboa: kohortearen ezaugarri orokorrak ebaluatu eta azpitalde ezberdinen arteko konparaketak egin ziren: ospitaleratze-helburuaren (AMEIren hasiera vs. monitorizazioa), diagnostikoaren eta ospitaleratze-garaiaaren arabera. 3. eta 4. helburuak.
- Hilkortasun-faktore pronostikoak: hilkortasunarekin erlazionatutako faktoreak identifikatu eta eredu pronostiko bat garatu zen. 1. eta 2. helburuak.
- Ospitaleratzean izandako atzerapenaren eragina: AEZUan ospitaleratzean atzerapena izateak pazienteen eboluzioan izan dezakeen inpaktua aztertzeko subanalisi bat egin zen. 5. helburua.



2. IKERTU BEHARREKO SUBJEKTUAK

Modu jarraituan, ikerketaren iraupenean zehar AEZUan ospitaleratutako paziente guztiak sartu ziren. Ospitaleratze berean paziente batek AEZUan berriro ospitaleratua izanez gero, bigarren gertaera baztertua izan zen.


- Inklusio-irizpideak: ikerketaren iraupen osoan AEZUan ospitaleratutako paziente guztiak (unitate honetako ospitaleratze-irizpideak hurrengo atalean azaltzen dira, 55. orrialdean).
- Baztertze-irizpideak: pazientearen ezetza ikerketan parte hartzeko.
- 4. helburuarekin erlazionatutako galerak: epe ertain-luzeko jarraipena egin ezin ziren pazienteak (30 eguneko berrospitaleratzea, 90 eguneko eta 1 urteko hilkortasuna). Paziente hauek ikerketa-eremutik kanpo bizi ziren eta beraien erreferentziazko osasun-zentroetara lekualdatuak izan ziren.

Hilkortasun-faktore pronostikoen analisirako (bigarren analisia), ZIU/Bizkortze-unitatetik eratorritako pazienteak (*step-down*) baztertu ziren, haien egoera eta eboluzio klinikoa esanguratsuki ezberdina izan baitaiteke *step-up* bidez ospitaleratutako pazienteekin alderatuta ⁶.

Ospitaleratzean izandako atzerapenaren eraginaren analisirako (hirugarren analisia), ZIU/Bizkortze-unitatetik (*step-down*) eta kanpo-kontsultetatik eratorritako pazienteak baztertu ziren. Ospitaleko ohe arruntetatik eratorritako pazienteen artean, 48 ordutik gorako ospitale-egonaldia zutenak ere baztertu ziren, Larrialdietan zuten larritasun-maila alda zitekeelako. Horrela, ospitaleratzean izandako atzerapenaren eragina zehatz-mehatz ebaluatzeko aukera eman zen.



Irudia 3. Pazienteak ikerketan sartzeko eta baztertzeko fluxua.





3. IKERKETA-EREMUA

Ikerketa Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitaleko AEZUan burutu zen. Hau, 400 ohe dituen ospitale orokorra da, eta 313.000 inguruko biztanleriari osasun-asistentzia eskaintzen dio.

AEZUa 2007. urtean zabaldu zen, pneumologiako ospitalizazio-solairura elkartutako unitate irekia izanik. Sei pazienterentzako lekua du unitate barnean eta, logela itxi batean beste ohe osagarri bat dauka, isolamendua behar dutenentzat. Erdigunean kokatutako erizaintza-kontrol bat du, paziente guztien ikusmen zuzena ahalbidetzen duena..

Irudia 4. Galdakao-Usansolo Unibertsitate Ospitaleko AEZUren barrukaldea.



Unitatearen koordinazioa pneumologiako mediku baten ardura da, eta beste bi mediku atxiki ditu. Hauek arnas-zainketa kritikoetan eta AMEIaren maneian prestakuntza espezifikoa jaso dute. Eguneko 12 orduetan mediku bat AEZUan bertan esleituta egoten da; gainontzeko 12 orduetan, pneumologiako eta kardiologiako ospitalizazio-oheekin batera, zaintzako medikuak eskeintzen du estaldura.

Erizaintza-ratioa 4:1-koa da eguneko 14 orduetan zehar, eta langileek arnaspatologia duten pazienteen maneian formakuntza espezifikoa dute. Gaueko 10



orduetan, erizaintzako langileak pneumologiako ospitalizazio-oheekin partekatuak dira. Gainera, goizeko 7 orduetan zehar erizaintza laguntzaile tekniko bat dago, gainontzeko 17 orduetan zehar pneumologiako solairuarekin partekatua da.

AEZUak hurrengo hornidura dauka: funtzio anitzeko monitoreak, gasometroa, larruazal zeharreko kapnografia eta AMEIaren monitorizaziorako sistema aurrerratuak. Ekografo bat ere badu eta, behar izanez gero, eskuragarri daude bronkoscopia eramangarria eta pleura-drainatze sistemak.

AEEI terapietarako dagokionez, unitatean daude: gamma ertain eta altuko arnasgailuak (Philips V60™ eta Breas VIVO 65™), sudur-kanula bidezko fluxu-altuko terapia sistemak (Airvo 2™) eta eztul-laguntzaile gailuak (Cough Assist™).

Unitateak onarpen-irizpide zehaztuak ditu, nahiz eta azkenengo erabakia modu indibidualizatuan hartu, pazientearen adina, komorbilitateak eta hobespenak kontuan hartuta. Onarpen-irizpideak honakoak dira:

1. AG akutuaren edo AG kronikoaren areagotzearen tratamendurako AMEIaren erabilpena.
2. AG larria, aireztapen euskarrik behar ez duena, baina monitorizazioa eta/edo SKFAT behar duena.
3. ZIU/Bizkortze-unitatetik datozen pazienteak, egonkortu ostean, aireztapen mekanikoaren menpekotasuna dutenak (AMEI edo trakeotomia bidez), deskonexio saiakerak egin ondoren. Helburua deskonexioan aurrera egitea eta/edo etxeko aireztapen mekanikoa programatzea da.
4. Monitorizazioa behar duten toraxeko traumatismo konplexuak jasan dituzten pazienteak edo pleura-drainadura dituztenak.
5. Larritasunagaitik, bronkoscopia prozedura bat egiteko arnas-euskarria behar duten pazienteak.



Tradizionalki, ospitaleratzearen helburuak bi talde nagusietan sailkatu dira: AMEIa hasteko ospitaleratutako pazienteak eta monitorizaziorako ospitaleratutakoak. Talde nagusienak eta diagnostiko ohikoenak honakoak dira:

A TALDEA. AMEIa: BGBK areagotzea, HOS, BEA eta gaixotasun neuromuskularrak dituzten pazienteak.

B TALDEA. MONITORIZAZIOA: pneumonia, BTE, BGI, asma areagotzea eta toraxeko traumatismoa duten pazienteak.

C TALDEA. WEANING: ZIU/Bizkortze-unitatetik eratorritako pazienteak (*step-down*).

D TALDEA. MISZELANEA: esaterako, prozedura semi-inbaditzaileak egiteko eta paziente konplexuetan AMEI kronikoa hasteko.



4. DATUAK BILTZEKO METODOAK

AEZUan ospitaleratutako pazienteak modu jarraituan sartu ziren ikerketan. Sartzean, erizaintzako langileek bizi-konstanteak neurtu eta analisirako odol-laginak hartu zituzten, ospitaleratze-protokoloan adierazitako parametroei jarraituz.

Aldi berean, paziente bakoitzaren historia kliniko elektronikoa berrikusi zen, eta datu soziodemografikoak, oinarrizko egoera funtzionala eta komorbiditateei buruzko informazioa erregistratu zen. Horrez gain, Larrialdietan bildutako aldagai kliniko eta analitikoak ere jaso ziren.

Pazienteen jarraipena heriotza gertatu arte edo ospitaleko alta jaso arte mantendu zen. Alta jaso eta urtebete igarota, historia klinikoa berriro berrikusi zen, epe luzerako bilakaera aztertzeko.

Datu-bilketa espezifikoki entrenatutako *data manager* batek egin zuen, estandarizatutako protokolo bat jarraituz. Ondoren, ikertzaile nagusiak datuak birpasatu eta balioztatu zituen.

Laginarene neurriaren kalkulua:

Aurreikuspen-ereduak garatzeko ikerketek adierazten dutenez, aztertutako menpeko aldagai nagusiaren (gure kasuan ospitale-barneko hilkortasuna) gutxienez 10 gertaera behar dira erregresio logistiko bidezko aldagai-anitzeko modeloan sartzen den aldagai bakoitzeko¹⁴⁷. Gure asmoa da aldagai-anitzeko modeloan aldagai mugatuak baina zehatzak sartzea (ziurrenik ez 10 baino gutxiago), eta horretarako gure deribazio laginean menpeko aldagaiaren 100 gertaera gutxienez beharko direla kalkulatu dugu, erregresio-ereduaren konbergentzia egokia bermatzeko. Gure zentroko aurreko datuen arabera, ospitale-barneko hilkortasuna %10 ingurukoa zen, beraz, inklusio-irizpideak betetzen zituzten gutxienez 1.000 paziente beharko lirateke.



Laginketa: komenentziazko laginketa kontsekutiboa.



5. ALDAGAIK

5.1. Aldagai soziodemografikoak

Historia klinikoaren bidez, hurrengo aldagaiak erregistratu ziren:

- Sexua: modu dikotomikoak sailkatua (gizonezkoa edo emakumezkoa).
- Adina: inklusio unean betetako urteak.
- Altuera: metrotan neurtuta, aurreko erregistro klinikoetan oinarrituta.
- Pisua: kilogramotan neurtuta, aurreko erregistro klinikoetan oinarrituta.
- Gorputz masa indizea (GMI): ikertzaileak kalkulatu zuen, hurrengo formula erabilita: $GMI = \text{Pisua (kg)} / \text{altuera (m)}^2$.

5.2. Oinarrizko egoera funtzionala eta komorbilitateak

Oinarrizko egoera ebaluatzeko, anamnesiaren eta historia klinikoaren berrikuspena egin zen, eta hurrengo aldagaiak jaso ziren:

- ECOG eskala (*Eastern Cooperative Oncology Group*)¹⁴⁸: eguneroko jarduerak egiteko gaitasuna eta menpekotasun-maila baloratuz egoera funtzionala neurtzen duen eskala. 0 eta 5 arteko puntuazioa du (zenbat eta puntuazio handiagoa izan, orduan eta desgaitasun handiagoa). Aldagaia dikotomizatu zen: 0-1 (desgaitasun baxua) vs. 2-5 (desgaitasun nabarmena). Ikusi Eranskin 2.
- Oinarrizko disnea: MRC eskalaren moldaketaren bidez neurtua (mMRC)¹³⁹, lekua lauan denean edo adin berdineko pertsona baten pausuan ibiltzean arnas-estua sentitzen zuten pazienteak disnea ≥ 2 gisa sailkatu ziren.
- AMEI kronikoa eta etxeko CPAP erabilera: pazienteek edozein motatako arnas-euskarri kronikoa erabiltzen zuten ala ez erregistratu zen.
- Aurreko arnas-gutxiegitasun (AG) kronikoa: etxeko oxigenoterapia kronikoa, egunean ≥ 16 orduz erabilia, gisa definitua.



Komorbilitateak erregistratzeko eta kuantifikatzeko Charlson indizea ¹⁴⁶ kalkulatu zen, eta horren baitan dauden komorbilitate indibidualak ere jaso ziren. Indize honek pazientearen komorbilitate-zama kuantifikatzen du eta epe luzerako hilkortasuna aurreikusten laguntzen du. Pazienteak zama baxuko (0-2 puntuazioa) eta zama ertain-altuako (≥ 3 puntuazioa) moduan sailkatu ziren. Ikusi Eranskin 3.

5.3. Aldagai kliniko eta analitikoak

AEZUan ospitaleratzekoan pazienteen egoera fisiologikoa neurtzeko hainbat aldagai neurtu eta erregistratu ziren:

- Temperatura (°C).
- Bihotz-maiztasuna (taupada minutuko).
- Tentsio arterial sistolikoa eta diastolikoa (mmHg).
- Arnas-maiztasuna (arnasketa minutuko)
- FiO₂: arnastutako airearen oxigenoaren frakzio-inspiratorioa. Fluxu-baxuko oxigenoterapian, balioa literaturan oinarritutako estimazio baten bidez zehaztu zen ¹⁴⁹.
- Glasgow eskala ¹⁵⁰: pazientearen kontzientzia-maila ebaluatzeko eta erregistratzeko tresna, modu ez-zuzenean, alertarekin erlazonatutako egoera neurologikoa aztertuz.

AEZUan ospitaleratzean, pazienteei odol-lagin bat hartu zitzaien, eta hurrengo aldagaiak neurtu ziren:

- Gasometria arteriala: pCO₂, pO₂, O₂ asetasuna eta pH arteriala. PaO₂/FiO₂ erlazioa kalkulatu zen, arnas-euskarria zuten pazienteetan AGaren larritasuna eta oxigenazioa baloratzeko.
- Aldagai metaboliko eta hematologiko



- Hemograma: leukozitoak ($*10^3/\mu\text{L}$), plaketak ($*10^3/\mu\text{L}$) eta hematokritoa (%) neurtuz.
- Giltzurrun-funtzioa eta ioiak: kreatinina (mg/dL), urea (mg/dL), sodioa (mEq/dL) eta potasio (mEq/dL) serikoak neurtu ziren.
- Odoleko glukosa (mg/dL): zelulen metabolismoan funtsezko molekula, eta estres egoeran balio altuak izan ditzake.
- Bilirrubina (mg/dL): eritrozitoen metabolismoaren ohiko produktu gisa, gibealeko funtzioa, hemolisia eta behazun-fluxua baloratzen ditu.
- Albumina serikoa (g/dL): nutrizio-egoeraren eta gibealeko funtzioaren adierazle gisa, gibealean sintetizatutako proteina da.
- Protrona denbora (%): odolaren koagulazio gaitasunari buruz informazioa ematen du.

Historia kliniko informatizatuaren bidez, pazienteen Larrialdietako balorazioa berrikusi zen, eta AEZUan neurtutako aldagai kliniko eta analitiko berdinak erregistratu ziren.

Aldagai horiekin APACHE II eskala ¹⁰⁵ kalkulatu zen Larrialdietan zein AEZUan ospitaleratzerakoan, ospitale-barneko hilkortasunaren probabilitatea ebaluatzeko. Ikusi Eranskin 1.

5.4. Ospitaleratzearekin lotutako aldagaiak

Ospitaleratze helburua

Ospitaleratzea bi helburu bereziekin gauzatu zen:

- Aireztapen taldea: AMEI akutua hasteko ospitaleratutako pazienteak. Ospitaleratzean medikuaren indikazioaren arabera erregistratu zen. AMEI kronikoa zuten eta ospitaleratzean zehar terapia mantendu arren,



parametroetan aldaketarik eta erabilera-ordu gehiagorik izan ez zuten pazienteak talde honetatik baztertu ziren.

- Monitorizazio taldea: monitorizaziorako ospitaleratutako pazienteak. AEEI terapia baten (SKFAT edo CPAP) beharra zuten kasuak barne.

AEZUra ospitaleratu aurreko jatorria

Maila asistentzialaren arabera, lau jatorri-talde sailkatu ziren:

- Larrialdiak: zerbitzu horretan ospitaleratu ondoren AEZUra zuzenean bidaliak.
- ZIU/Bizkortze-unitatea: euskarri intentsiboko unitatetik AEZUra igorritakoak (*step-down* eredua).
- Ospitalizazio arrunta: pneumologiako edo beste zerbitzuren bateko ospitalizazio-solairu arruntean egondako pazienteak.
- Kanpo-kontsultak: pneumologiako kanpo-kontsultetan baloratu zuzenean AEZUan ospitaleratutakoak.

AEZUra ospitaleratu arteko denbora

Larrialdietan edo kanpo-kontsultetan ospitalera heldutako data eta ordua, eta AEZUko sarrera ordua zehaztu ziren.

Pazienteak bi taldeetan kategorizatu ziren: ospitaleko egonaldiaren lehenengo 48 orduetan AEZUra sartutakoak eta 48 ordutik gorako ospitaleko egonaldiaren ondoren AEZUra ospitaleratu zirenak.

Sailkapen honen arrazoia gerta daitezkeen ospitale-barneko konplikazioak dira. Hauek ospitalean egon eta 48 ordu pasatuta gertatu ohi dira, bereziki konplikazio infekziosoak ¹⁵¹ ¹⁵². Aldagai honen helburua konplikazio horien eragina pazienteen bilakaeran aztertzea zen.



AEZUan ospitaleratzean izandako atzerapena

Aldagai hau 3. analisirako soilik aztertu zen, eta bi taldetan dikotomizatu zen:

- Berehalako taldea: Larrialdietan baloratuak izan ostean AEZUra zuzenean lekualdatuak ziren pazienteak.
- Atzerapen taldea: hasiera ospitalizazio-solairu arrunt batean ospitaleratutakoak, eta lehenengo orduetan AEZUra lekualdatuak zirenak.

Analisi honetarako 48 ordu baino gehiago ospitalizazio-solairu arruntean egondako pazienteak baztertu ziren, ospitaleratze denbora luzeagoan sortu zitezkeen ospitale-barneko konplikazioen eragin posiblea sahiesteko. Helburua atzerapenak pazienteen ezaugarri eta bilakaeran duen eragina aztertzea zen, ospitaleratze-egonaldi laburra zuten pazienteak kontuan hartuta, konplikazioen aukera txikiagoa izanik.

Diagnostikoa

Ospitaleratzea eragin zuen diagnostikoa erregistratu zen. Diagnostiko nagusia kontuan hartu zen, hau da, hasierako balorazioaren ondoren medikuak identifikatutako diagnostikoa. Diagnostiko anitz izatekotan, erregistratutako lehenengoa lehenetsi zen diagnostiko nagusitzat.

Diagnostikoak honako 10 talde nagusitan sailkatu ziren:

- Birika gaixotasun buxatzaile kronikoaren areagotzea (BGBK).
- Hipoaireztapen obesitate sindromea (HOS).
- Birika edema akutua (BEA).
- Pneumonia.
- Birika tronboenbolismoa (BTE).
- Asma areagotzea.
- Birika gaixotasun interstiziala (BGI).
- Gaixotasun neuromuskularrak.



- Beste gaixotasun murriztaileak: aurreko kategorietan sartzen ez diren, baina nahasmendu murriztailea eragiten duten gaixotasunak, hala nola toraxaren deformazioak, fibrotoraxa eta tuberkulosia bezalako infekzio larrien sekuelak.
- Beste batzuk: aurreko multzoetan sailkatu ezin diren gainerako diagnostikoak barne hartzen ditu.

5.5. Konplikazio eta bilakaerari buruzko aldagaiak

Konplikazio eta bilakaerarekin erlazionatutako aldagaiak historia klinikoaren berrikuspenaren bidez lortu ziren. Bi multzotan sailkatu ziren:

- **Konplikazioak ospitaleratzean zehar:** pazientearen ospitale-egonaldian zehar, larritasunaren adierazle diren gertaera kaltegarriak jasotzen dituzten aldagaiak:
 - ZIUan ospitaleratzea: unitate intentsibo batean ospitaleratzea behar izan zuten pazienteak erregistratu ziren.
 - AEZUko egonaldia: egunetan neurtua.
 - Ospitale-egonaldia: ospitaleratze osoa egunetan erregistratu zen. Ospitale-barneko heriotza izandako kasuetan, heriotza gertatu arteko egonaldiaren iraupena jaso zen.
 - Ospitale-barneko hilkortasuna: epe laburreko hilkortasunaren adierazle gisa, ospitaleratzean zehar hil ziren pazienteak barne hartu ziren.
- **Bilakaera epe ertain eta luzera:** ospitaleko altaren ondorengo bilakaera aztertzen duten eta hondarreko patologia zein epe luzerako osatzea islatzen duten aldagaiak:
 - 30 eguneko berrospitaleratzea: ospitaleko alta jaso eta lehen 30 egunetan berriz ospitaleratzea behar zuten pazienteak.



- 90 eguneko hilkortasuna: epe ertaineko hilkortasunaren adierazlea, ospitaleko alta jaso eta hurrengo 90 egunetan gertatutako heriotzak kontuan hartuta.
- 1 urteko hilkortasuna: epe luzeko hilkortasunaren adierazlea, ospitaleko alta jaso eta urtebetera gertatutako heriotzak aztertuz.



6. ANALISI ESTADISTIKOA

Estatistika deskribatzailean, aldagai jarraituak batezbestekoaren eta desbideratze estandarraren bidez azaldu ziren; aldiz, aldagai kategorikoak, maiztasunen eta ehunekoen bidez. Aldakortasun handiko aldagai jarraituetan, mediana eta kuartil arteko tarteak erabili ziren. Hala ere, konparaketa estatistikoa errazteko eta emaitzen irakurketa osoagoa ahalbidetzeko, batezbestekoa ere sartu zen.

Aldagai jarraitu batzuetan kategorizazioak egin ziren, balioak kategoria normal, baxu eta altu gisa sailkatuz, estandar klinikoaren arabera.

Taldeen arteko ezberdintasunak aztertzeko, analisi konparatiboak egin ziren: khi karratuaren testa aldagai kategorikoentzat eta Wilcoxon-en test ez-parametrikoa aldagai jarraituentzat.

Ospitale-barneko hilkortasuna aurreikusteko, aldagai anitzeko eredu logistiko bat doitu zen. Lehenik, aldagai bakarreko analisia egin zen, emaitzarekin lotura izan zezaketen aldagai aurreikusleak identifikatzeko. Horretarako, khi karratuaren froga edo Fisher-en froga zehatza erabili ziren aldagai kategorikoentzako, eta t-Student testa edo Wilcoxon-en froga ez-parametrikoa aldagai jarraituentzako. $p < 0,20$ izandako aldagaiak aldagai anitzeko ereduan sartu ziren. Azkenik, aldagai anitzeko aldagaien artean 0,05 maila zutenak aurreikuspen-faktore gisa hartu ziren ($p\text{-balorea} < 0,05$).

Aldagai anitzeko ereduaren β parametroetatik odds ratioak (OR) eta %95eko konfiantza-tarteak (KT %95) kalkulatu ziren. Ereduen aurreikuspen-ahalmena ROC kurbaren azpiko azalera (AUC) erabiliz zehaztu zen, bere konfiantza-tartearekin batera. Ereduen doikuntzaren egokitasuna Hosmer-Lemeshow testaren bidez neurtu zen, eta barne-balioztatzea k-fold balioztatze gurutzatuaren bidez egin zen.



Analisi estatistiko guztiak Windows-erako SAS 9.4 bertsioaren (SAS Institute, Carey, NC, USA) eta R©, 4.1.1 bertsioaren bidez egin ziren.



7. DATU-GALERAK ETA ONARTZEAK

Galdutako datuetan (*missing*) ez zen onartzerik egin, eskuragarri zeuden datuak soilik erabili ziren analisi estatistikoetarako.

%30 baino gehiagoko datu-galera zuten aldagaiak analisi estatistikoetatik baztertu ziren.

8. ETIKA BATZORDEA ETA DATUEN KONFIDENTZIALITASUNA

Ikerketa hau zentroko ikerketa batzordeak eta akreditatutako CEIC-ak onartu zuten (64/2009 protokoloa). Parte-hartzaile guztiek baimena eman zuten, ikerketaren helburuak, arriskuak eta onura posibleak azaldu ondoren. Helsinkiko Adierazpenaren jarraibideei jarraituz, pazienteen eskubideak bermatu ziren.

Datuen konfidentzialtasuna ziurtatzeko, ikerketarako berariaz sortutako datu-base batean bildu ziren datuak (Microsoft Access 2010 ®), eta paziente bakoitzari identifikazio zenbaki pseudoanonimizatu bat esleitu zitzaion. Halaber, datu-base horretarako sarrera pasahitz pertsonal baten bidez babestuta zegoen (LOPD 15/1999). Modu berean, pazientearen identifikazioa eta ikerketaren gainontzeko informazioa bananduta kudeatu ziren.


V. EMAITZAK





Analisi eta emaitzak bereiztutako hiru fase bereizitan antolatu ziren. Lehenengo fasean, analisi deskribatzailean, 2.105 paziente sartu ziren. Bigarren fasean, hilkortasunaren faktore pronostikoetan zentratzeko, ZIU edo Bizkortze-unitatetik lekualdatutako 97 paziente baztertu ziren, eta 2.008 pazienteren datuak analizatu ziren. Azkenik, hirugarren fasean, kanpo-konsultetatik edo ospitalizazio-aruntetik etorritako eta 48 ordu baino gehiagoko ospitalizazio-egonaldia izan zuten pazienteak baztertu ziren (224 paziente), eta, ondorioz, 1.784 paziente geratu ziren azken analisi estatistikorako.

Irudia 5. Ikerketan sartutako pazienteen fluxu-diagrama.





1. AEZU BATEAN OSPITALERATUTAKO PAZIENTEEN EZAUGARRI KLINIKO ETA EPIDEMIOLOGIKOAK ANALIZATU ETA DESKRIBATU

1.1. Lagin osoaren analisi deskriptiboa

Guztira, 2.105 paziente sartu ziren ikerketan. Taula 6-9etan lagin osoaren analisi deskriptiboa aurkezten da. %59,86 gizonezkoak izan ziren, eta batezbesteko adina $69 \pm 14,61$ urtekoa izan zen. Oinarrizko ezaugarriei dagokionez (Taula 6), pazienteen %55,67ak muga funtzionala zuen ECOG eskalaren arabera (>1), eta %57,11ak oinarrizko disnea 1 baino handiagoa adierazi zuten mMRC eskalan. Charlson indizeak banaketa ez-normala izan zuen: 2ko mediana eta 1-3ko kuartilarteko tartea. Hala ere, pazienteen %27,93ak >2 puntu izan zituzten, komorbilitate maila ertaina adieraziz. Ohikoenak izan ziren komorbilitateak: hipertentsio arteriala (%57,81), biriketako gaixotasun kronikoa (%55,63) eta gaixotasun kardiobaskularra (%47,46). %33,97k AG kronikoa zuten, eta %14,77 AMEI kronikoa erabiltzen zuten. Irudia 6an komorbilitateen banaketa erakusten da.

Taula 6. Laginaren analisi deskriptiboa. Aldagai soziodemografikoak eta oinarrizko egoera.


Aldagaiak	N (%)	Missing (%)
GUZTIRA	2105	
Aldagai soziodemografikoak		
Sexua (gizonezkoa)	1260 (59,86)	0 (0)
Adina*	69,20 (14,61)	0 (0)
Altuera (m)*	1,63 (0,09)	232 (11,02)
Pisua (kg)*	78,39 (22,00)	211 (10,02)
GMI*	29,49 (7,89)	243 (11,54)
Oinarrizko egoera		
ECOG >1	1149 (55,67)	41 (1,95)
Oinarrizko disnea >1 (mMRC eskala)	1112 (57,11)	158 (7,51)
Etxeko AMEI kronikoa	311 (14,77)	0 (0)
Etxeko CPAPa	58 (2,76)	0 (0)

Aldagaiak	N (%)	Missing (%)
GUZTIRA	2105	
Aurreko AG kronikoa	715 (33,97)	0 (0)
Komorbilitateak		
Gaixotasun kardiobaskularra	999 (47,46)	0 (0)
Biriketako gaixotasun kronikoa	1171 (55,63)	0 (0)
Ultzeradun gaixotasuna	144 (6,84)	0 (0)
Gibeleko gaixotasuna	107 (5,08)	0 (0)
Giltzurrunetako gaixotasuna	123 (5,84)	0 (0)
Diabetesa	515 (24,47)	0 (0)
Minbizia	184 (8,74)	0 (0)
Dementzia	71 (3,37)	0 (0)
Gaixotasun zerebrobaskularra	209 (9,93)	0 (0)
Ehun konektiboko gaixotasuna	76 (3,61)	0 (0)
Hemiplegia	52 (2,47)	0 (0)
HIESa	3 (0,14)	0 (0)
Hipertentsio arteriala	1217 (57,81)	0 (0)
Charlson indizea*	1,89 (1,67)	0 (0)
Charlson indizea [‡]	2 [1-3]	0 (0)
Charlson indizea > 2	588 (27,93)	0 (0)

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra). [‡]Emaizak mediana gisa aurkeztuak [kuartilarteko tartea].

GMI: Gorputz-masaren indizea. ECOG: Bizitza-kalitatea neurtzeko eskala (*Eastern Cooperative Oncology Group*). mMRC eskala: *British Medical Research Council*-en disnea eskala moldatua. AMEI: Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea. CPAP: Aire bideetan presio positibo jarraitua. AG: Arnas-gutxiegitasuna. HIES: Hartutako immunoeskasiaren sindromea.

Irudia 6. Komoribilitateen banaketa lagin osoan.



Balioak paziente guztien ehuneko gisa adierazten dira.

HIESa: Hartutako giza immunoeskasiaren sindromea.




Aldagai kliniko eta analitikoak (Taula 7)

Larrialdietara heltzean, pazienteek egonkortasun hemodinamikoa eta kontzientzia-maila ona zuten, batezbesteko AM $22,49 \pm 8,09$ arnasketa minutukoa (am) izanik. Gasometria-analisiaren emaitzek hipoxemia (pO_2 arteriala $60,31 \pm 25,34$ mmHg) eta azidosirik gabeko hiperkapnia arina (pCO_2 arteriala $53,46 \pm 21,82$ mmHg) erakutsi zuten. APACHE II eskalan batezbesteko puntuazioa $15,83 \pm 7,18$ izan zen, ospitale-barneko hilkortasun-arrisku ertaina adieraziz.

AEZUan ospitaleratzean pazienteak egonkortasun hemodinamikoa mantendu zuten, gasometriaren aldetik hobekuntza arina agertuz (pO_2 arteriala $72,39 \pm 27,4$ mmHg; pCO_2 arteriala $52,18 \pm 19,04$ mmHg). Hilkortasun-arriskuan, APACHE II eskalan oinarritua, hobekuntza txikia izan zen ($12,31 \pm 5,6$ puntu).

Taula 7. Laginaren analisi deskriptiboa. Aldagai kliniko eta analitikoak.

Aldagaiak	N (%)	Missing (%)
GUZTIRA	2105	
Aldagaiak Larrialdietan		
Aldagai klinikoak		
Tenperatura (°C)*	36,83 (0,80)	59 (2,80)
Bihotz-maiztasuna (tm)*	99,35 (23,33)	11 (0,52)
Arnasketa-maiztasuna (am)*	22,49 (8,09)	592 (28,12)
TAS (mmHg)*	134,39 (40,65)	395 (18,76)
TAD (mmHg)*	75.056 (22,145)	451 (21,43)
Glasgow eskala*	14,77 (1,16)	18 (0,86)
APACHE II larrialdietan*	15,83 (7,18)	294 (13,97)
Aldagai analitikoak		
pCO_2 arteriala (mmHg)*	53,46 (21,82)	52 (2,47)
pO_2 arteriala (mmHg)*	60,31 (25,34)	113 (5,37)
O_2 asetasuna (%)*	84,82 (11,38)	76 (3,61)
PaO_2/FiO_2 erlazioa*	244,36 (92,42)	701 (33,30)
pH arteriala*	7,36 (0,09)	50 (2,38)
Leukozitoak ($\cdot 10^3/\mu L$)*	11,85 (5,58)	7 (0,33)
Plaketak ($\cdot 10^3/\mu L$)*	234,34 (99,31)	8 (0,38)
Hematokrito (%)*	41,33 (6,74)	7 (0,33)
Kreatinina (mg/dL)*	1,11 (0,71)	7 (0,33)
Urea (mg/dL)*	57,89 (38,06)	742 (35,25)
Sodio serikoa (mEq/dL)*	138,46 (4,57)	17 (0,81)



Aldagaiak	N (%)	Missing (%)
GUZTIRA	2105	
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,58 (0,71)	91 (4,32)
Glukosa (mg/dL)*	155,79 (86,75)	10 (0,48)
Bilirrubina (mg/dL)*	0,69 (0,55)	1192 (56,63)
Albumina (g/dL)*	3,97 (4,53)	1227 (58,29)
PD (%)*	79,48 (26,21)	159 (7,55)
Aldagaiak AEZUan ospitaleratzerakoan		
Aldagai klinikoak		
Bihotz-maiztasuna (tm)*	91,69 (19,78)	6 (0,28)
Arnasketa-maiztasuna (am)*	22,89 (6,35)	27 (1,28)
TAS (mmHg)*	129,83 (23,53)	3 (0,14)
TAD (mmHg)*	71,67 (15,42)	3 (0,14)
Glasgow eskala*	14,69 (1,25)	3 (0,14)
APACHE II AEZUan*	12,31 (5,60)	265 (12,59)
Aldagai analitikoak		
pH arteriala*	7,39 (0,08)	18 (0,86)
pCO ₂ arteriala (mmHg)*	52,18 (19,04)	19 (0,9)
pO ₂ arteriala (mmHg)*	72,39 (27,40)	37 (1,76)
PaO ₂ /FiO ₂ erlazioa*	228,88 (91,54)	42 (1,99)
Leukozitoak (*10 ³ /μL)*	11,21 (5,28)	21 (1,00)
Plaketak (*10 ³ /μL)*	222,01 (96,81)	18 (0,86)
Hematokritoa (%)*	39,47 (6,82)	24 (1,14)
Kreatinina (mg/dL)*	1,06 (0,67)	15 (0,71)
Urea (mg/dL)*	58,69 (39,15)	18 (0,86)
Sodio serikoa (mEq/dL)*	139,05 (4,23)	13 (0,62)
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,49 (0,65)	43 (2,04)
Glukosa (mg/dL)*	158,34 (69,01)	20 (0,95)
Bilirrubina (mg/dL)*	0,63 (0,52)	284 (13,49)
Albumina (g/dL)*	3,74 (0,58)	276 (13,11)
PD (%)*	79,10 (24,38)	136 (6,46)

*Emaitzak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra).

tm: taupada minutuko. am: arnasketa minutuko. TAS: Tentsio arterial sistolikoa. TAD: Tentsio arterial diastolikoa. APACHE II: Gaixotasunen larritasuna neurtzeko eskala (*Acute Physiology And Chronic Health Evaluation II*). PD: Protrombina denbora. AEZU: Arnas aparatuen erdi-mailako zainketa unitatea.

AEZUko ospitaleratze-arrazioak (Taula 8)

Pazienteen %43,37 AMEia modu akutuan jasotzeko ospitaleratu zen. Gehiengoa maila asistentzial baxuagoko unitateetatik (*step-up*) eratorria izan zen (%95,4), batez ere Larrialdietatik (%61,05). %11,54 AEZUra ospitaleratu zen ospitale-egonaldia hasi eta 48 ordu igaro ondoren. Ospitaleratze-arrazoi ohikoenak



honako hauek izan ziren: BGBK areagotzea (%21,9), pneumonia (%20,1) eta BTE (%16,48). Irudia 7an diagnostikoen araberrako pazienteen banaketa erakusten da.


Taula 8. Laginaren analisi deskriptiboa. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak.

Aldagaiak	N (%)	Missing (%)
GUZTIRA	2105	
AEZUra ospitaleratzeko helburua		
AMEI	913 (43,37)	0 (0)
AEZUra ospitaleratu aurreko jatorria		0 (0)
Larrialdiak	1285 (61,05)	
ZIU/Bizkortze-unitatea	97 (4,61)	
Ospitalizazio arrunta	665 (31,59)	
Kanpo-kontsultak	58 (2,76)	
AEZUra ospitaleratu arteko denbora		
>48 ordu	243 (11,54)	0 (0)
Diagnostikoa		0 (0)
BGBK	461 (21,90)	
HOS	180 (8,55)	
BEA	244 (11,59)	
Pneumonia	423 (20,10)	
BTE	347 (16,48)	
Asma	97 (4,61)	
BGI	66 (3,14)	
Gaixotasun neuromuskularrak	31 (1,47)	
Beste patologia murriztaileak	45 (2,14)	
Beste batzuk	211 (10,02)	

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra).

AEZU: Arnas aparatuen erdi-mailako zainketa unitatea. AMEI: Aireztapen mekaniko ez inbaditzailea. ZIU: Zainketa intentsiboko unitatea. BGBK: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa. HOS: Hipoaireztapen obesitate sindromea. BEA: Biriketako edema akutua. BTE: Biriketako tronboembolismoa. BGI: Biriketako gaixotasun interstiziala.

Irudia 7. Diagnostikoen banaketa lagin osoan.



Balioak paziente guztiekiko ehuneko gisa adierazten dira. .

BGBK: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa. HOS: Hipopaireztapen obesitate sindromea. BEA: Biriketako edema akutua. BTE: Biriketako tronboembolismoa. BGI: Biriketako gaixotasun interstiziala. Gaix. NML: Gaixotasun neuromuscularrak.

Bilakaera klinikoa (Taula 9)

Ospitale-barneko hilkortasuna %10,7koa izan zen, eta pazienteen %3,85ek ZIUan ospitaleratzea behar izan zuten. Ospitaleko egonaldiko mediana 6 egunekoa izan zen [4-8], batezbestekoa, berriz, $7,83 \pm 7,24$ egunekoa. 30 eguneko berrospitaleratze-tasa %11,63koa izan zen, 90 eguneko hilkortasuna %9,1ekoa eta urte beteko hilkortasuna %11,93koa.

Taula 9. Laginaren analisi deskriptiboa. Konplikazioak eta bilakaera.

Aldagaiak	N (%)	Missing (%)
GUZTIRA	2105	
Konplikazioak ospitaleratzean zehar		
ZIUan ospitaleratzea	81 (3,85)	0 (0)
AEZUko egonaldia (egunak)*	4,02 (3,49)	0 (0)
AEZUko egonaldia (egunak)*	3 [2-5]	0 (0)
Ospitale-egonaldia (egunak)*	7,83 (7,24)	0 (0)
Ospitale-egonaldia (egunak)*	6 [4-8]	0 (0)
Ospitale-barneko hilkortasuna	214 (10,17)	0 (0)
Bilakaera epe ertain eta luzera		
30 eguneko berrospitaleratzea	220 (11,63)	214 (10,17)
90 eguneko hilkortasuna	172 (9,1)	214 (10,17)
1 urteko hilkortasuna	205 (11,93)	386 (18,34)



Aldagaiak	N (%)	Missing (%)
GUZTIRA	2105	

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra). *Emaizak mediana gisa aurkeztuak [kuartilarteko tartea].
ZIU: Zainketa intentsiboko unitatea. AEZU: Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitatea.

1.2. Ospitaleratze helburuaren araberako analisisia


AEZUan pazienteak bi helburu nagusiekin ospitaleratu ziren: aireztapen mekaniko ez-inbaditzaile (AMEI) akutua hasteko (aireztapen taldea) edo arnas-patologia larriaren ondoriozko monitorizazioa egiteko (monitorizazio taldea). Lagin osoa kontuan hartuta, pazienteen %43,37k (913 paziente) AMEI terapia hasteko ospitaleratzea behar izan zuten, eta %56,63k (1192 paziente) monitorizaziorako. Bi talde hauen ezaugarrien arteko konparaketa egin zen (Taula 10-13).

Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera (Taula 10)

Bi taldetan gizonezkoen proportzioa nagusi izan zen, ezberdintasun esanguratsurik gabe (%61,45 vs. %58,64; $p=0,1932$). Hala ere, aireztapen taldeko pazienteek batezbesteko adin altuagoa izan zuten ($72,05 \pm 12,31$ vs. $67,01 \pm 15,81$ urte; $p<0,0001$) eta GMI ere nabarmen handiagoa izan zen ($31,25 \pm 8,99$ vs. $27,97 \pm 6,43$; $p<0,0001$).

Aireztapen taldeko pazienteek oinarritzko egoera okerragoa zuten: %74,75ek ECOG > 1 zuten, monitorizazio taldekoen %41,06rekin alderatuta ($p<0,0001$). Era berean, %79,67k oinarritzko disnea >1 zuten (mMRC eskalaren arabera), monitorizazio taldeko %39,78rekin konparatuta ($p<0,0001$). Gainera, AG kronikoaren prebalentzia handiagoa izan zuten (54,98% vs. 17,87%; $p<0,0001$), baita etxeko AMEI kronikoaren erabilera ere (26,73% vs. 5,62%; $p<0,0001$).

Komorbilitateak aireztapen taldean ohikoagoak izan ziren: pazienteen %35ek Charlson indizean > 2 puntu zituzten, monitorizazio taldeko %22,48arekin alderatuta ($p<0,0001$). Ezberdintasun adierazgarriak ikusi ziren honako patologia hauetan: gaixotasun kardiobaskularrak (59,91% vs. 37,92%), birika gaixotasun



kronikoak (74,70% vs. 41,02%), gibleko gaixotasunak (5,7% vs. 4,61%), diabetesa (29,47% vs. 20,63%), hemiplegia (3,40% vs. 1,76%) eta hipertentsio arteriala (63,86% vs. 53,19%) ($p < 0,05$ kasu guztietan). Beste komorbilitateek ez zuten ezberdintasun adierazgarririk erakutsi. Irudia 8an talde bakoitzean komorbilitateen banaketa ageri da.

Taula 10. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratzeko helburuaren arabera. Aldagai soziodemografikoak eta oinarrizko egoera.


Aldagaiak	Ospitaleratzeko helburua		p
	Aireztapena	Monitorizazioa	
	N (%)	N (%)	
GUZTIRA	913 (43,37)	1192 (56,63)	
Aldagai soziodemografikoak			
Sexua (gizonezkoa)	561 (61,45)	699 (58,64)	0,1932
Adina*	72,05 (12,31)	67,01 (15,81)	<0,0001
Altuera (m)*	1,61 (0,09)	1,64 (0,09)	<0,0001
Pisua (kg)*	81,94 (25,19)	75,36 (18,32)	<0,0001
GMI*	31,25 (8,99)	27,97 (6,43)	<0,0001
Oinarrizko egoera			
ECOG >1	669 (74,75)	480 (41,06)	<0,0001
Oinarrizko disnea >1 (mMRC eskala)	674 (79,67)	438 (39,78)	<0,0001
Etxeko AMEI kronikoa	244 (26,73)	67 (5,62)	<0,0001
Etxeko CPAPa	35 (3,83)	23 (1,93)	0,0082
Aurreko AG kronikoa	502 (54,98)	213 (17,87)	<0,0001
Komorbilitateak			
Gaixotasun kardiobaskularra	547 (59,91)	452 (37,92)	<0,0001
Biriketako gaixotasun kronikoa	682 (74,70)	489 (41,02)	<0,0001
Ultzeradun gaixotasuna	56 (6,13)	88 (7,38)	0,2606
Gibleko gaixotasuna	52 (5,7)	55 (4,61)	0,0176
Giltzurrunetako gaixotasuna	59 (6,46)	64 (5,37)	0,4565
Diabetesa	269 (29,47)	256 (20,63)	<0,0001
Minbizia	68 (7,45)	116 (9,73)	0,0660
Dementzia	34 (3,72)	37 (3,10)	0,4349
Gaixotasun zerebrobaskularra	99 (10,84)	110 (9,23)	0,2194
Ehun konektiboko gaixotasuna	32 (3,50)	44 (3,69)	0,8203
Hemiplegia	31 (3,40)	21 (1,76)	0,0167
HIESa	2 (0,22)	1 (0,08)	0,5825
Hipertentsio arteriala	583 (63,86)	634 (53,19)	<0,0001
Charlson indizea*	2,26 (1,52)	1,60 (1,73)	<0,0001
Charlson indizea*	2 [1-3]	1 [0-2]	<0,0001

Aldagaiak	Ospitaleratze helburua		p
	Aireztapena	Monitorizazioa	
	N (%)	N (%)	
Charlson indizea > 2	320 (35,05)	268 (22,48)	<0,0001

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra). *Emaizak mediana gisa aurkeztuak [kuartilarteko tartea].

GMI: Gorputz-masaren indizea. ECOG: Bizitza-kalitatea neurtzeko eskala (*Eastern Cooperative Oncology Group*). mMRC eskala: *British Medical Research Council*-en disnea eskala moldatua. AMEI: Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea. CPAP: Aire bideetan presio positibo jarraitua. AG: Arnas-gutxiegitasuna. HIES: Hartutako immunoeskasiaren sindromea.

Irudia 8. Komorbiditateen banaketa ospitaleratze helburuaren arabera.




Balioak talde bakoitzean komorbiditate bakoitzak duen pazienteen ehuneko gisa adierazten dira.

* ezberdintasun esanguratsuak ($p < 0,05$).

HIES: Hartutako immunoeskasiaren sindromea..

Aldagai kliniko eta analitikoak (Taula 11)

Larrialdietan egindako hasierako ebaluazioan, aireztapen taldeko pazienteek larritasun-maila handiagoa erakutsi zuten, APACHE II eskalan puntuazio altuagoak lortuz ($19,37 \pm 6,10$ vs. $13,43 \pm 6,81$ puntu; $p < 0,001$). Takipnea handiagoa izan zuten (AM $24,98 \pm 8,54$ vs. $20,84 \pm 7,34$ am; $p < 0,001$), hiperkapnia nabarmenagoa ($p\text{CO}_2$ arteriala $69,52 \pm 19,98$ vs. $40,97 \pm 13,39$ mmHg; $p < 0,001$), hipoxemia larriagoa ($p\text{O}_2$ arteriala $54 \pm 23,83$ vs. $64,93 \pm 25,46$ mmHg; $p < 0,0001$) eta pH baxuagoa ($7,31 \pm 0,09$ vs. $7,41 \pm 0,08$, $p < 0,001$).



Ezberdintasun hauek AEZUko ospitaleratzean ere mantendu ziren, nahiz eta maila apalagoan. Aireztapen taldeko pazienteek APACHE II puntuazio altuagoa izaten jarraitu zuen ($15,27 \pm 4,85$ vs. $10,05 \pm 5,06$ puntu; $p < 0,0001$), hipoxemia larriagoa (pO_2 arteriala $63,29 \pm 21,51$ vs. $79,37 \pm 29,32$ mmHg; $p < 0,0001$), PaO_2/FiO_2 erlazio okerragoa ($198,58 \pm 69,24$ vs. $252,19 \pm 99,47$; $p < 0,0001$) eta hiperkapnia handiagoa (pCO_2 arteriala $66,66 \pm 17,13$ vs. $40,96 \pm 11,31$ mmHg; $p < 0,0001$).

Taula 11. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratzeko helburuaren arabera. Aldagai kliniko eta analitikoak.

Aldagaiak	Ospitaleratzeko helburua		p
	Aireztapena	Monitorizazioa	
	N (%)	N (%)	
GUZTIRA	913 (43,37)	1192 (56,63)	
Aldagaiak Larrialdietan			
Aldagai klinikoak			
Tenperatura (°C)*	36,75 (0,74)	36,89 (0,84)	0,0039
Bihotz-maiztasuna (tm)*	98,31 (22,73)	100,14 (23,76)	0,0924
Arnasketa-maiztasuna (am)*	24,98 (8,54)	20,84 (7,34)	<0,0001
TAS (mmHg)*	138,57 (31,87)	131,41 (45,69)	<0,0001
TAD (mmHg)*	75,88 (18,29)	74,44 (24,65)	0,0523
Glasgow eskala*	14,64 (1,38)	14,87 (0,93)	<0,0001
APACHE II larrialdietan*	19,37 (6,19)	13,43 (6,81)	<0,0001
Aldagai analitikoak			
pCO_2 arteriala (mmHg)*	69,52 (19,98)	40,97 (13,39)	<0,0001
pO_2 arteriala (mmHg)*	54,15 (23,82)	64,93 (25,46)	<0,0001
O_2 asetasuna (%)*	79,26 (11,77)	89,05 (9,02)	<0,0001
pH arteriala*	7,31 (0,09)	7,41 (0,08)	<0,0001
Leukozitoak ($\cdot 10^3/\mu L$)*	11,22 (4,82)	12,33 (6,05)	<0,0001
Plaketak ($\cdot 10^3/\mu L$)*	228,64 (88,77)	238,69 (106,49)	0,1359
Hematokrito (%)*	42,62 (7,31)	40,35 (6,08)	<0,0001
Kreatinina (mg/dL)*	1,09 (0,70)	1,12 (0,71)	0,0479
Sodio serikoa (mEq/dL)*	139,08 (4,78)	137,98 (4,35)	<0,0001
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,80 (0,74)	4,42 (0,64)	<0,0001
Glukosa (mg/dL)*	161,85 (103,55)	151,17 (71,01)	<0,0001
PD (%)*	76,19 (28,76)	81,89 (23,88)	0,0044
Aldagaiak AEZUan ospitaleratzekoan			
Aldagai klinikoak			
Bihotz-maiztasuna (tm)*	92,49 (20,08)	91,09 (19,53)	0,1395
Arnasketa-maiztasuna (am)*	23,42 (6,55)	22,49 (6,16)	0,0011
TAS (mmHg)*	132,35 (24,06)	127,86 (22,92)	<0,0001
TAD (mmHg)*	71,65 (16,18)	71,68 (14,83)	0,8405

Aldagaiak	Ospitaleratze helburua		p
	Aireztapena	Monitorizazioa	
	N (%)	N (%)	
Glasgow eskala*	14,44 (1,66)	14,89 (0,75)	<0,0001
APACHE II AEZUan*	15,27 (4,85)	10,05 (5,06)	<0,0001
Aldagai analitikoak			
pH arteriala*	7,34 (0,07)	7,43 (0,06)	<0,0001
pCO ₂ arteriala (mmHg)*	66,66 (17,13)	40,96 (11,31)	<0,0001
pO ₂ arteriala (mmHg)*	63,29 (21,51)	79,37 (29,32)	<0,0001
PaO ₂ /FiO ₂ erlazioa*	198,58 (69,24)	252,19 (99,47)	<0,0001
Leukozitoak (*10 ³ /μL)*	10,78 (4,83)	11,54 (5,59)	0,0029
Plaketak (*10 ³ /μL)*	217,35 (86,82)	225,59 (103,73)	0,2440
Hematokritoa (%)*	41,29 (7,01)	38,06 (6,33)	<0,0001
Kreatinina (mg/dL)*	1,08 (0,65)	1,04 (0,68)	0,0519
Urea (mg/dL)*	64,57 (39,95)	54,19 (37,93)	<0,0001
Sodio serikoa (mEq/dL)*	139,66 (4,48)	138,58 (3,95)	<0,0001
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,75 (0,66)	4,30 (0,58)	<0,0001
Glukosa (mg/dL)*	169,87 (69,66)	149,52 (67,21)	<0,0001
Bilirrubina (mg/dL)*	0,59 (0,47)	0,67 (0,55)	0,0002
Albumina (g/dL)*	3,86 (0,49)	3,64 (0,63)	<0,0001
PD (%)*	77,24 (26,90)	80,54 (22,16)	0,6801

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra).

tm: taupada minutuko. am: arnasketa minutuko. TAS: Tentsio arterial sistolikoa. TAD: Tentsio arterial diastolikoa.

APACHE II: Gaixotasunen larritasuna neurtzeko eskala (*Acute Physiology And Chronic Health Evaluation II*). PD:

Protonbina denbora. AEZU: Arnas aparatuen erdi-mailako zainketa unitatea.

Ospitaleratze arrazoia (Taula 12)

Monitorizazio taldean ZIU/Bizkortze-unitatetik eratorritako (*step-down*) kasu gehiago izan ziren aireztapen taldearekin alderatuta (6,21% vs. 2,52%; p <0,001). Ez zen ezberdintasunik esanguratsurik ikusi AEZUra ospitaleratu arteko denborari dagokionez: pazienteen %10,42k vs. %12,42k 48 ordu baino gehiagor ospitaleratuta egon ostean AEZUra lekualdatuak izan ziren (p 0,1687). Diagnostikoei dagokionez, aireztapen taldean ohikoagoak izan ziren BGBK areagotzea (38,01% vs. 9,56%; p <0,001), HOS (18,18% vs. 1,17%; p <0,001) eta BEA (19,28% vs. 5,7%; p <0,001). Bestalde, monitorizazio taldean maizago agertu ziren pneumonia (29,03% vs. 8,43%; p <0,001), BTE (28,61% vs. 0,66%; p <0,001) eta BGI (4,43% vs. 1,42%; p <0,001). Irudia 9an taldeen arteko diagnostikoen banaketa agertzen da.

Taula 12. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratzeko helburuaren arabera. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak.


Aldagaiak	Ospitaleratzeko helburua		p
	Aireztapena N (%)	Monitorizazioa N (%)	
GUZTIRA	913 (43,37)	1192 (56,63)	
AEZUra ospitaleratu aurreko jatorria			
Larrialdiak	569 (62,32)	716 (60,07)	0,2931
ZIU/Bizkortze-unitatea	23 (2,52)	74 (6,21)	<0,0001
Ospitalizazio arrunta	304 (33,30)	361 (30,29)	0,1408
Kanpo-kontsultak	17 (1,86)	41 (3,44)	0,0284
AEZUra ospitaleratu arteko denbora			
>48 ordu	95 (10,41)	148 (12,42)	0,1687
Diagnostikoa			
BGBK	347 (38,01)	114 (9,56)	<0,0001
HOS	166 (18,18)	14 (1,17)	<0,0001
BEA	176 (19,28)	68 (5,70)	<0,0001
Pneumonia	77 (8,43)	346 (29,03)	<0,0001
BTE	6 (0,66)	341 (28,61)	<0,0001
Asma	42 (4,60)	55 (4,61)	0,9880
BGI	13 (1,42)	53 (4,45)	<0,0001
Gaixotasun neuromuskularrak	18 (1,97)	13 (1,09)	0,0963
Beste patologia murriztaileak	41 (4,49)	4 (0,34)	<0,0001
Beste batzuk	27 (2,96)	184 (15,44)	<0,0001

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra).

AEZU: Arnas aparatuaren erdi-mailako zainketa unitatea. AMEI: Aireztapen mekaniko ez inbaditzailea. ZIU: Zainketa intentsiboko unitatea. BGBK: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa. HOS: Hipoaireztapen obesitate sindromea.

BEA: Biriketako edema akutua. BTE: Biriketako tronboembolismoa. BGI: Biriketako gaixotasun interstiziala

Irudia 9. Diagnostikoen banaketa ospitaleratze helburuaren arabera.



Balioak talde bakoitzean diagnostiko bakoitzak duen pazienteen ehuneko gisa adierazten dira.

* ezberdintasun esanguratsuak ($p < 0,05$).


BGBK: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa. HOS: Hipopaireztapen obesitate sindromea. BEA: Biriketako edema akutua. BTE: Biriketako tronboembolia. BGI: Biriketako gaixotasun interstiziala. Gaix. NML: Gaixotasun neuromuscularrak.

Bilakaera (Taula 13)

Aireztapen taldeko pazienteek bilakaera kliniko okerragoa izan zuten, honako adierazle hauek kontuan hartuta: ospitale-barneko hilkortasuna (12,05% vs. 8,71%; $p = 0,0124$), 90 eguneko hilkortasuna (12,33% vs. 6,71%; $p < 0,0001$) eta urtebeteko hilkortasuna (17,76% vs. 7,88%; $p < 0,0001$). Era berea, 30 eguneko berrospitaleratze-tasa altuagoa izan zen talde horretan (14,45% vs. 9,56%; $p = 0,0011$). Bestalde, monitorizazioko taldeko pazienteek ZIUra ospitaleratze tasa handiagoa izan zuten (4,7% vs. 2,74%; $p = 0,0205$).

Taula 13. Pazienteen arteko analisi konparatiboa, ospitaleratze helburuaren arabera. Konplikazioak eta bilakaera.

Aldagaiak	Ospitaleratze helburua		p
	Aireztapena N (%)	Monitorizazioa N (%)	
GUZTIRA	913 (43,37)	1192 (56,63)	
Konplikazioak ospitaleratzean zehar			
ZIUan ospitaleratzea	25 (2,74)	56 (4,70)	0,0205



Aldagaiak	Ospitaleratze helburua		p
	Aireztapena	Monitorizazioa	
	N (%)	N (%)	
AEZUko egonaldia (egunak)*	4,05 (3,08)	3,99 (3,77)	0,0204
AEZUko egonaldia (egunak)*	3 [2-5]	3 [2-5]	0,0204
Ospitale-egonaldia (egunak)*	7,53 (6,58)	8,05 (7,69)	0,2307
Ospitale-egonaldia (egunak)*	6 [4-8]	6 [4-9]	0,2307
Ospitale-barneko hilkortasuna	110 (12,05)	104 (8,72)	0,0124
Bilakaera epe ertain eta luzera			
30 eguneko berrospitaleratzea	116 (14,45)	104 (9,56)	0,0011
90 eguneko hilkortasuna	99 (12,33)	73 (6,71)	<0,0001
1 urteko hilkortasuna	125 (17,76)	80 (7,88)	<0,0001

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra). *Emaizak mediana gisa aurkeztuak [kuartilarteko tartea].
ZIU: Zainketa intentsiboko unitatea. AEZU: Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitatea.

1.3. Diagnostikoen arabera konparatiboa

AEZUan ospitaleratzean izandako diagnostikoen arabera, pazienteen ezaugarrien arteko konparaketa egin zen. Taula 14an erakusten da.

Aldagai soziodemografikoak eta oinarritzko egoera

Zeinbat patologia sexu nagusitasuna erakutsi zuten, esaterako BGBK areagotzea zutenen %82,65 gizonezkoak ziren eta asma areagotzean zutenen %71,16 emakumezkoak. Adinari dagokionez, BEA zuten pazienteak izan ziren zaharrenak ($77,11 \pm 10,41$ urte); eta gazteenak, berriz, asma areagotzea zutenak ($60,19 \pm 19,79$ urte). HOS zuten pazienteek GMI handiena erakutsi zuten ($41,51 \pm 10,27$).

Gaixotasun neuromuskularra zuten pazienteek oinarritzko egoera okerrean aurkeztu zuten (%96,67k ECOG >1), eta haien atzerik BEA zuten pazienteak izan ziren (%76,05). Bestalde, BTE zuten pazienteek oinarritzko egoera onena izan zuten (%30,88k ECOG >1). Arnas-egoerari dagokionez, BGBK areagotzea eta BEA zuten pazienteek oinarritzko disnea altua izan zuten (87,09% eta 78,41%, mMRC >1 hurrenez hurren). Gainera, BGBK areagotzea zuten pazienteen %69,85ek ospitaleratze-aurreko AG kronikoa zuten.



Komorbilitateei dagokionez, Charlson indizea >2 puntu izateko proportzio altuena izan zuten taldeak BEA (%45,49), HOS (%36,11) eta BGBK areagotzea (%34,71) izan ziren; proportzio baxuena, aldiz, BTE izandako pazienteek izan zuten (%9,22). BEA zuten pazienteek gaixotasun kardiobaskular (%88,52) eta HTA (%73,36) prebalentzia altuena izan zuten; BGBK dutenen artean, berriz, arnas-gaixotasuna izan zen komorbidaterik ohikoena (%97,40).

Aldagai kliniko eta analitikoak

Larrialdietara iristean, APACHE II eskalan puntuazio altuena beste patologia murriztailea zuten pazienteek izan zuten ($19,89 \pm 4,9$ puntu), jarraian BGBK areagotzea ($19,13 \pm 5,29$ puntu) eta HOS ($19,03 \pm 7,69$ puntu). Puntuazio baxuena BTE zuten pazienteek izan zuten ($10,99 \pm 5,67$ puntu). AEZUra ospitaleratzerako unean, talde guztietan hobekuntza ikusi zen, nahiz eta beste patologia murriztailea zutenek ($15,80 \pm 4,21$) eta BGBK areagotzea zutenek ($14,85 \pm 4,51$) larritasun handiena mantendu.

Ospitaleratze arrazoia

Ospitaleratzearen helburuari dagokionez, HOS eta beste patologia murriztaileak zituzten pazienteak, gehienbat AMEI terapia jasotzeko ospitaleratu ziren (%92,22 eta %91,11, hurrenez hurren); BTE zuten pazienteak, aldiz, monitorizaziorako ospitaleratu ziren nagusiki (%98,27).

Paziente gehienak Larrialdietatik eratorriak izan ziren, BGI zuten pazienteen kasuan izan ezik, hauek ospitalizazio-solairu arruntetik lekualdatuak ziren gehienetan (%56,06).

AEZUra iritsi arteko ospitalizazio-denbora aztertzerakoan, BGI zuten pazienteek izan zuten 48 ordu baino gehiagoko atzerapenenik handiena (%34,85). Asma, BTE eta BGBK zuten pazienteak, berriz, denbora laburragoa behar izan zuten lekualdatzeraino (%1,34, %3,17 y %6,94 hurrenez hurren; $p < 0,0001$).



Bilakaera

ZIUan ospitaleratzeko tasa altuena BGI zuten pazienteetan izan ziren (%7,58). AEZUko egonaldi luzeena gaixotasun neuromuskularra zuten pazienteek izan zuten (4 eguneko mediana [3-7]); ospitale-egonaldi luzeena, berriz, BGI zuten pazienteek (7 eguneko mediana [4-15]).

Ospitale-barneko hilkortasun handiena BGI zuten pazienteek izan zuten (%31,82), jarrian BEA zutenek (%16,39). Aldiz, hilkortasun baxuena BTE zuten pazienteen artean izan zen (%3,17). 90 eguneko hilkortasun handiena gaixotasun neuromuskularrak zituzuten pazienteen artean izan zen (%25), eta atzetik beste patologia murriztaileak (%20) eta BEA (%17,16) izan ziren. Urtebeteko hilkortasun altuena gaixotasun neuromuskularra (%28,57) eta BEA (%24,58) zuten pazienteen artean izan zen. Irudia 10an diagnostiko ezberdinen arabera hilkortasun-datuak aurkezten dira.

Taula 14. Pazienteen analisi konparatiboa, AEZUan ospitaleratzeko diagnostikoaren arabera.

Aldagaiak	Diagnostikoa										
	BGBK	HOS	BEA	Pneumonia	BTE	Asma	BGI	Gaix.NML	Beste pat. murritztaileak	Beste batzuk	p
	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	
GUZTIRA	461 (21,90)	180 (8,55)	244 (11,59)	423 (20,10)	347 (16,48)	97 (4,61)	66 (3,11)	31 (1,47)	45 (2,14)	211 (10,02)	
Aldagai soziodemografikoak											
Sexua (gizonezkoa)	381 (82,65)	84 (46,67)	126 (51,64)	266 (62,88)	161 (46,40)	27 (27,84)	45 (68,18)	15 (48,39)	17 (37,78)	138 (65,40)	<0,0001
Adina*	69,68 (11,21)	69,95 (12,93)	77,11 (10,41)	66,48 (16,48)	69,95 (14,49)	60,29 (19,79)	68,83 (13,15)	63,58 (14,38)	77,11 (9,75)	65,94 (16,33)	<0,0001
Altuera (m)*	1,64 (0,08)	1,61 (0,10)	1,59 (0,10)	1,64 (0,10)	1,64 (0,09)	1,58 (0,11)	1,65 (0,09)	1,64 (0,08)	1,57 (0,11)	1,66 (0,09)	<0,0001
Pisua (kg)*	75,99 (19,97)	107,41 (28,74)	74,70 (19,49)	74,39 (18,70)	78,44 (16,93)	79,01 (23,87)	75,18 (16,84)	65,81 (15,32)	67,26 (18,05)	74,69 (17,06)	<0,0001
GMI*	28,28 (6,88)	41,51 (10,27)	29,07 (6,31)	27,35 (5,97)	29,21 (5,71)	31,58 (9,57)	27,36 (5,04)	24,39 (6,26)	26,61 (5,58)	27,24 (5,88)	<0,0001
Oinarrizko egoera											
ECOG>1	331 (72,91)	124 (70,45)	181 (76,05)	171 (41,11)	105 (30,88)	52 (54,74)	43 (67,19)	29 (96,67)	33 (73,33)	80 (38,83)	<0,0001
Oinarrizko disnea >1 (mMRC eskala)	398 (87,09)	116 (74,84)	178 (78,41)	145 (38,46)	69 (21,43)	61 (64,89)	47 (74,60)	13 (56,52)	31 (75,61)	54 (28,72)	<0,0001
Etxeko AMEI kronikoa	162 (35,14)	43 (23,89)	20 (8,20)	30 (7,09)	1 (0,29)	8 (8,25)	6 (9,09)	18 (58,06)	14 (31,11)	9 (4,27)	<0,0001
Etxeko CPAPa	10 (2,17)	10 (5,56)	17 (6,97)	6 (1,42)	7 (2,02)	3 (3,09)	2 (3,03)	0 (0)	1 (2,22)	2 (0,95)	0,0006
Aurreko AG kronikoa	322 (69,85)	90 (50)	77 (31,56)	75 (17,73)	17 (4,90)	32 (32,99)	34 (51,52)	13 (41,94)	29 (64,44)	26 (12,32)	<0,0001
Komorbiditateak											
Gaixotasun kardiobaskularra	226 (49,02)	121 (67,22)	216 (88,52)	180 (42,55)	84 (24,21)	31 (31,96)	33 (50,00)	7 (22,58)	22 (48,89)	79 (37,44)	<0,0001
Biriketako gaixotasun kronikoa	449 (97,40)	120 (66,67)	109 (44,67)	172 (40,66)	59 (17,00)	92 (94,85)	45 (68,18)	18 (58,06)	36 (80,00)	71 (33,65)	<0,0001
Ultzeradun gaixotasuna	35 (7,59)	11 (6,11)	18 (7,38)	37 (8,75)	15 (4,32)	2 (2,06)	3 (4,55)	0 (0)	4 (8,89)	19 (9,00)	0,1002
Gibeleko gaixotasuna	32 (6,94)	5 (2,78)	13 (5,33)	29 (6,85)	5 (1,44)	1 (1,03)	2 (3,03)	4 (12,90)	2 (4,44)	14 (6,63)	0,0007
Giltzurrunetako gaixotasuna	12 (2,6)	14 (7,78)	26 (10,66)	34 (8,04)	14 (4,03)	3 (3,09)	4 (6,07)	0 (0)	2 (4,44)	14 (6,64)	0,0054
Diabetesa	122 (26,47)	71 (39,45)	94 (38,53)	93 (21,98)	43 (12,39)	21 (21,65)	14 (21,22)	4 (12,90)	10 (22,22)	43 (20,38)	<0,0001
Minbizia	44 (9,54)	10 (5,56)	21 (8,61)	45 (10,64)	30 (8,65)	4 (4,12)	5 (7,58)	2 (6,45)	1 (2,22)	22 (10,43)	0,3013
Dementzia	14 (3,04)	7 (3,89)	10 (4,10)	18 (4,26)	11 (3,17)	5 (5,15)	0 (0)	0 (0)	0 (0)	6 (2,84)	0,5505
Gaixotasun zerebrobaskularra	36 (7,81)	16 (8,89)	41 (16,80)	44 (10,40)	21 (6,05)	5 (5,15)	9 (13,64)	0 (0)	6 (13,33)	31 (14,69)	<0,0001
Ehun konektiboko gaixotasuna	18 (3,90)	8 (4,44)	5 (2,05)	18 (4,26)	9 (2,59)	3 (3,09)	8 (12,12)	0 (0)	1 (2,22)	6 (2,22)	0,0288
Hemiplegia	7 (1,52)	8 (4,44)	8 (3,28)	6 (1,42)	7 (2,02)	0 (0)	2 (3,03)	10 (32,26)	2 (4,44)	2 (0,95)	<0,0001

Aldagaiak	Dagnostikoa										
	BGBK	HOS	BEA	Pneumonia	BTE	Asma	BGI	Gaix.NML	Beste pat. murritzailleak	Beste batzuk	
	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	p
HIESa	1 (0,22)	0 (0)	0 (0)	1 (0,24)	1 (0,29)	0 (0)	0 (0)	0 (0)	0 (0)	0 (0)	0,9878
Hipertensión arterial	221 (47,94)	143 (79,44)	179 (73,36)	234 (55,32)	196 (56,48)	51 (52,58)	38 (57,58)	13 (41,94)	32 (71,11)	110 (52,13)	<0,0001
Charlson indizea*	2,29 (1,41)	2,24 (1,48)	2,60 (1,82)	1,75 (1,78)	0,94 (1,31)	1,70 (1,36)	1,94 (1,40)	1,39 (1,05)	1,98 (1,59)	1,82 (1,99)	<0,0001
Charlson indizea [‡]	2 [1-3]	2 [1-3]	2 [1-4]	1 [0-3]	1 [0-1]	1 [1-2]	2 [1-3]	1 [1-2]	2 [1-2]	1 [0-3]	<0,0001
Charlson indizea>2	160 (34,71)	65 (36,11)	111 (45,49)	116 (27,42)	32 (9,22)	11 (11,34)	19 (28,79)	6 (19,35)	10 (22,22)	58 (27,49)	<0,0001
Aldagaiak Larrialdietan											
Aldagai klinikoak											
Temperatura (°C)*	36,75 (0,72)	36,75 (0,67)	36,59 (0,66)	37,35 (0,99)	36,58 (0,54)	36,75 (0,57)	36,87 (0,81)	36,72 (0,77)	36,86 (0,76)	36,76 (0,80)	<0,0001
Bihotz-maiztasuna (tm)*	100,59 (21,19)	94,03 (22,08)	96,78 (25,07)	105,63 (24,35)	97,68 (22,73)	107,93 (26,14)	98,41 (21,06)	93,97 (17,85)	94,53 (19,48)	92,44 (22,37)	<0,0001
Arnasketa-maiztasuna (am)*	25,80 (8,20)	23,21 (7,73)	25,03 (8,49)	21,56 (8,13)	18,61 (5,36)	26,18 (7,77)	22,70 (7,10)	22,00 (8,81)	26,67 (9,76)	19,49 (7,09)	<0,0001
TAS (mmHg)*	143,76 (30,36)	138,11 (30,46)	136,44 (34,31)	119,84 (30,32)	132,28 (28,18)	152,21 (125,30)	121,64 (23,03)	128,16 (27,72)	147,97 (36,62)	136,50 (31,18)	<0,0001
TAD (mmHg)*	78,96 (17,80)	75,43 (16,91)	74,10 (19,87)	68,56 (34,21)	77,66 (16,84)	78,22 (16,31)	70,95 (14,88)	72,40 (15,86)	77,17 (16,49)	75,74 (17,72)	<0,0001
Glasgow eskala*	14,76 (1,12)	14,65 (1,34)	14,71 (1,26)	14,78 (1,18)	14,86 (1,04)	14,73 (1,13)	15,00 (0)	14,35 (2,30)	14,42 (1,66)	14,87 (0,81)	<0,0001
APACHE II larrialdietan*	19,13 (5,29)	19,03 (7,69)	18,32 (6,26)	15,09 (6,96)	10,99 (5,67)	17,49 (8,94)	16,58 (6,83)	17,66 (6,77)	19,89 (4,90)	11,89 (6,72)	<0,0001
Aldagai analitikoak											
pCO ₂ arteriala (mmHg)*	69,66 (22,77)	69,13 (16,17)	59,87 (18,73)	41,34 (14,86)	37,03 (9,12)	56,03 (22,62)	42,87 (15,95)	64,83 (24,47)	69,40 (16,31)	44,10 (13,15)	<0,0001
pO ₂ arteriala (mmHg)*	55,74 (22,67)	51,42 (18,97)	57,12 (28,64)	59,45 (21,76)	67,31 (18,22)	58,77 (18,51)	51,35 (19,73)	62,44 (40,54)	62,53 (53,02)	74,68 (32,47)	<0,0001
O ₂ asetasuna (%)*	80,83 (11,65)	78,35 (12,00)	80,69 (12,14)	87,17 (9,50)	91,35 (7,14)	84,95 (9,93)	81,52 (11,18)	82,48 (10,79)	82,09 (10,97)	90,35 (10,43)	<0,0001
pH arteriala*	7,32 (0,09)	7,32 (0,08)	7,32 (0,10)	7,42 (0,08)	7,43 (0,05)	7,35 (0,11)	7,42 (0,08)	7,32 (0,11)	7,33 (0,09)	7,39 (0,08)	<0,0001
Leukozitoak (*10 ³ /μL)*	11,75 (4,93)	9,77 (3,32)	10,59 (4,41)	14,68 (7,66)	10,97 (3,87)	11,72 (5,02)	12,69 (4,73)	10,62 (5,21)	10,54 (5,18)	11,31 (5,62)	<0,0001
Plaketak (*10 ³ /μL)*	233,97 (98,99)	224,64 (79,27)	234,79 (103,57)	233,24 (103,48)	222,58 (95,16)	253,39 (73,65)	256,80 (112,27)	245,90 (110,96)	227,73 (67,99)	248,48 (114,76)	0,0070
Hematokritoa (%)*	44,53 (7,10)	42,46 (7,77)	39,29 (6,37)	39,43 (5,82)	41,18 (5,44)	41,85 (6,72)	40,87 (5,55)	43,25 (6,06)	42,58 (7,08)	39,17 (6,43)	<0,0001
Kreatinina (mg/dL)*	0,96 (0,56)	1,18 (0,60)	1,24 (0,67)	1,28 (0,80)	1,05 (0,52)	0,97 (0,82)	1,06 (0,54)	0,57 (0,25)	1,05 (1,09)	1,15 (0,97)	<0,0001
Sodio serikoa (mEq/dL)*	139,34 (4,68)	138,87 (5,12)	138,16 (4,89)	136,87 (4,68)	139,10 (3,78)	138,91 (3,68)	137,72 (3,64)	140,23 (3,60)	139,18 (3,71)	138,26 (4,48)	<0,0001
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,78 (0,68)	4,83 (0,74)	4,86 (0,75)	4,29 (0,74)	4,43 (0,59)	4,46 (0,60)	4,54 (0,60)	4,69 (0,82)	4,64 (0,72)	4,51 (0,61)	<0,0001
Glukosa (mg/dL)*	152,92 (64,47)	164,01 (88,03)	185,68 (164,14)	154,57 (78,54)	147,30 (63,37)	158,03 (76,15)	154,86 (62,94)	147,26 (72,05)	143,14 (52,78)	140,29 (53,49)	<0,0001
PD (%)*	81,71 (25,82)	74,29 (30,11)	67,43 (30,95)	72,20 (26,65)	91,76 (13,49)	85,06 (24,37)	70,75 (28,82)	93,13 (10,54)	83,10 (25,63)	82,87 (23,68)	<0,0001
Aldagaiak AEZUan ospitaleratzera koan											
Aldagai klinikoak											


Aldagaiak	Diagnostikoa										
	BGBK	HOS	BEA	Pneumonia	BTE	Asma	BGI	Gaix.NML	Beste pat. murritzaileak	Beste batzuk	
	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	p
Bihotz-maiztasuna (tm)*	94,87 (19,30)	87,20 (17,24)	90,44 (22,06)	94,38 (19,72)	87,76 (18,51)	100,89 (20,52)	93,69 (20,23)	91,65 (18,45)	92,42 (18,34)	86,08 (18,68)	<0,0001
Arnasketa-maiztasuna (am)*	23,40 (6,27)	22,01 (6,19)	23,40 (6,49)	24,73 (6,629)	20,49 (5,29)	22,79 (5,98)	24,91 (6,87)	22,06 (6,05)	24,18 (6,71)	21,50 (5,88)	<0,0001
TAS (mmHg)*	134,13 (23,28)	136,35 (23,57)	131,13 (24,41)	121,56 (23,59)	132,09 (22,65)	131,46 (20,49)	125,24 (18,89)	115,00 (17,67)	132,38 (23,21)	128,29 (22,36)	<0,0001
TAD (mmHg)*	73,64 (14,88)	72,31 (18,54)	69,53 (16,93)	66,75 (14,62)	77,01 (14,53)	71,96 (13,05)	70,87 (13,96)	70,29 (13,54)	70,07 (15,97)	70,99 (12,92)	<0,0001
Glasgow eskala*	14,7 (1,13)	14,42 (1,64)	14,43 (1,76)	14,73 (1,18)	14,88 (0,94)	14,82 (0,94)	14,74 (1,28)	14,32 (2,19)	14,71 (0,76)	14,79 (0,94)	<0,0001
APACHE II AEZUan*	14,85 (4,52)	14,67 (5,30)	14,60 (5,14)	11,58 (5,72)	8,32 (4,13)	11,84 (5,62)	14,32 (4,66)	13,03 (4,62)	15,80 (4,21)	9,32 (5,34)	<0,0001
Aldagai analitikoak											
pH arteriala*	7,35 (0,07)	7,34 (0,06)	7,36 (0,08)	7,41 (0,07)	7,44 (0,05)	7,38 (0,07)	7,41 (0,08)	7,36 (0,08)	7,35 (0,07)	7,41 (0,06)	<0,0001
pCO ₂ arteriala (mmHg)*	63,93 (18,25)	68,68 (16,21)	58,24 (17,13)	42,59 (14,40)	38,12 (8,16)	52,49 (17,49)	46,08 (15,32)	60,55 (22,71)	71,16 (14,58)	43,85 (14,83)	<0,0001
pO ₂ arteriala (mmHg)*	63,62 (19,03)	58,76 (15,33)	71,63 (40,24)	74,43 (24,95)	84,98 (24,13)	73,84 (26,33)	67,91 (30,18)	82,34 (57,90)	62,25 (17,09)	80,79 (24,63)	<0,0001
PaO ₂ /FiO ₂ erlazioa*	206,81 (69,40)	193,84 (58,07)	205,92 (85,69)	220,29 (92,05)	293,92 (100,73)	232,93 (91,89)	167,34 (74,25)	243,76 (82,63)	209,43 (58,19)	262,65 (93,18)	<0,0001
Leukozitoak (*10 ³ /μL)*	11,21 (5,03)	9,33 (3,54)	10,06 (4,57)	13,64 (6,81)	9,95 (3,61)	11,49 (4,60)	13,39 (5,32)	9,00 (3,85)	9,95 (5,24)	11,19 (5,22)	<0,0001
Plaketak (*10 ³ /μL)*	219,33 (90,47)	215,60 (82,77)	218,43 (97,16)	221,01 (104,82)	208,86 (87,72)	242,74 (72,01)	250,72 (115,17)	234,84 (107,89)	213,42 (68,01)	242,63 (118,55)	0,0004
Hematokritoak (%)*	43,06 (6,87)	42,07 (7,42)	37,83 (6,05)	36,57 (5,68)	39,46 (5,25)	39,73 (5,86)	39,42 (6,65)	40,07 (7,51)	40,97 (7,18)	36,57 (7,22)	<0,0001
Kreatinina (mg/dL)*	0,93 (0,49)	1,12 (0,54)	1,29 (0,73)	1,17 (0,77)	0,97 (0,52)	0,95 (0,76)	1,03 (0,55)	0,54 (0,26)	0,97 (0,82)	1,07 (0,85)	<0,0001
Urea (mg/dL)*	53,18 (30,10)	63,95 (35,02)	82,68 (49,93)	63,72 (43,68)	46,48 (27,47)	51,06 (34,11)	58,57 (38,58)	33,58 (21,32)	63,33 (29,11)	54,86 (43,80)	<0,0001
Sodio serikoa (mEq/dL)*	139,49 (4,28)	139,99 (4,56)	138,98 (4,80)	138,55 (4,29)	138,81 (3,40)	139,96 (3,52)	138,23 (4,67)	139,74 (3,31)	139,70 (3,96)	138,39 (4,26)	<0,0001
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,73 (0,60)	4,72 (0,64)	4,72 (0,71)	4,24 (0,64)	4,30 (0,51)	4,32 (0,57)	4,47 (0,59)	4,59 (0,79)	4,59 (0,65)	4,42 (0,62)	<0,0001
Glukosa (mg/dL)*	170,41 (65,89)	163,82 (70,39)	172,72 (73,23)	156,20 (72,14)	128,80 (47,38)	190,11 (87,63)	173,77 (77,31)	146,19 (70,72)	165,62 (63,12)	145,14 (62,79)	<0,0001
Bilirrubina (mg/dL)*	0,55 (0,44)	0,70 (0,60)	0,68 (0,54)	0,69 (0,61)	0,66 (0,40)	0,46 (0,38)	0,70 (0,57)	0,76 (0,97)	0,54 (0,30)	0,63 (0,53)	<0,0001
Albumina (g/dL)*	3,97 (0,49)	3,83 (0,43)	3,76 (0,48)	3,31 (0,59)	3,83 (0,50)	4,08 (0,57)	3,60 (0,56)	3,72 (0,74)	3,81 (0,38)	3,72 (0,63)	<0,0001
PD (%)*	81,95 (24,49)	76,70 (26,75)	69,87 (28,96)	70,78 (23,58)	88,70 (14,75)	83,12 (25,74)	71,42 (27,22)	91,43 (9,52)	85,35 (22,04)	82,98 (21,76)	<0,0001
AEZUan ospitaleratzeiko arrazoiak											
AEZUan ospitaleratzeiko helburua											
AMEI	347 (75,27)	166 (92,22)	176 (72,13)	77 (18,20)	6 (1,73)	42 (43,30)	13 (19,70)	18 (58,06)	41 (91,11)	27 (12,80)	<0,0001
AEZUra ospitaleratu aurreko jatorria											<0,0001
Larrialdiak	318 (68,98)	110 (61,11)	134 (54,92)	248 (58,63)	257 (74,06)	61 (62,89)	20 (30,30)	17 (54,84)	21 (46,67)	99 (46,92)	
ZIU/Bizkortze-unitatea	16 (3,47)	8 (4,44)	8 (3,28)	19 (4,49)	8 (2,31)	4 (4,12)	1 (1,52)	4 (12,90)	3 (6,67)	26 (12,32)	

Aldagaiak	Diagnostikoa										
	BGBK	HOS	BEA	Pneumonia	BTE	Asma	BGI	Gaix.NML	Beste pat. murritzailak	Beste batzuk	
	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	N (%)	p
Ospitalizazio arrunta	107 (23,21)	58 (32,22)	100 (40,98)	148 (34,99)	79 (22,77)	31 (31,96)	37 (56,06)	10 (32,26)	18 (40,00)	77 (36,49)	
Kanpo-kontsultak	20 (4,34)	4 (2,22)	2 (0,82)	8 (1,89)	3 (0,86)	1 (1,03)	8 (12,12)	0 (0)	3 (6,67)	9 (4,27)	
AEZUra ospitaleratu aurreko denbora											
> 48 ordu	32 (6,94)	21 (11,67)	34 (13,93)	50 (11,82)	11 (3,17)	11 (1,34)	23 (34,85)	5 (16,13)	11 (24,44)	45 (21,33)	<0,0001
Pazientearen konplikazio eta bilakaera											
Konplikazioak ospitaleratzean zehar											
ZIUan ospitaleratzea	12 (2,60)	4 (2,22)	10 (4,10)	21 (4,96)	7 (2,02)	4 (4,12)	5 (7,58)	1 (3,23)	0 (0)	17 (8,06)	0,0081
AEZUko egonaldia (egunak)*	3,95 (3,17)	4,46 (4,19)	3,54 (2,99)	3,97 (3,27)	3,89 (2,18)	3,24 (2,21)	5,86 (6,25)	7,10 (8,01)	4,04 (2,24)	4,01 (4,19)	<0,0001
AEZUko egonaldia (egunak)*	3 [2-5]	3,5 [3-5]	3 [2-5]	3 [2-5]	4 [2-5]	3 [2-4]	4,5 [2-7]	4[3-7]	3 [3-5]	3 [2-5]	<0,0001
Ospitale-egonaldia (egunak)*	7,10 (5,40)	7,07 (5,69)	8,19 (7,54)	7,73 (7,32)	7,49 (5,02)	6,54 (5,06)	11,65 (12,42)	11,03 (11,99)	7,56 (6,41)	9,33 (10,90)	0,0003
Ospitale-egonaldia (egunak)*	6 [4-8]	6 [4-8]	6 [4-9]	6 [4-8]	7 [5-8]	6 [4-7]	7 [4-15]	7 [5-12]	6 [4-9]	6 [4-10]	0,0003
Ospitale-barneko hilkortasuna	39 (8,46)	12 (6,67)	40 (16,39)	46 (10,87)	11 (3,17)	8 (8,25)	21 (31,82)	3 (9,68)	5 (11,11)	29 (13,74)	<0,0001
Bilakaera epe ertain eta luzera											
GMI: Gorputz-masaren indizea. ECOG: Bizitza-kalitatea neurtzeko eskala (*Eastern Cooperative Oncology Group*). mMRC eskala: *British Medical Research Council*-en disnea eskala moldatua. AMEI: Aireztapen mekaniko ez-inbaditzailea. CPAP: Aire bideetan presio positibo jarraitua. AG: Arnas-gutxiegitasuna. HIES: Hartutako immunoeskasiaren sindromea

Aldagai kliniko eta analitikoak (Taula 29)

Larrialdietan neurtutako ezaugarri kliniko eta analitikoen artean, bi taldeek antzeko balioak izan zituzten: bihotz-maiztasuna ($100,94 \pm 23,62$ vs. $98,46 \pm 22,96$ tp; $p 0,1206$), AM ($22,82 \pm 8,29$ vs. $22,34 \pm 7,96$ am; $p 0,3413$), eta TAS ($134,79 \pm 32,01$ vs. $133,88 \pm 61,22$ mmHg; $p 0,0945$) ezberdintasun esanguratsurik gabe. Hala ere, berehalako taldean $p\text{CO}_2$ arterial altuagoa ($55,96 \pm 23,35$ vs. $49,57 \pm 17,43$ mmHg; $p < 0,0001$) eta pH baxuagoa ($7,36 \pm 0,1$ vs. $7,39 \pm 0,08$; $p < 0,0001$) ikusi ziren. APACHE II eskala bidez neurtutako larritasuna antzekoa izan zen bi taldeetan ($16,04 \pm 7,43$ vs. $15,21 \pm 5,91$ puntu; $p 0,0894$).

AEZUan ospitaleratzean, ordea, taldeen artean ezberdintasun esanguratsuak ikusi ziren bai konstante hemodinamiko bai parametro klinikoetan. Atzerapen taldeak bihotz-maiztasun altuagoa ($93,67 \pm 20,58$ vs. $91,05 \pm 19,36$ tm; $p 0,0147$) eta AM altuagoa ($23,74 \pm 6,60$ vs. $22,41 \pm 6,2$ am; $p 0,0004$) izan zituen. Gasometria arterialaren parametroei buruz, atzerapen taldean $p\text{CO}_2$ arterial altuagoa ($53,96 \pm 20,51$ vs. $51,12 \pm 18,41$ mmHg; $p 0,0350$), $p\text{O}_2$ arterial baxuagoa ($69,39 \pm 20,12$ vs. $74,77 \pm 30,58$ mmHg; $p 0,0018$) eta $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazio baxuagoa ($221,37 \pm 87,08$ vs. $235,86 \pm 93,91$; $p 0,0085$) antzeman ziren. Bestalde, honako ezberdintasun hauek ere ikusi ziren berehalako eta atzerapen taldeen artean: hematokritoa ($\%40,07 \pm 6,78$ vs. $\%39,05 \pm 6,73$; $p 0,0016$), urea ($55,16 \pm 35,03$ vs. $64,28 \pm 42,15$ mg/dL; $p 0,0001$), glukosa ($154,98 \pm 63,67$ vs. $168,87 \pm 78,78$ mg/dL; $p 0,0014$), albumina ($3,8 \pm 0,56$ vs. $3,72 \pm 0,58$ g/dL; $p 0,0024$) eta PDan ($\%79,37 \pm 24,25$ vs. $\%76,0 \pm 25,86$; $p 0,0155$). Azkenik, APACHE II eskalan larritasun handiagoa antzeman zen atzerapen taldean ($13,04 \pm 6,01$ vs. $11,89 \pm 5,48$; $p < 0,0010$).

Taula 29. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko analisi konparatiboa. Aldagai kliniko eta analitikoak.

Aldagaiak	Guztira N (%)	AEZUan onarpena		p
		Berehalako Taldea N (%)	Atzerapen Taldea N (%)	
GUZTIRA	1784	1285 (72,03)	499 (27,97)	
Aldagaiak Larrialdietan				
Aldagai klinikoak				
Tenperatura (°C)*	36,85 (0,81)	36,82 (0,81)	36,92 (0,83)	0,0248
Bihotz-maiztasuna (tm)*	100,25 (23,46)	100,94 (23,62)	98,46 (22,96)	0,1206
Arnasketa-maiztasuna (am)*	22,67 (8,19)	22,81 (8,29)	22,34 (7,96)	0,3413
TAS (mmHg)*	134,53 (42,36)	134,79 (32,07)	133,88 (61,22)	0,0945
TAD (mmHg)*	75,41 (23,02)	76,51 (25,16)	72,67 (16,19)	0,0027
Glasgow eskala*	14,78 (1,09)	14,77 (1,09)	14,79 (1,09)	0,1743
APACHE II larrialdietan*	15,81 (7,06)	16,04 (7,43)	15,21 (5,91)	0,0894
Aldagai analitikoak				
pCO ₂ arteriala (mmHg)*	54,19 (22,05)	55,96 (23,35)	49,57 (17,43)	<0,0001
pO ₂ arteriala (mmHg)*	59,54 (22,19)	60,33 (23,76)	57,45 (17,16)	0,1296
O ₂ asetasuna (%)*	84,65 (11,48)	84,41 (11,85)	85,25 (10,45)	0,7540
pH arteriala*	7,37 (0,09)	7,36 (0,10)	7,39 (0,08)	<0,0001
Leukozitoak (*10 ³ /μL)*	11,99 (5,65)	12,14 (5,64)	11,62 (5,69)	0,0233
Plaketak (*10 ³ /μL)*	233,97 (99,38)	236,41 (101,68)	227,67 (92,97)	0,0499
Hematokritoa (%)*	41,49 (6,62)	41,85 (6,61)	40,58 (6,59)	<0,0001
Kreatinina (mg/dL)*	1,11 (0,71)	1,09 (0,68)	1,14 (0,78)	0,5681
Sodio serikoa (mEq/dL)*	138,47 (4,51)	138,66 (4,31)	137,98 (4,97)	0,0070
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,58 (0,71)	4,61 (0,71)	4,52 (0,70)	0,0222
Glukosa (mg/dL)*	155,81 (87,05)	157,65 (93,49)	151,02 (67,41)	0,2976
PD (%)*	79,58 (26,19)	80,59 (25,63)	76,80 (27,51)	0,0045
Aldagaiak AEZUan ospitaleratzekoan				
Aldagai klinikoak				
Bihotz-maiztasuna (tm)*	91,78 (19,74)	91,05 (19,36)	93,67 (20,58)	0,0147
Arnasketa-maiztasuna (am)*	22,78 (6,34)	22,41 (6,20)	23,74 (6,60)	0,0004
TAS (mmHg)*	129,12 (23,68)	129,61 (23,39)	127,84 (24,37)	0,1203
TAD (mmHg)*	71,70 (15,59)	72,42 (15,48)	69,85 (15,72)	0,0008
Glasgow eskala*	14,69 (1,29)	14,75 (1,09)	14,55 (1,70)	0,0154
APACHE II AEZUan*	12,20 (5,64)	11,89 (5,48)	13,04 (6,01)	0,0010
Aldagai analitikoak				
pH arteriala*	7,39 (0,08)	7,38 (0,07)	7,38 (0,09)	0,1181
pCO ₂ arteriala (mmHg)*	51,91 (19,05)	51,12 (18,41)	53,96 (20,51)	0,0350
pO ₂ arteriala (mmHg)*	73,27 (28,17)	74,77 (30,58)	69,39 (20,12)	0,0018
PaO ₂ /FiO ₂ erlazioa*	231,85 (92,28)	235,86 (93,91)	221,37 (87,08)	0,0085
Leukozitoak (*10 ³ /μL)*	11,27 (5,38)	11,14 (5,23)	11,60 (5,76)	0,2016
Plaketak (*10 ³ /μL)*	217,55 (91,51)	216,20 (90,62)	221,08 (93,79)	0,5407

Aldagaiak	Guztira N (%)	AEZUan onarpena		p
		Berehalako Taldea	Atzerapen Taldea	
		N (%)	N (%)	
Hematokritoa (%)*	39,79 (6,78)	40,07 (6,78)	39,05 (6,73)	0,0016
Kreatinina (mg/dL)*	1,07 (0,66)	1,05 (0,62)	1,11 (0,74)	0,2843
Urea (mg/dL)*	57,69 (37,36)	55,16 (35,03)	64,28 (42,15)	0,0001
Sodio serikoa (mEq/dL)*	139,05 (4,18)	139,11 (3,97)	138,92 (4,68)	0,5130
Potasioa serikoa (mEq/dL)*	4,49 (0,66)	4,50 (0,66)	4,48 (0,66)	0,3418
Glukosa (mg/dL)*	158,85 (68,46)	154,98 (63,67)	168,87 (78,78)	0,0014
Bilirrubina (mg/dL)*	0,64 (0,53)	0,64 (0,49)	0,64 (0,64)	0,0093
Albumina (g/dL)*	3,78 (6,78)	3,80 (0,56)	3,72 (0,58)	0,0024
PD (%)*	78,46 (24,73)	79,37 (24,25)	76,0 (25,86)	0,0155

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra).

tm: taupada minutuko. am: arnasketa minutuko. TAS: Tentsio arterial sistolikoa. TAD: Tentsio arterial diastolikoa. APACHE II: Gaixotasunen larritasuna neurtzeko eskala (*Acute Physiology And Chronic Health Evaluation II*). PD: Protrona denbora. AEZU: Arnas aparatuen erdi-mailako zainketa unitatea

Ospitaleratze arrazoia (Taula 30)

Ez ziren ezberdintasun esanguratsurik antzeman AEZUko ospitaleratze helburu nagusiari dagokionez: AMEI terapia jasotzeko ospitaleratutako pazienteen proportzioa antzekoa izan zen bi taldeetan (%44,28 berehalako taldean eta %45,69 atzerapen taldean; p 0,5905).

Hala ere, ospitaleratzean izandako diagnostikoen banaketan ezberdintasunak ikusi ziren bi taldeen artean. Berehalako taldean, atzerapen taldearekin alderatuta, BGBK areagotzea (%24,75 vs. %17,03, p 0,0005) eta BTE (%20 vs. %14,23; p 0,0047) prebalenteagoak izan ziren; atzerapen taldean, berriz, BEA (%14,63 vs. %10,43; p 0,0129) eta BGI (%3,01 vs. %1,56; p 0,0475) proportzio handiagoan antzeman ziren. Irudia 19.

Taula 30. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko analisi konparatiboa. AEZUan ospitaleratzeko arrazoiak.

Aldagaiak	Guztira N (%)	AEZUan onarpena		p
		Berehalako Taldea	Atzerapen Taldea	
		N (%)	N (%)	
GUZTIRA	1784	1285 (72,03)	499 (27,97)	
AEZUra ospitaleratzeko helburua				
AMEI	797 (44,67)	569 (44,28)	228 (45,69)	0,5905




Aldagaiak	Guztira N (%)	AEZUan onarpena		p
		Berehalako Taldea	Atzerapen Taldea	
		N (%)	N (%)	
Diagnostikoa				
BGBK	403 (22,59)	318 (24,75)	85 (17,03)	0,0005
HOS	155 (8,69)	110 (8,56)	45 (9,02)	0,7580
BEA	207 (11,60)	134 (10,43)	73 (14,63)	0,0129
Pneumonia	363 (20,35)	248 (19,30)	115 (23,05)	0,0777
BTE	328 (18,39)	257 (20,00)	71 (14,23)	0,0047
Asma	85 (4,76)	61 (4,75)	24 (4,81)	0,9556
BGI	35 (1,96)	20 (1,56)	15 (3,01)	0,0475
Gaixotasun neuromuskularrak	26 (1,46)	17 (1,32)	9 (1,80)	0,4470
Beste patologia murritztaileak	31 (1,74)	21 (1,63)	10 (2,00)	0,5916
Beste batzuk	151 (8,46)	99 (7,70)	52 (10,42)	0,0643

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra).

AEZU: Arnas aparatuen erdi-mailako zainketa unitatea. AMEI: Aireztapen mekaniko ez inbaditzailea. ZIU: Zainketa intentsiboko unitatea. BGBK: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa. HOS: Hipopaireztapen obesitate sindromea. BEA: Biriketako edema akutua. BTE: Biriketako tronboembolismoa. BGI: Biriketako gaixotasun interstiziala.

Irudia 19. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko diagnostikoen banaketa.



Balioak talde bakoitzean diagnostiko bakoitzak duen pazienteen ehuneko gisa adierazten dira.

* ezberdintasun esanguratsuak ($p < 0,05$).

BGBK: Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa. HOS: Hipopaireztapen obesitate sindromea. BEA: Biriketako edema akutua. BTE: Biriketako tronboembolismoa. BGI: Biriketako gaixotasun interstiziala. Gaix. NML: Gaixotasun neuromuskularrak.

Konplikazioak eta bilakaera (Taula 31)

Atzerapen taldeak epe laburreko bilakaera okerragoa izan zuen: ZIUan ospitaleratze-tasa altuagoa izan zuen (%6,01 vs. %2,57; $p 0,0004$), AEZUko

egonaldi luzeagoa ($4,1 \pm 2,99$ vs. $3,79 \pm 3,09$ egun; p 0,0392), ospitale-egonaldi luzeagoa ($8,12 \pm 6,83$ vs. $7,09 \pm 5,9$ egun; p 0,0004), eta hilkortasun-tasa altuagoa ere (%13,43 vs. %5,76; p <0,0001). Aitzitik, epe luzearako bilakaeran ez zen ezberdintasun esanguratsurik ikusi, ez 30 eguneko berrospitaleratzean (%11,31 vs. %10,88; p 0,8063), ez 90 eguneko (%8,18 vs. %10,65; p 0,1198) eta urtebeteko hilkortasunean (%11,87 vs. %10,88; p 0,6011).

Taula 31. Berehalako eta Atzerapen taldeen arteko analisi konparatiboa.
Konplikazioak ospitaleratzean zehar.

Aldagaiak	Guztira N (%)	AEZUan onarpena		p
		Berehalako Taldea N (%)	Atzerapen Taldea N (%)	
GUZTIRA	1784	1285 (72,03)	499 (27,97)	
Konplikazioak ospitaleratzean zehar				
ZIUan ospitaleratzea	63 (3,53)	33 (2,57)	30 (6,01)	0,0004
AEZUko egonaldia (egunak)*	3,88 (3,07)	3,79 (3,09)	4,10 (2,99)	0,0392
AEZUko egonaldia (egunak)*	3 [2-5]	3 [2-5]	3 [2-5]	0,0392
Ospitale-egonaldia (egunak)*	7,38 (6,19)	7,09 (5,90)	8,12 (6,83)	0,0004
Ospitale-egonaldia (egunak)*	6 [4-8]	6 [4-8]	6 [5-9]	0,0004
Ospitale-barneko hilkortasuna	141 (7,90)	74 (5,76)	67 (13,43)	<0,0001
Bilakaera epe ertain eta luzera				
30 eguneko berrospitaleratzea	184 (11,20)	137 (11,31)	47 (10,88)	0,8063
90 eguneko hilkortasuna	145 (8,83)	99 (8,18)	46 (10,65)	0,1198
1 urteko hilkortasuna	174 (11,62)	132 (11,87)	42 (10,88)	0,6011

*Emaizak batezbesteko gisa aurkeztuak (desbideratze estandarra). *Emaizak mediana gisa aurkeztuak [kuartilarteko tartea].

ZIU: Zainketa intentsiboko unitatea. AEZU: Arnas-aparatuaren erdi-mailako zainketa unitatea.

VI. EZTABAIDA





Osasun-eremu ezberdinetan hilkortasunaren faktore pronostikoak aztertu dituzten hainbat ikerketa argitaratu dira, baina ikerketa hau AEZUetan faktore horiek aztertzen dituen lehenengoetarikoa da.

Ikerketa honen ekarpen nagusia honakoa da: praktika klinikoan erabil daitezkeen aldagai errazak identifikatu dira, heriotza probabilitate handiagoa duten pazienteak goiz antzemateko baliagarriak izan daitezkeelarik, eta ondorioz, neurri egokiak garaiz hartzea ahalbidetuz. Pazientearen oinarrizko egoerari buruzko informazioa ematen duten aldagaiak (adina, egoera funtzionala eta komorbilitateak), eta ospitaleratzean neurtutako aldagai kliniko eta analitikoak (ospitalizazio denbora, TAS, BM, AM, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa, leukozitoak, urea eta albumina) sartu dira. 11 aldagai erraz hauen konbinazioaren bidez, ospitale-barneko hilkortasuna aurreikusi daiteke, diskriminazio-ahalmen handiarekin.

Gainera, unitate hauetan ospitaleratutako pazienteen ezaugarri klinikoak definitu ahal izan dira, baita haien bilakaera ere, denbora-tarte luze batean zehar eta kohorte zabal batean oinarrituta.

Azkenik, arnas-patologia larria artatzen duten unitate hauetan, ospitaleratzean izandako atzerapenek pazienteen bilakaeran ondorio kaltegarriak dituztela ikusi da.



1. EMAITZEN INTERPRETAZIOA ETA LITERATURAREKIN KONPARAKETA

1.1. AEZUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarri kliniko eta epidemiologikoak

Ikerketa honek, ia hamarkada bateko epean AEZUan ospitaleratutako paziente kohorte handi baten (2.105 paziente) ezaugarriak aztertzen ditu. Kohortearen ezaugarri orokorrak aztertuta (ikusi Taula 6), ikus daiteke adin ertaineko populazioa dela (batezbesteko $69,20 \pm 12,61$ urte), eta gizonezkoen nagusitasuna dagoela (%59,89). Nahiz eta adin nagusiko biztanleria ez izan, muga funtzional moderatua dute (%55,67ak ECOG eskalan >1 puntuazioa du) eta arnas-mugapen esanguratsua (%57,11ak disnea >1 mMRC eta %33,97ak AG kronikoa du) nabarmentzen da. Horrez gain, komorbilitate-zama ertaina izan dute (ikusi Irudia 6): Charlson indizean puntuazio mediana 2 puntukoa da [1-3] eta pazienteen %27,93k 2 puntu baino gehiago ditu. Komorbilitaterik ohikoenak HTA (%57,81), biriketako gaixotasunak (%55,63) eta gaixotasun kardiobaskularrak (%47,46) dira. Unitatearen profila kontuan hartuta, arnas-patologia larria duten pazienteetan espezializatua, aurreikus daiteke biriketako gaixotasun kronikoaren prebalentzia handia, eta hau, askotan, gaixotasun kardiobaskularrekin lotuta agertzen da ¹⁵³.

Literaturan, AEZUan ospitaleraturako pazienteen ezaugarriak aldakorrak dira ikerketa ezberdinen artean. Honek unitateen estandarizazio faltaren eta maila asistentzialen erabilera heterogeneoaren islada izan daiteke. Espainian, Mallorcako AEZU batean Sala et al.-ek egindako ikerketa deskribatzaile batean ⁶⁷, gure kohortearen antzeko ezaugarriak aurkitu zituzten: batezbesteko adina 65 urtekoa eta %65 gizonezkoak. Bestalde, Heili-Frades et al.-ek Madrilgo AEZU batean ²⁰, adinez nagusiagoa zen populazioa (75 urteko batezbesteko adina) eta emakumezkoen nagusitasuna (%63 emakumezkoa) deskribatu zuten. Espainiatik kanpo, Confalonieri et al.-ek Triesten (Italia) egindako ikerketan ⁴⁵, gure datuen



antzeko emaitzak aurkitu zituzten: batezbesteko adina 69,8 urte eta %56,88a gizonezkoak. Hala ere, kohorte honetan komorbilitate-zama txikiagoa izan zen: HTA %8,9k soilik zuen eta %20,4k arnas-patologia. Confalonierik Italiako arnas-zainketa intentsibo unitateen berrikuspen multizentrikoa argitaratu zuen¹⁵⁴, baina maila asistentzialen arteko ezberdintasunek konparaketa zuzenak egitea mugatzen dituzte. Italian, unitate hauetan, AG duten pazienteak artatzen dira, beste organoren hutsegiterik gabe. Baina AMI ezartzeko aukera dagoenez, pazienteen profila aldatu egiten da. Horrela, berrikuste honetan 26 unitate eta 756 paziente barne hartu ziren, batezbesteko adina 68 ± 12 urtekoa zen, %63,5 gizonezkoak, eta komorbilitate-zama txikia zuten. Komorbilitate ohikoena kardiobaskularra izan zen, pazienteen %30ek pairatuz.

Larrialdietara iristean pazienteen egoera klinikoa aztertuta (ikusi Taula 7), ikus daiteke oro har egonkortasun hemodinamikoa eta kontzientzia maila ona dutela, baina arnas-funtzioaren narriadura nabaria da: takipnea, hipoxemia eta $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazio txarra, hiperkapnia eta pH normala. APACHE II eskalaren batezbesteko puntuazioak ($15,38 \pm 7,18$ puntu) ospitale-barneko hilkortasunaren arrisku ertaina adierazte du. AEZUan ospitaleratzean, egoera hemodinamikoa eta arnas-egoera antzera mantendu da, baina pO_2 , pCO_2 , eta APACHE II eskalan hobekuntza arina ikusi da ($12,31 \pm 5,60$ puntu). AEZUan ospitaleratzeko irizpide orokortua organo bakarreko hutsegitea den heinean (arnas aparatuarena) eta organo anitzeko hutsegitea duten pazienteak baztertu egiten direnez (ZIUan ospitaleratuz), aurkikuntza hauek literaturan argitaratutako aurreko lanen emaitzekin bat datoz^{3 7 66}.

Pazienteen ia erdia AMEI terapia hasteko ospitaleratuak izan dira (%43,37), eta gehiengoa Larrialdietatik (%61,05) eta ospitalizazio-solairutik (%31,59) lekualdatuak dira (ikusi Taula 8). Nagusitu den ospitaleratze eredua *step-up*-a izan da (ospitaleratzeen %92,64a), *step-down* eredua nabarmen txikiagoa izanik (%4,61). Azken puntu hau aipagarria da kontuan izanda unitate hauek hasieran,



ZIUan *weaning* prozesuan zeuden pazienteen egonaldia murrizteko helburuarekin diseinatuak izan zirela ^{37 38}. 1990ko hamarkadako unitateetan, AEZUetan ospitaleratutako pazienteen %47ra arte ZIUtik eratorritakoak ziren ¹⁵⁵; gaur egungo Espainiako ⁶⁷ eta Italiako ¹⁵⁴ kohorteetan, berriz, proportzioak gure kohortean ikusitakoa baino altuagoak dira (%12 eta %18, hurrenez hurren). Ezberdintasun hauen gakoa ospitaleen arteko ohe-kudeaketa ezberdina edo ZIUan ospitaleratze irizpide ezberdintasuna izan daiteke. Gure kasuan, AEZUan, batez ere AG duten pazienteak artatzen dira, ZIUko oheak beste patologia dituzten pazienteentzat libre utziz. Gainera, orokorrean gure ospitaleko ZIUan ohe-betetzea ez da altua, eta horrek pazienteen *weaning*-a bertan egitea ahalbidetzen du.

Diagnostikoei dagokionez (ikusi Taula 8 eta Irudia 7), pazienteen bi heren bost patologien ondorioz ospitaleratuak izan dira: BGBK (%21,90), pneumonia (%20,10), BTE (%16,48), BEA (%11,59) eta HOS (%8,55). Patologia ohikoena BGBK areagotzea izan da, AMEI terapiaren indikazio klasikoa baita. Hala ere, nabarmendu behar da pneumonia edo BTE moduko patologiek antzekoa proportzioa dituztela gure kohortean. Mallorcako AEZU batean egindako ikerketan ⁶⁷, BGBK zuten pazienteen proportzioa altuagoa izan zen (%47,1), BTE zuten pazienteena proportzioa baxuagoa (%4,9), eta pneumoniaren kasuan, antzekoa (%18,9). Gure AEZUa ez dago soilik AG eta AMEI tratamendura bideratua, baizik eta narriadura klinikoaren arriskua duten pazienteen monitorizazioan ere espezializatua dago. Adibidez, arrisku ertain-altuko BTE duten pazienteen kasuan, ezegonkortasun hemodinamikoa garaiz detektatu eta tratamendu tronbolitikoak ezarri ahal izateko helburuarekin monitorizatzen dira ¹⁵⁶. Antzeko planteamendua egiten da pneumonia duten pazienteekin: ospitaleratzearen helburua ezegonkortasun hemodinamikoa eta ondorioz shock septikora eboluzioa goiztiarra antzematea, edo arnas-funtzioaren narriadura eta HADS detektatzea da. Horrela tratamendu basoaktiboa edo IOTaren beharra aurreikusiko genuke ¹⁵⁷.



Gure kohortean, ospitale-barneko hilkortasuna %10,7koa izan da, 90 eguneko hilkortasuna %9,1ekoa eta urtebeteko hilkortasuna %11,93koa (ez metagarria) (ikusi Taula 9).

Ospitale-barneko hilkortasuna aldakorra izan da aurreko ikerketa ezberdinetan: Sala et al.-en kohortean ⁶⁷ gurearen antzeko hilkortasun-tasa dokumentatu zen (%9,7), aldiz, Heili-Frades et al.-en kohortean ²⁰ hilkortasun handiagoa izan zen (%16), seguruekin biztanleriaren adin nagusiagoarekin lotuta. Confalonieri et al.-en kohortean ⁴⁵, berriz, hilkortasun-tasa baxuagoa izan zen (%5,4), komorbilitate-zama apalagoarekin bat etorriz. Italiako ikerketa multizentriko batean ¹⁵⁴, zeinetan pazienteen %21,3k AMI zuten, hilkortasuna %18koa izan zen. Hilkortasun-tasa altuago hori AMI duten pazienteen heriotza-arrisku handiagoarekin azaldu daiteke ^{158 159}.

ZIUan ospitaleratze-tasa baxua da (%3,85) beste ikerketa batzuetan argitaratutako datuekin alderatuta (%5,5-7,8) ^{67 154}. Bestalde, 30 eguneko berrospitaleratze-tasa altua da (%11,63). Hala ere, ez daude berrospitaleratzeari buruzko daturik argitaratuta.

Ospitaleratze arrazoietara itzulita, pazienteen %43,47 AEZUan AMEI terapia hasteko ospitaleratua izan da, eta %56,63 monitorizazio helburuarekin. AMEia AEZUan ospitaleratzeko arrazoi klasikotzat hartzen da, izan ere, unitate hauen garapenaren arrazoietako bat izan da ¹⁵⁵. Hala ere, deigarria da pazienteen erdiak baino gutxiagok arrazoi horrengatik ospitaleratzea. Espainiako AEZUetako datuek adierazten dutenez, AMEIrako ospitaleratze-tasa %59 eta %77 artekoa da ^{20 67}, eta Italiako kohorteetan, berriz, %56 eta %63 bitartekoa ^{45 154}. Ezberdintasun horiek gure AEZUaren profilarekin erlazionatuta egon daitezke; izan ere, lehen adierazi bezala, gure unitatean BTE eta pneumonia duten pazienteen proportzioa handia da, eta kasu horietan hauetan AMEiaren beharra txikiagoa izaten da (%1,73 eta %18,2, hurrenez hurren, ikusi Taula 12).



Bi paziente taldeen ezaugarriak nabarmen ezberdinak dira (ikusi Taula 10). AMEIrako ospiatelatutako pazienteak adinez nagusiagoak dira eta egoera funtzional eta arnas-egoera okerragoa dute: oinarritzko disnea, AMEI kronikoaren erabilera eta AG kronikoaren presentzia aipagarriak dira. Era berean, komorbilitate-zama handiagoa dute (ikusi Irudia 8), bai ikuspegi orokorrean (mediana 2 [1-3] vs. 1 [0-2] puntu Charlson indizean; $p < 0,0001$), bai biriketako gaixotasunen (%74,70 vs. %41,02) eta gaixotasun kardiobaskularren prebalentzian (%59,91 vs. %37,92).

Larrialdietara iristerakoan zein eta AEZUan ospitaleratzerakoan, AMEla behar izan zuten pazienteek larritasun altuagoa zuten (APACHE II $19,37 \pm 6,10$ vs. $13,43 \pm 6,81$ puntu Larrialdietan eta $15,27 \pm 4,85$ vs. $10,05 \pm 5,06$ puntu AEZUan), pO_2 baxuagoa, pCO_2 altuagoa eta pH baxuagoa (ikusi Taula 11).

Diagnostikoei dagokionez (ikusi Taula 12 eta Irudia 9), ezberdintasun esanguratsuak antzeman dira: BGBK areagotzea (%38,01 vs. %9,56), HOS (%18,18 vs. %1,17) eta BEA (%19,28 vs. %5,7) aireztapen taldean nabarmenagoak izan dira; aldiz, pneumonia (%29,03 vs. %8,43) eta BTE (%28,61 vs. %0,66) maizago agertu dira monitorizazio taldean. Ikusitako ezberdintasun horiek, AMEIaren erabilera klinikorako indikazio klasikoekin bat datoz; izan ere, terapia honek BGBK areagotzearen, HOSaren eta BEAren ondoriozko AG hiperkapniko akutua duten pazienteen pronostikoa hobetzen duela frogatu da^{47 48 50 51}. Aitzitik, asma areagotzean¹⁶⁰ edo BGI areagotzean, oraindik ez dago AMEIaren erabilera gomendatuta. Bestalde, pneumonia zuten pazienteak, monitorizazioaren bitartez AG larriaren edo arnas-sepsiaren antzemate goiztiarra egiteko helburuarekin ospitaleratu ziren, hauek patologia honen konplikazio nagusienak baitira^{157 161}. Antzeko moduan, monitorizazioaren bidez arrisku ertain-altuko BTE duten pazienteetan okerragotze hemodinamikoa goiz detektatu eta, beharrezkoa izanez gero, fibrinolisiaren helburuz ZIUan ospitaleratzea baloratzea ahalbidetzen da^{156 162}.



Bilakaera klinikoari dagokionez, aireztapen taldeak pronostiko okerragoa izan du, ospitale-barneko hilkortasun-tasa altuagoarekin (%12,05 vs. %8,71) eta berrospitaleratze-tasa altuagoarekin (%14,45 vs. %9,56). Deigarria da nola, egoera kliniko eta bilakaera okerragoa izan arren, ZIUan ospitaleratze-tasa baxuagoa izan duten (%2,74 vs. %4,7). Litekeena da hori komorbilitate-zama handiagoarekin eta ez suspertzeko aginduaren indikazioarekin lotuta egotea. Hala ere, azkenengo aldagai hau ez da ikerketa honetan jasota egon. AMEI terapia jaso duten taldeetan deskribatutako hilkortasun-tasa aldakorra izan da, %16,2tik ²⁰ %32,4ra ¹⁴¹ bitartekoa izanik.

Laburbilduz, aireztapen taldeko pazienteak adinez nagusiagoak dira, oinarritzko egoera okerragoa dute eta komorbilitate gehiago aurkezten dituzte (bereziki arnas-gaixotasunak); ospitaleratzean larritasun handiagoa erakusten dute eta diagnostikoa nagusiak gaixotasun kroniko areagotuak dira (BGBK, HOS eta BEA), bilakaera kliniko okerragoarekin lotuta. Kontrara, monitorizazio taldeko pazienteak gazteagoak dira, komorbilitate gutxiago dute, eta ospitaleratzea patologia akutuen ondorioz gertatzen da (pneumonia eta BTE), larritasun baxuagoarekin eta bilakaera hobearekin.

Martinez-Ubistondo et al.-ek Iruñako EZU batean AMEI terapia jasotzeko ospitaleratutako pazienteen hilkortasunari buruzko ikerketa bat argitaratu zuten ¹⁴¹. Kohorteko pazienteen batezbesteko adina 68 ± 13 urtekoa izan zen, eta %62,7a gizonezkoak ziren. AMEIaren hasierarako ohiko patologiak honako hauek izan ziren: AG hipoxemikoa (%56,85), BGBK (%18,25) eta BEA (%17,01). Hilkortasun-tasa nabarmenki altua izan zen (%32,4).

Hukins et al.-ek, berriz, Australiako AEZU batean AG hipoxemikoa eta hiperkapnikoa zuten pazienteak aztertu zituzten ⁶⁸. Ikerketa honetan, AG hipoxemikoa zuten pazienteen %28k AMEI behar izan zuten; AG hiperkapnikoaren kasuan, berriz, %86,5ek. Hortaz, ikerketa honetako emaitzak gure analisiarekin parekatu daitezke, AMEI vs. monitorizazio taldeen konparaketa



gisa ulertuta. Gure aurkikuntzekin bat etorriz, AG hiperkapnikoa zuten pazienteak adinez nagusiagoak ziren (66,8 vs. 62,9 urte; $p < 0,05$), eta gaitasun funtzional okerragoa zuten. Halaber, ZIUan ospitaleratze-tasa baxuagoa izan zuten (%5,6 vs. %18,1; $p 0,06$). AG hiperkapnikoaren kasuan, nagusitu zen diagnostikoa BGBK izan zen (%65), eta AGA hipoxemikoaren kasuan, pneumonia (61%), gure kohortean ikusi den banaketarekin bat etorriz. Azkenik, ikerketak adierazi zuen AMEIaren beharra hilkortasunarekin kotutako faktorea zela, kohorte osoa kontuan hartuta.

Diagnostikoaren arabera pazienteak aztertzerakoan, ezaugarrietan eta bilakaeran ezberdintasun esanguratsuak antzeman dira (ikusi Taula 14). BGBK izan da diagnostikorik ohikoena (%21,90), eta pazienteek profil zehatz bat aurkezten dute: gizonezkoen nagusitasuna (%82,65), oinarritzko egoera eta arnas-egoera ahula (%72,91ak ECOG >1 eta %69,85ak AG kronikoa dute) eta komorbilitate-zama esanguratsua (pazienteen %34,71ak Charlson indizean >2 puntu dituzte). Ospitaleratzearen arrazoia nagusiki AMEIaren beharra izan da (%75,27) eta pazienteek larritasun klinikoa dute AEZUan sartzerakoan (APACHE II $14,84 \pm 4,52$ puntu). Ospitale-barneko hilkortasuna ertaina da (%8,46), baina urtebeteko hilkortasuna %19,21era igotzen da. Nazioarteko ikerketek antzeko aurkikuntzak erakusten dituzte. Italiako ikerketa batek AEZUan eta ZIUan ospitaleratutako BGBK pazienteak konparatu zituen ³⁴: gizonezkoak nagusi (%72,3), pazienteen %81,5ek AMEia jaso zuten eta ospitaleko hilkortasuna %7,7 izan zen. Bestalde, Txinan arnas-ZIU batean egindako ikerketa batean ¹⁶³, pazienteen batezbesteko adina $78,2 \pm 8,2$ urtekoa izan zen, %72,9 gizonezkoak ziren eta ospitale-barneko hilkortasuna %11,5koa izan zen. Komorbilitate ohikoenak arnas-gaixotasunak izan zen (%76,6), ondoren HTA (%55,7) eta gaixotasuna koronarioa (%29,9). Gure kohortean, komorbilitate kardiobaskularraren presentzia altua izan da (%49), eta litekeena da horrek epe luzeko hilkortasunean eragina izatea. Zeinbait ikerketek frogatu dute BGBK areagotzea, bereziki aurrekari kardiobaskularrak dituzten pazienteentan, ospitaleratze osteko lehen 30 egunetan gertakari



kardiobaskularren areagotzearekin erlazionatuta dagoela, eta erlazio hori urtebete igarota mantentzen dela ^{164 165}.

Asma duten pazienteek, bestalde, beste profil bat aurrezketen dute: emakumezkoen nagusitasuna (%72,16), batezbesteko adin baxuagoa ($60,29 \pm 19,79$ urte) eta komorbilitate gutxiago (%11,34k Charlson indizean >2 puntu dituzte). Paziente gehienak monitorizaziorako ospitaleratu dira (%56,70), nahiz eta %43,30ek AMEI terapia behar izan duen. Ospitale-barneko hilkortasuna baxua da (%8,25), eta urtebeteko hilkortasuna ere baxuagoa (%7,32). Eraitza hauek bat datoz Núñez et al.-ek Mallorcako AEZU batean ospitaleratutako asmatikoen kohortean aurkitutakoekin ¹⁶⁶: batezbesteko adina antzekoa izan zen (58 ± 21 urte) eta emakumezkoen nagusitasuna ere agerian geratu zen (%65). Gure kohortean, nabarmentzekoa da AMEIa behar izan duten asmatikoen proportzio altua dela (%43,30 vs. %27 Nuñez et al.-en kohortean). Asmaren kasuan AMEIaren erabilera eztabaidagarria da ¹⁶⁰, kalitatezko ebidentzia faltagatik. Hala ere, zeinbat onura proposatu izan dira: brokozabalkuntza hobetzea, arnas-botatze amaierako presio positibo intrintsekoaren (PEEP) indargabetzea, kolapsatutako albeoloak erreklutazioa, aireztapen/perfusioaren arteko erlazioaren optimizazioa eta arnasketa lanaren murrizketa. Autore batzuen arabera, AEZU edo ZIU bezalako ingurune espezializatuetan, AMEIaren erabilera segurua izan liteke hautatutako pazienteengan ¹⁶⁷. Gure datuek hipotesi hori babesten dute: ez dira ZIUan ospitaleratze-tasa alturik izan (%4,12), ezta ospitale-barneko hilkortasun handirik ere (%8,25). Hau, agian, AGA hiperkapnikoa duten pazienteetan AMEIaren erabilerarekin lotuta egon liteke, gure kohortean Larrialdietara iristerakoan pCO_2 arteriala nahiko altua baita ($56,03 \pm 22,62$ mmHg). Nuñez et al.-en ikerketan ospitale-barneko hilkortasun baxuagoa izan zen (%5 vs. %8,25), nahiz eta bi ikerketetan asmaren ondorioz ZIUan ospitaleratutako pazienteetan dokumentutako hilkortasuna baino baxuagoa izan (%10-25) ⁹⁰.



Pneumonia izan zen bigarren diagnostikorik ohikoena (%20,10). Oro har, paziente hauek erasan funtzional mugatua dute (%41,11k baino ez du ECOG >1) eta komorbilitate-zama ertaina (%27,42ak bakarrik du Charlson indizean 2 puntu baino gehiago). Ospitaleratzerakoan larritasun kliniko baxuagoa dute, beste diagnostiko batzuekin alderatuta, APACHE II eskalan 11.58 ± 5.52 puntu izan baitzituzten. Ospitaleratzearen helburu nagusia monitorizazioa izan da (%81,80). Pazienteen proportzio garrantzitsu bat ospitalizazio arruntetik lekualdatu da (%34,99), eta horrek ospitaleratzean atzerapen esanguratsua ekarri du (%11,82k >48 orduko ospitale-egonaldiaren ondoren sartu baita AEZUra). Ospitale-barneko hilkortasuna esanguratsua izan da (%10,87), eta 90 eguneko eta urteko hilkortasuna, hurrenez hurren, %5,31 eta %6,44 izan dira (balio ez metagarriak). Gaur egun ez dago AEZUan, ZIUan edo ospitalizazio arruntan pneumoniagatik ospitaleratutako pazienteen hilkortasuna epe labur edo ertainera konparatzen duten ikerketarik. Hala ere, ikerketa multizentriko batzuetan ospitalizazio arrunteko eta ZIUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarri klinikoak konparatu zituzten, ZIUan ospitaleratutako pazienteek 30 eguneko hilkortasun handiagoa izan zuten (%23 vs %4), eta 90 egunekoa ere bai (%28 vs %8) ¹⁶⁸. Gure ikerketan ikusitako hilkortasun-tasek, bai ospitale-barnekoak bai 90 egunekoa, ospitalizazio arrunteko eta ZIUko pazienteetan arteko balio bitartekoa erakusten dute. Ezberdintasun hau, neurri batean behintzat, ZIUetan emandako AMI tasa altuari esleitu dakioke. Hala ere, gaur egun AMIren identifikazioa hilkortasun-faktore moduan eztabaidagarria da ^{169 170}. Gainera, HADSa ohikoagoa da ZIUan ospitaleratutako pneumonia duten pazienteetan ¹⁷¹. Interesgarria da gure kohortean urtebeteko hilkortasuna aztertzea (%11,75a metagarria); zentro berean ospitalizazio arrunteko ikerketa batean ikusitakoarekin alderatuta ez baita altuagoa (%10,63) ¹⁷². Hala ere, beste kohorte batzuetan hilkortasun-tasa altuagoak ikusi dira, batzuetan %30,6rainokoak ¹⁷³. Epe luzeko hilkortasunarekin lotutako faktoreetan sakontzen duten ikerketak beharrezkoak dira. Uranga et al.-en ikerketan ¹⁷², adina, demenzia edo bihotz-gutxiegitasuna identifikatu ziren



determinatzaile nagusi gisa. Menéndez et al.-en moduko ikerketetan ¹⁷⁴ ikusi da miokardioko markatzaileek gora egiten dutela pneumonia duten pazienteetan, eta hau epe labur eta luzeko gertakari kardiobaskularrekin erlazionatuta dagoela. Modu berean, aditu batzuek *inflammaging* kontzeptua proposatu dute: zahartze azkartuarekin eta hilkortasun goiztiarrarekin erlazionatua hantura kroniko subklinikoa iraunkorra ¹⁷⁵. Honek etorkizuneko gertakari kardiobaskularrak eragin ditzake.

Hilkortasunari dagokionez (ikusi Irudia 10), BGI duten pazienteek dute ospitale-barneko hilkortasunik altuena (%31,82). Nahiz eta ez izan adin oso alturik ezta komorbilitate-zama handirik ere, paziente hauek larritasun kliniko nabarmenarekin ospitaleratu dira (APACHE II $14,32 \pm 4,66$ puntu), AGA hipoxemiko larriarekin ($\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa $167,34 \pm 74,25$). Esanguratsua da Larrialdietatik zuzenean AEZUra ospitaleratutako pazienteen proportzio txikia: %30,30a soilik zuzenean lekualdatua. Hilkortasun-tasa hau zertxobait altuagoa da Madrilgo ospitale bateko AEZUan deskribatutakoarekin alderatuta (%27,4) ¹⁷⁶; bertan ere hilkortasun handia antzeman zen, bereziki ez suspertzeko agindua zuten eta biriketako transplantearako hautagai ez ziren pazienteen artean. Hau paziente hauen larritasuna gutxietsita egon daitekeelaren seinale izan daiteke. Nahiz eta paziente hauen hilkortasun handia aurretik dokumentatua egon den ^{91 92 93 94}, badirudi AEZUan ospitaleratzearen premia ez dela beste diagnostiko batzuetan bezain erraz identifikatzen. Azpimarratzekoa da AMEI terapia pazienteen %19,7ak baino ez duela jaso. AEEI terapien artean, ez da frogatu bakar bat ere hilkortasuna murrizteko gai denik BGI areagotzea duten pazienteentan ¹⁷⁷. Hala ere, ikerketa batean AMEI terapia eta, BGiaz gain, pneumonia zuten pazienteetan oxigenazioaren hobekuntza ikusi zuen ¹⁷⁸. Madrilgo kohortean, pazienteen %94ak SKFAT jaso zuen, eta %14ak AMEIarekin konbinatutako terapiak behar izan zituen, batez ere arnas azidosia zuten kasuetan. Gainera, paziente hauek epe luzerako hilkortasun esanguratsua izaten dute: 90 egunera %15,56 eta urtebetera %18,42 (ez metagarria). Datu horiek



aurretik argitaratutako ikerketekin bat datoz^{92 179}. Dena den, pirfenidona eta nintedanib moduko medikazio antifibrotikoen erabilera gero eta zabalduagoari esker, paziente hauen erdi-luzeko pronostikoa hobetzen ari da, birika funtzioaren gainbehera motelduz eta hilkortasuna potentzialki murriztuz^{180 181 182 183 184}.

Bestalde, ospitale-barneko hilkortasun-tasarik baxuena duten pazienteak BTE dutenak dira (%3,17). Talde honen ezaugarri nagusiak dira oinarrizko egoera hobe eta komorbiditate-zama txikiagoa (%30,88k ECOG >1, eta %9,22k Charlson indizea >2 puntu). Larritasun klinikoa ere nabarmen baxuagoa da (APACHE II $8,32 \pm 4,13$ puntu), eta paziente gehienak monitorizazio helburuarekin AEZUan onartu dira (%98,27). Ez dago AEZUan BTE duten pazienteen ezaugarriak aztertzen dituzten ikerketarik. Hala ere, ZIUan ospitaleratutako pazienteekin alderatuz gero, unitate horietan hilkortasun-tasak nabarmen handiagoak direla ikusten da, %14,1 eta %52,9 arteko tartean; eta pazienteen proportzio handi batek AMIaren beharra izaten du (%18,3-%74,7)^{185 186}. Ondorioz, datu hauek arrisku ertain-altuko BTE duten pazienteen maneia AEZUan egitearen segurtasunaren ideia indartzen dute, monitorizazio estua bermatuz eta behar izanez gero ZIUra lekualdaketa ahalbidetuz (gure ikerketan %2,02an gertatu zen hori).

Laburbilduz, alde batetik "komorbido" profila duten pazienteak identifika daitezke, bereziki BGBK eta BEA dutenak. Paziente hauek komorbiditate-zama handia eta, ondorioz, ahultasun nabarmena eta ospitale-barneko hilkortasun handia dute. Bestetik, BTE edo pneumonia bezalako patologia akutua duten pazienteak daude: komorbiditate txikiagoa dute, baina horrek ez du pronostiko hobe esan nahi. Izan ere, BTE dutenengan hilkortasun-tasa baxua bada ere, pneumonia dutenengan %10,87ra igotzen da. Aurkikuntza hauek arriskuaen estratifikazio egokiaren beharra erakusten dute, eta AEZUan ospitaleratzearen beharra indartzen dute, paziente hauen monitorizazio egokia ziurtatzeko.

Azkenik, bereziki adierazgarria da BGI eta gaixotasun neuromuskularrak bezalako gaixotasun kronikoek dakarten arrisku iraunkorra. Paziente hauek



berrospitaleratze-tasa eta epe luzerako hilkortasun altua dute. Aurkikuntza honek ospitaleko alta osteko jarraipen estuaren garrantzia azpimarratzen du, paziente hauen pronostikoa hobetzeko.

1.2. 10 urteetan zehar AEZUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarriak

Ikerketaren 10 urteetan zehar egindako analisi konparatiboan, ez daude ezberdintasun kliniko esanguratsuak identifikatu ez ezaugarri soziodemografikoetan, oinarritzko ezaugarrietan, ezta ezaugarri klinikoetan ere (ikusi Taula 14, 15, 16 eta Irudia 11). Bilakaera klinikoari dagokionez, AEZUko ospitaleratze-egonaldiaren luzapenaren joera identifikatu da ($3,79 \pm 2,59$ egun lehenengo garaian vs $4,36 \pm 4,17$ egun hirugarren garaian; $p 0,0353$). Hala ere, ospitale-egonaldi orokorrean ez da luzapen esanguratsurik antzeman ($7,43 \pm 7,02$ egun lehenengo garaian vs. $8,02 \pm 7,72$ egun hirugarren garaian; $p 0,1797$). Halaber, ospitale-barneko hilkortasunaren murrizketarako joera nabarmendu da (%11,22 lehenengo garaian vs. %8,29 hirugarren garaian; $p 0,0609$), nahiz eta esangura estatistikoa ez den lortu.

Laburbilduz, ikertutako garaian zehar ez dira aldaketa esanguratsurik identifikatu oinarritzko ezaugarriei nahiz ezaugarri klinikoei dagokionez, ezta bilakaeran ere. Nahiz eta denbora-tarte luzea izan, baliteke ez izatea nahikoa luzapena biztanleriaren ezaugarrien aldaketak antzemateko edo bilakaera klinikoan diferentziak antzemateko. Are gehiago, kontuan hartuta 2007 eta 2016 urteen artean ez zela aurrerapen esanguratsurik gertatu arnas-medikuntzaren arloan. Bestalde, berriki egindako analisi batek, 2020 eta 2022 urteak barne hartzen dituen, emaitza ezberdinak ekar litzake, COVID-19aren eraginpean AEZUan ospitaleratutako pazienteen ezaugarriek aldaketa nabarmena izan baitzuten. Adibidez, Bartzelonako AEZU batean 2020ko martxoan eta apirilean egindako ikerketa batean¹⁴², SARS-CoV-2ak eragindako pneumonia zuten pazienteak



aztertu ziren; hilkortasun handia izan zen (%31,6) eta ZIUra lekualdatze-tasa nabarmena ere (%36,4). Pazienteen %65,2ek AEEI terapien bidezko tratamendua jaso zuten, eta %52,6ak AMEI terapia.

1.3. Ospitale-barneko hilkortasunarekin lotutako faktoreak

Ikerketen emaitzek erakusten dute AEZUko ospitale-barneko hilkortasunean hainbat aldagai soziodemografiko, funtzional, kliniko eta analitikok eragina dutela.

Gure kohorteko ospitale-barneko hilkortasuna (*step-down* bidez ospitaleratutako pazienteak baztertuta) %10,10koa izan da. Analisi deskribatzaileak (ikusi Taula 19-22) ospitale-barneko heriotza izan duten pazienteen taldean gizonezkoak nagusi direla (%66,67) eta adinaz nagusiagoak zirela (batezbesteko $75,08 \pm 10,29$ urte) erakutsi zuen. Halaber, oinarritzko egoera funtzional okerragoa dute (%80,21ak ECOG >1 eta %74,56ak disnea >1), eta komorbiditate-zama altuagoa (Charlson indizea $2,60 \pm 2,01$ puntu) (ikusi Irudia 13). AEZUan ospitaleratzerakoan larritasun klinikoa handiagoa dute (APACHE II $16 \pm 5,48$ puntu) eta arnas-egoera okerragoa (pO_2 arteriala, PaO_2/FiO_2 erlazioa, pCO_2 arteriala). Pazienteen gehienak ospitalizazio arruntetik lekualdatuak izan dira (%58,71) eta proportzio esanguratsu bat (%25,37) 48 orduko ospitale-egonaldiaren ostean AEZUra lekualdatu ziren. Heriotza izan zuten pazienteen artean, diagnostikorik ohikoena pneumonia izan da (%21,39). Hala ere, bizirik iraun duten pazienteekin alderatuz, BEA (%19,40 vs. %10,9) eta BGI (9,95% vs. 2,49%) diagnostikoen maiztasun altuagoa hauteman da heriotza-taldean (ikusi Irudia 14). Gainera, talde honetan ZIUan ospitaleratze-tasa handiagoa izan da (%9,95).

Aldagai bakarreko analisiak (ikusi Taulak 23-26 eta Irudia 15) ospitale-barneko hilkortasunarekin erlazionatutako hainbat faktore identifikatzea ahalbidetu du. Besteak beste, adin aurreratuak, gizonezkoa izateak eta oinarritzko egoera



funtzional okerragoak (ECOG >1 eta oinarritzko disnea >1) amaiera txarrarekin lotura estatistiko sendoa dutela ikusi da. Era berean, hainbat komorbiditatek hilkortasun-arriskua areagotzen dutela frogatu dute: gaixotasun kardiobaskularrak, biriketako gaixotasun kronikoak, gibelesko gaixotasunak, giltzurrunetako gaixotasunak eta gaixotasun onkologikoak. Alde klinikoaren artean, takipnea, takikardia, hipoxemia eta asaldura metabolikoek hilkortasunarekin lotura esanguratsua erakutsi dute. AMEI terapia jasotzeko ospitaleratutako pazienteek, bereziki ospitalizazio arruntetik eratorritakoak eta 48 orduko ospitale-egonaldiaren ondoren AEZUra lekualdatu direnak, hilkortasun-tasa altuagoa izan dute. Diagnostikoei dagokionez, BEA eta BGI duten pazienteentan hilkortasunaren nabarmen handiagoa izan da (ikusi Irudia 15). Emaitza horiek oinarri hartuta, aldagai anitzeko analisirako aldagaiak aukeratu ziren.

Aldagai anitzeko analisiaren bidez, faktore nahasleengatik doitu ostean, ospitale-barneko hilkortasunean eragina duten faktore esanguratsuak identifikatu ditugu (ikusi Taula 27 eta Irudia 16). Identifikatutako hilkortasunaren faktore pronostikoak honako hauek izan dira: adin aurreratua, oinarritzko egoera funtzional okerra (ECOG eskala bidez neurtua), komorbiditate-zama altua (Charlson indizearen bidez neurtuak), BM altua eta baxua, takipnea, hipotentsio arteriala, oxigenazio txarra ($\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioaren bidez neurtua), leukozitosis, urea maila altua, albumina baxua eta ospitaleratzearainoko denbora luzea.

Adina

Gure ikerketan, adin altua, bereziki 80 urte baino gehiago dituzten pazienteetan, ospitale-barneko hilkortasunarekin modu esanguratsuan erlazionatu da [OR 1,56 (1,06-2,29)]. Aurkikuntza hau zahartzearekin batera ematen den estres egoerei erantzuteko gaitasunaren murrizketarekin lotu daiteke, sistema immunologikoaren gainbeherarekin bereziki eragiten (immunoseneszentzia), eta horrek infekzioen aurkako defentsa-mekanismoak ahultzen ditu^{187 188 189}.



Gure emaitzek aurreko literaturan jasotako datuekin bat egiten dute, zeinetan adina hilkortasunaren faktore pronostiko gisa identifikatu den ^{190 191}, bereziki egoera kritikoan ospitaleratutako pazienteen artean. Testuinguru honetan, ZIUetan gehien erabiltzen diren eskala pronostikoek, hala nola APACHE II ¹⁰⁵ eta SAPS II ¹⁰⁶, adina epe laburreko hilkortasunarekin lotutako aldagai gisa hartzen dute.

Arnas-patologia duten pazienteetan, hala nola komunitatean hartutako pneumonia ^{120 121} eta BTE ¹²⁶, adina bilakaera kliniko okerragoarekin lotuta agertu da. Halaber, Osloko EZU batean eginda ikerketa batean ⁷³, adina hilkortasunaren faktore independente gisa identifikatu zen, adinaren arabera %6ko hilkortasun-igoera erakutsiz urte bakoitzeko, eta eragin jarraitu eta metagarria nabarmenduz.

Aurkikuntza hauek guztiek adina faktore kritiko gisa kontuan hartzearen garrantzia azpimarratzen dute pazienteen ebaluazio pronostikoan, bereziki arnas-patologia duten kasuetan.

Oinarrizko egoera funtzionala (ECOG)

Gure ikerketan, oinarrizko egoera funtzionalak, ECOG eskala bidez neurtua, hilkortasunarekin lotura indartsua erakutsi du [OR 2,28 (1,45-3,59) ECOG >1]. Narriadura funtzional handiagoa duten pazienteek pronostiko okerragoa dute. Erlazio hau zaugarritasun handiagoarekin eta muga funtzionala duten pazienteek tratamendu agresiboari ematen dioten erantzun mugatuarekin azal daiteke.

ECOG eskala, hasiera batean paziente onkologikoentzako diseinaturia izan bazen ere ¹⁹², epe labur eta ertaineko hilkortasunaren aurreikuslea fidagarri gisa balio du eszenatoki kliniko askotan, paziente kritikoaren artean barne. Adinez zaharrak ziren komunitatean hartutako pneumonia zuten pazienteak barne hartzen zituen ikerketa batean, ECOG 3 edo 4 izateak 30 eguneko hilkortasuna laukoizten zuela erakutsi zen ¹⁹³, gure ikerketarekin bat datorren emaitza. Ikerketa horrek



indartzen du ideia hau: larritasuna eta pronostikoa ebaluatzean, oinarritzko egoera funtzionala kontuan hartzea funtsezkoa dela.

Komorbilitateak (Charlson indizea)

Gure kohortean, komorbilitate-zama handiagoa, Charlson indizearen bidez neurtua, hilkortasunaren areagotze esanguratsuekin lotuta dago, patologien eragin metagarria erakutsiz [OR 1,16 (1,04-1,29)]. Nahiz eta Charlson indizea hasiera batean epe luzeko hilkortasuna (10 urte) auresateko diseinatua izan zen ¹⁴⁶, bere erabilera patologia akutua duten pazienteen komorbilitate-zama ebaluatzeko hedatu da. Hala ere, eskala honek aurreikuspen-ahalmen txikiagoa du paziente kritikoetarako bereziki diseinatutako eskalekin alderatuta, hala nola APACHE II eskalarekin. Azken honek, patologia akutuarekin zuzenki erlazionatutako aldagaiak barne hartzen baititu ¹⁹⁴.

Osloko EZU batean egindako ikerketa batean ⁷³, gure ikerketan ikusitakoaren antzeko Charlson indizearen eta hilkortasunaren arteko lotura agertu zen (OR 1,35). Ezberdintasun horiek, kohorteen ezaugarri bereizgarriekin lotuta egon daiteke; izan ere, gure analisian gaixotasun kardiobaskular eta arnas-gaixotasun prebalentzia altua antzeman zen, eta horrek komorbilitateek hilkortasunean duten efektu metagarriaren murrizketa ekar lezake.

Gainera, ikerketa batzuek komorbilitate espezifikoak hilkortasunaren faktore independente gisa identifikatu dituzte. Esaterako, Iruñako EZU batean egindako ikerketa batean ⁷¹, minbizi metastasikoa eta immunosupresioa hilkortasuna esanguratsuki areagotzen zuten komorbilitate independente gisa hauteman ziren. Talde berek, AMEI terapiaren beharra zuten pazienteen analisia ere egin EZUan zuten ¹⁴¹, eta bertan immunosupresioa eta aurrekari gisa BGBK izatea hilkortasunarekin erlazionatutako aldagai moduean identifikatu zituzten.

Guk geuk, aldagai bakarreko analisian, komorbilitate guztiak hilkortasunarekin zuzenean erlazionatuta ez daudela ikusi dugu. Gaixotasun kardiobaskularrak,



biriketako gaixotasunak, gibleko gaixotasunak, giltzurrunetako gaixotasunak, gaixotasun zerebrobaskularrak eta minbizia izan dira hilkortasunean eragina izan dutenak. Patologia horien arteko korrelazioa kontuan hartzean, adibidez gaixotasun kardiobaskularrek eta biriketako gaixotasunek batera agertzeko joera izanik, gure ikerketak komorbilitateen eragin metatua banakako eragina baino handiagoa izan daitekeela erakutsi du.

Aurkikuntza hauek guztiek, komorbilitateen garrantzia nabarmentzen dute AEZUan ospitaleratutako pazienteen ebaluazio pronostikoan, ez bakarrik modu indibidualean, baizik eta interakzio metagarria kontuan hartuta.

Aldagai klinikoak

Gure ikerketan, AEZUan ospitaleratzerakoan izandako asaldura klinikoek hilkortasunarekin erlazio esanguratsua erakutsi dute. Ezegonkortasun hemodinamikoa eta arnasketakoa islatzen duten takikardia (>100 tm) [OR 1,95 (1,33-2,86)], takipnea (>30 am) [OR 2,89 (1,89-4,43)] eta hipotentsio arteriala (<90 mmHg) [OR 2,51 (1,20-5,23)], heriotzaren arrisku handiagoarekin lotu dira. Gainera, hipoxemia larriak, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa ≤ 100 gisa definitua, gure kohortean hilkortasun-arriskua bost aldiz handitzen du [OR 5,05 (2,04-12,52)].

Bihotz-maiztasuna eta tentsio arteriala egoera hemodinamiokoaren adierazle nagusiak dira, eta horregatik, aldagai hauek ZIUan gehien erabiltzen diren larritasun eskaletan sartuta daude hilkortasunaren faktore pronostiko moduan ^{105 106 107}.

Pneumonia duten pazienteetan, hipotentsioa shock septikorako bilakaeraren adierazle izan daiteke, eta hilkortasunaren faktore pronostiko gisa identifikatu da ^{120 121 123}. Era berean, ZIUko hainbat ikerketek hipotentsioa shock septikoa duten pazienteen hilkortasunarekin erlazionatu dute ¹⁹⁵. Antzera, BTE duten pazienteetan, takikardia eta hipotentsio arteriala, arrisku altuko BTEaren adierazle, hilkortasun handiagoarekin lotu dira ^{126 128}.



Gure ikerketan ez bezala, beste erdi-mailako zainketa unitate batzuetan egindako ikerketetan, aldagai horiek ez dira heriotzaren aurreikusle modura identifikatu. Hau, ziurrenik, pazienteen profil ezberdintasunarekin azal daiteke. Gure kohortean, BTE eta pneumonia duten pazienteen proportzio altua dago, eta horietan ezegonkortasun hemodinamikoa ohikoagoa da eta pronostiko okerragoarekin lotzen da.

Gogora dezagun AEZUan ospitaleratutako pazienteek, hasiera batean, organo bakarreko hutsegitea izan behar luketela, arnas-aparatuarena. Hortaz, BMaren igoera edo Taren jaitsiera, organo anitzeko hutsegiterako progresioaren adierazle izan daiteke, eta neurri terapeutiko agresiboagoak beharko lirateke.

Arnasketarekin erlazionatutako parametroei dagokionez, bai AMak bai $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioak, hilkortasunarekin erlazio sendoa erakutsi dute. AM altua, arnasketa lan handiagoaren seinale, pneumonia^{120 121 123}, BTE^{126 128} eta BGBK¹³¹ duten pazienteen hilkortasunaren arrisku-faktore gisa identifikatu da.

AMEI tratamendua duten pazienteetan, AM altua terapiaren porrot goiztiarrarekin lotu da: AM >25 am AGA hipoxemikoaren kasuan eta AM >35 am AGA hiperkapnikoan¹³⁶. Antzera, SKFAT erabileran, AM ROX indizeko aldagai gisa hartzen da¹³⁷, eta terapiaren porrotarekin eta IOTaren beharrarekin erlazionatuta dago.

Madrilgo AEZU batean egindako ikerketa batean²⁰, gure emaitzen antzera, AM >24 am izateak hilkortasuna bost aldiz handitzen zuela ikusi zen. Gure ikerketan, ebakipuntu handiagoa erabilita (>30 am), hilkortasun-arriskua %2,89 handitu zen, AM eta hilkortasunaren arteko dosi-erantzun erlazioa indartuz.

Oxigenazioari dagokionez, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazio baxua AG larriaren markatzaile nagusietako bat da eta paziente kritikoen hilkortasun-faktore pronostiko moduan identifikatu da, ZIUKo eskala guztien parte izanik^{105 106 107}. HADSa duten pazienteetan, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazio baxua hilkortasunaren areagotzearekin lotu da.



1.303 pazienteko kohorte bateko ikerketa batean, erlazioaren jaitsiera progresiboarekin hilkortasunaren igoera ere progresiboa izan zen ¹⁹⁶. Azken metaanálisi batek, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ 200 erlazioak %83,2ko sentzibilitatea zuela hilkortasuna aurreratzeko ondorioztatu zuen ¹⁹⁷.

Gure ikerketan ikusi da $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa gero eta baxuagoa izan, orduan eta altuagoa dela hilkortasuna; erlazioa <100 izatean arriskua bost aldiz handituz. Hau bat dator aurrera begirako ikerketa multizentriko bateko emaitzekin, non $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa ≤ 146 AMEI hasi eta ordu batera terapiaren porrotarekin eta IOT beharrezarekin lotu zen ¹⁹⁸.

Azken urteotan, bereziki COVID-19aren pandemiak bultzatuta, $\text{SaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioaren erabilera zabaldu da, parametro ez-inbaditzaile gisa eta etengabeko monitorizazioaren abantailarekin. Bi parametroek duten hilkortasunerako aurreikuspen-ahalmen aztertzen duten ikerketak badaude. Alemanian berriki egindako ikerketa batean, ZIUan ospitaleratutako 33.431 pazienteren datuak aztertuta, $\text{SaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioak $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioarekiko aurreikuspen-ahalmen hobea erakutsi zuen ¹⁹⁹. Hala ere, SARS-CoV-2arekin egindako beste ikerketa batzuetan, $\text{SaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioaren baliotasuna frogatu den arren, ez da $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ baino hobea izan ²⁰⁰. Edonola ere, AEZU bezalako unitateetan, paziente guztiek gasometria arteriala behar dute (bai PaO_2 eta PaCO_2 neurtzeko), eta horregatik, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa erabiltzea zuzenagoa eta zehatzagoa izan liteke, SaO_2 neurtzean artefaktuak sor baitaitezke pazienteen perfusio periferiko eskasaren ondorioz.

Aurkikuntza hauek, AEZUan ospitaleratzerakoan aldagai hemodinamikoak eta arnas-apartukoak ebaluatzearen garrantzia indartzen dute, haien asaldurek narriadura fisiologiko larria islatzen baitute, eta horrek hilkortasunaren probabilitatea handitzen du.



Aldagai analitikoak

Gure ikerketan, analitika bidez aztertutako aldagaietatik, leukozitosia ($>11.000/\mu\text{L}$) [OR 2,01 (1,37-2,95)], urea altua (≥ 50 mg/dL) [OR 1,57 (1,06-2,33)] eta hipoalbuminemia ($<3,6$ g/dL) [OR 1,66 (1,15-2,41)] identifikatu dira pronostiko txarraren faktore independente gisa, hilkortasunarekin erlazio esanguratsua erakutsiz. Aurkikuntza hauek hantura erantzunak, giltzurrun disfuntzioak eta elikadura egoerak pazienteen bilakaeran eragina izan dezaketela iradokitzen dute.

Leukozitoek funtsezko eginkizuna dute hantura erantzun sistemikoan, ehunetako kaltean eta organo-disfuntzioan. Sistema immunearen aktibazioaren adierazle dira, infekzio, estres edo hanturaren aurrean. Hala ere, aktibazio hori gehiegizkoa edo luzaroan mantendua denean, kontrolik gabeko hantura sor dezake, hantura-erantzun sistemikoaren sindromean gertatzen den bezala ²⁰¹. Testuinguru honetan, leukozitoek, bereziki neutrofikoek, hantura errazten duten zitokinak askatzen dituzte, eta horrek endotelio eta ehunen kaltea eragiten dute, odol hodietako iragazkortasuna, edema eta tronbosisa handituz ²⁰². Gainera, leukozitosi luzatuak immunoparalisia ekar dezake, infekzioen aurkako zaugarritasuna areagotuz ²⁰³.

Hantura patroia hau bereziki garrantzitsua da paziente kritikoetan, eta APACHE II eskalan hilkortasunaren arrisku-faktore gisa jasota dago ¹⁰⁵. Eskala honetan, $15 \times 10^3/\mu\text{L}$ baino handiagoak diren balioak hilkortasunarekin erlazionatuta daude. Gure ikerketan, leukozitosi moderatuak ($>11 \times 10^3/\mu\text{L}$) ere hilkortasunean eragin esanguratsua erakutsi du, eta horrek igoera arinek ere pronostikoan eragin negatiboa izan dezaketela iradokitzen du. Aurkikuntza hau desadostasunean dago Madrilgo AEZU batean Heilli et al.-ek egindako ikerketa batekin ²⁰, non leukozitosia hilkortasunaren faktore babesle gisa agertu baitzen. Desberdintasun hori pazienteen profilen eta testuinguruen arteko aldeengatik izan daiteke.



Gure emaitzek bat egiten dute leukozitosisia paziente kritikoen pronostiko txarreko faktore gisa identifikatu duten beste ikerketa batzuekin. Irango ikerketa batek leukozitosiak ospitale-barneko hilkortasuna handitzen zuela ospitalizazio arrunteko pazienteetan erakutsi zuen ²⁰⁴. Gainera, SARS-CoV-2ari lotutako pneumonia zuten pazienteetan, berriki egindako ikerketek leukozitosisia heriotza-tasa handiagoarekin lotu dute, baliteke gehiegizko hantura erantzunaren ondorioz ^{205 206 207}.

Bestalde, badaude leukopeniaren eragin kaltegarria babesten duten ikerketak, bereziki infekzio susmoa duten pazienteentan ²⁰⁸. Horrexegaitik, APACHE II eskalan ere aldagai gisa jasota dago ¹⁰⁵. Gure ikerketan ere leukopenia eta hilkortasunaren arteko lotura antzeman da, baina adierazgarritasun estatistikoaren muga geratu da.

Urea proteinen metabolismoaren biomarkatzailea da, eta giltzurrunetako funtzioaren adierazle gisa balio du. Odoleko urea-maila altuak, oro har, glomerulu-iragazketa-tasa jaitsieraren isla da, eta horrek giltzurrun gutxiegitasuna iradokitzen du ²⁰⁹. Halaber, hipobolemia edo deshidratazioaren adierazle ere izan daiteke, giltzurrunetako perfusioaren jeitsieraren ondorioz. Azkenik, katabolismo larriak, proteinen degradazio azkarraren bidez, urea mailak igo ditzake ²¹⁰.

Paziente kritikoetan, giltzurrunetako disfuntzioa (urea edo kreatinina bidez neurtua ⁷¹), hilkortasunaren arrisku-faktore moduan identifikatu da, eta horregatik urea edo kreatinina APACHE II ¹⁰⁵, SAPS II ¹⁰⁶ edo SOFA ¹⁰⁷ eskalen osagaiak dira. Pneumonia bezalako arnas-patologia larrietan, urea pronostiko txarrarekin erlazionatuta dago, eta PSI ¹²⁰ eta CURB-65 ¹²¹ eskaletako aldagai gisa erabiltzen da. BGBK areagotzean ere, badirudi eragin kaltegarria duela hilkortasunean, Txinan egindako ikerketa batek agerian utzi bezala ²¹¹.



Gure ikerketan, urea ≥ 50 mg/dL hilkortasunarekin modu esanguratsuan erlazionatu da, OR 1,57 izanik. Hala ere, Iruñako EZU batean egindako ikerketa batek ≥ 60 mg/dL ureak 2,77 ORa erakutsi zuen, gure emaitzak baino altuagoa ⁷¹.

Azkenik, hipoalbuminemia hauskortasunaren adierazle gisa identifikatu da, eta bilakaera kliniko txarragoarekin lotu da. Alde batetik, elikadura egoeraren adierazle ez-zuzena den heinean, desnutrizio proteiko-kalorikoaren seinale da, eta horrek estres metabolikoaren aurrean erantzuteko ahalmena gutxitzen du ²¹². Bestetik, fase negatiko proteina denez, hantura prozesu sistemikoetan odoldeko mailak jeisten dira ²¹³.

Nahiz eta eragina izan dezakeen oinarrizko egoera funtzionalaren edo hantura markatzaile gisa, hipoalbuminemia ez dago jasota hilkortasunaren eskala pronostikoetan, ez unitate intentsiboetakoetan, ezta arnas-patologiakoetan ere. Hala ere, hainbat esparrutan egindako ikerketetan faktore pronostiko gisa identifikatu da, hala nola patologia akutua duten paziente pediatrikoetan ²¹⁴, bihotzeko patologia duten pazienteetan ²¹⁵ edo giltzurrunetako patologia dutenetan ²¹⁶. Danimarkan egindako ikerketa batean, patologia mediko akutua zuten pazienteak aztertuta, 30 eguneko hilkortasunaren faktore gisa identifikatu zen ²¹⁷. Arnas-patologiei dagokionez, Estatu Batuetan egindako beste ikerketa batean, hipoalbuminemia hilkortasunaren faktore independente gisa agertu zen, bereziki fibrosi kistikoa eta BGI zuten pazienteetan ²¹⁸. Taiwanen, BGBK eta AGA zuten 42.732 pazienteko ikerketa batean, hipoalbuminemia kronikoa zuten pazienteek hilkortasun altuagoa zutela ikusi zen ²¹⁹.

Gure ikerketan, ospitaleratzerakoan neurtutako albumina, pazientearen oinarrizko markatzaile gisa interpretatu zen, eta hilkortasunean eragin zuzena erakutsi zuen.



AEZUan ospitaleratu arteko denbora

Gure ikerketaren aurkikuntza aipagarrietako bat AEZUan ospitaleratu arte igarotako denboraren inpaktua izan da. Ospitalera iritsi eta AEZUra lekualdatzeko 48 ordu baino gehiago behar izan duten pazienteek hilkortasun-arriskua 4,29 aldiz handiagoa izan dute. Honek, paziente kritikoen bilakaera klinikoa hobetzeko, unitate espezializatuera ospitaleratzeko denborak optimizatzea funtsezkoa dela azpimarratzen du.

AEZUra sartu aurreko ospitale-egonaldi luzeak hainbat arrazoiengatik eragin kaltegarria izan dezake. Arrazoi nagusietako bat infekzio nosokomialen agerpenaren areagotzea da. 48 ordutik gorako ospitale-egonaldiek infekzio hauen intzidentzia handitzen dutela erakutsi da ^{151 152}, patogeno multi-erresistenteek eragindako infekzioen probabilitatea handituz ²²⁰ eta, ondorioz, bilakaera okerragoa eraginez ^{221 222}. Ospitalizazio-ohean immobilizazio luzatuak muskuluetako ahultasuna, desnutrizioa eta egoera funtzionalaren narriadura ²²³ sor ditzake. Horrek, ZIUan ospitaleratutako pazienteengan, aireztapen mekanikoaren iraupena eta egonaldiaren luzapena ekar ditzake ^{224 225}. Kasu batzuetan, pazientearentzat beharrezkoak diren interbentzio espezifikoak hasteko atzerapena ere eragin dezake ²²⁶. Eta azkenik, erdi-mailako zainketa beharraren identifikazioan atzerapenak ospitaleratzerakoan larritasun kliniko handiagoa izatea eragin dezake ^{226 227}.

Aurkikuntza hau bat dator ZIUan egindako aurreko ikerketekin, non ospitale-egonaldi luzea faktore pronostiko gisa identifikatu den ²²⁸. Esaterako, Gasteizeko ZIU batean egindako ikerketa batek ospitaleratze aurreko egoerak ospitale-barneko eta urtebeteko hilkortasunarekin erlazio zuzenik zuela aztertu zuen ²²⁹. Ikerketa horretan, ZIUan ospitaleratu aurreko 48 ordutik gorako ospitale-egonaldia ospitale-barneko hilkortasunarekin lotu zen (OR de 2,6).



Ez dago AEZUan onartu aurreko ospitale-egonaldiaren eraginari buruzko ikerketarik. Hala ere, Osloko EZU batean egindako azterketa batean, Larrialdietatik zuzenean EZUra ospitaleratutako pazienteek ospitale-barneko hilkortasun-tasa txikiagoa zutela ikusi zen, ospitalizazio arruntetik lekualdatuekin alderatuta ⁷³. Ikerketa horretan ez zen AEZUko ospitaleratze aurreko egonaldia zuzenean neurtu, baina litekeena da ospitalizazio arruntetik lekualdatuak ospitale-egonaldi luzeagoa izatea, Larrialdietatik zuzenean eratorritakoekin konparatuta. Italiako arnas-ZIU batean antzeko ikerketa bat egin zen, non ospitaleratze aurreko kokalekuaren eragin klinikoan aztertu zen ⁶. ZIUtik edo Larrialdietatik eratorritako pazienteek hilkortasun-tasa baxuagoa zuten ospitalizazio arruntetik eratorritakoekin konparatuta (solairu orokorra edo pneumologiako solairua). Zehazki, pneumologiako solairutik etorritako pazienteek bizirauteko aukera lau aldiz txikiagoa zuten Larrialdietatik eratorritakoekin alderatuta. Ikerketa honetan, bai neurtu zen ospitaleratze aurreko egonaldia: pneumologiako solairuko pazienteek batezbesteko 16,3 eguneko ospitale-egonaldia izan zuten, eta Larrialdietatik zuzenean eratorritakoek, aldiz, 2,32 egun.

Datu hauek guztiek, pazienteen bilakaera hobetzeko, identifikazio goiztiarra eta unitate espezializatuera lekualdaketa azkarra funtsezkoak direla iradokitzen dute.

AEZUko hilkortasunaren aurreikuspen-eredua

Gure ikerketan, AEZUan ospitaleratutako pazienteentzako ospitale-barneko hilkortasuna aurreikusteko eredu bat garatu da. Bertan, hamaika aldagai barneratu dira: adina, oinarrizko egoera funtzionala, komorbilitateak, BM, AM, TA, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioa, leukozitoak, urea, albumina eta AEZUan ospitaleratu arteko ospitale-egonaldia.



Ereduak aurreikuspen-ahalmen altua erakutsi du, 0,82ko AUC-arekin (KT 95%: 0,78-0,85), hau da, biztanleria espezifiko honetan hilkortasuna aurreikusteko bereizketa-gaitasun altua duelarik. Eraitza hauek eredu hau AEZUetarako eskala pronostiko espezifiko baten diseinurako erabilgarria izan daitekeela iradokitzen dute, orain arte unitate hauetan bete gabe egon den behar bati erantzunez.

Gure eredu, erdi-mailako unitateetako edo ZIUetako aurreikuspen-ereduekin alderatuta, bereizketa-ahalmen handiagoa erakutsi du gure analisisian.

Heilli et al.-en ikerketan ²⁰, Madrilgo AEZU batean burutua, hilkortasunaren aurreikuspen-eredu bat garatu zen, 0,75eko AUCarekin, gurea baino baxuagoa. Eredu horretan prozesu akutuekin erlazionatutako aldagai kliniko eta analitikoak bakarrik barneratu ziren (AM, leukozitoak, hemoglobina, potasio serikoa eta pH arteriala), baina ez ziren aldagai soziodemografikoak ezta oinarritzko egoera kontuan hartu, aurreikuspen-ahalmena mugatuz. Gure analisisian, adina, ECOG eta komorbilitateak bezalako aldagaiak barneratzeak bereizketa-gaitasun handiagoa lortzea ahalbidetu du, eredu pronostiko integral batean oinarritzko aldagaien eta aldagai akutuen arteko konbinazioaren garrantzia azpimarratuz.

EZUetan, ImCUSS eskala (*Intermediate Care Unit Severity Score*) ⁷¹ garatu da. Honek bederatzi aldagai bateratzen ditu eta aurreikuspen-ahalmen altuagoa aurkeztu zuen (AUC 0,843 (KT 95%: 0,805-0,881)). ImCUSS-aren barneko aldagaiak aztertzean, batzuk gure ereduarekin bat datoz: aurreko ospitale-egonaldia, komorbilitateak (minbizi metastasikoa eta immunosupresioa), eta urea. Hala ere, ImCUSS-ak gure ikerketan esanguratsuak izan ez ziren beste aldagai batzuk ere barneratzen ditu, hala nola infekzio nosokomiala, egoera neurologikoa (Glasgow eskala), AMEIaren beharra, plaketak eta bilirrubina. Aldagaien osaeraren eta pazienteen profilaren arteko ezberdintasunek aurreikuspen-ahalmenaren aldakuntza azal dezakete. ImCUSS-aren ⁷² kanpo-balioztatzean, banaketa-gaitasun onargarria ikusi zen (AUC 0,72; KT 95%: 0,64-



0,78), baina kalibrazio arazoekin eta hilkortasunaren infraestimazioarekin. Horrek, nahiz eta ImCUSS EZUetan erabilgarria izan, AEZUan aplikagarritasuna mugatua dela iradokitzen du, pazienteen profil eta ospitaleratze-irizpide ezberdinen ondorioz.

APACHE II ¹⁰⁵ eta SAPS II ¹⁰⁶ eskalekin alderatuta, ZIUan zabalki erabiliak, gure ereduak banaketa-gaitasun antzekoa edo hobe erakutsi zuen AEZUko testuinguru espezifikoan. Honek, erdi-mailako zainketa unitateetan eredu espezifikoaren garapenaren beharra nabarmentzen du, ZIUan erabiltzen diren eskalek paziente hauetan larritasuna infraestima dezaketelako.

1.4. Ospitaleratzean izandako atzerapenaren eragina

Ikerketa honek AEZUan ospitaleratzean izandako atzerapenak arnas-patologia larria duten pazienteengan eragin negatiboa azaleratzen du. Hasiera batean ospitalizazio-solairu arruntean ospitaleratu, eta lehenengo 48 orduetan AEZUra lekualdatuak izan diren pazienteek ospitale-barneko hilkortasun-tasa handiagoa izan dute (%13,43 vs. %5,76), ZIUan ospitaleratze-tasa altuagoa (%6,01 vs. %2,57) eta ospitale-egonaldi luzeagoa ($8,12 \pm 6,83$ vs. $7,09 \pm 5,9$ egun), AEZUan zuzenean ospitaleratutako pazienteekin alderatuta. Aurkikuntza hauek arnas-zainketa espezializatuetara beranduago iristeak pronostiko okerragoa izatearekin lotutako hipotesia indartu egiten dute.

Alde batetik, arnas-euskarriaren erabilera atzeratzeak neke muskularra eragin dezake, eta ondorioz, AGaren txarragotzea ¹¹⁵. Luzaroko hipoxemia eta azidosiak ehunetako hipoperfusioa sor dezake, bihotza edo nerbio sistema zentrala bezalako organo kritikoetan kaltea eraginez. Gainera, tratamendu egokian izandako atzerapenak hantura erantzun sistemikoa handitu dezake, bereziki pneumonia eta sepsien kasuetan, eta horrek organo anitzeko disfuntzioa ekar dezake ^{230 231}.



Analisi honetan, AEZUan ospitaleratu aurretik 48 ordu baino gehiagoko ospitale-egonaldiak baztertu dira, infekzio nosokomialen eraginez sortutako alborapena saihesteko. Honela, Larrialdietara heltzetik AEZUko onarpen arteko atzerapena pazienteen bilakaera kliniko okerragoarekin erlazionatuta dagoela frogatu da. Azpimarratzekoa da, ZIUan egindako beste ikerketa batzuetan, konplikazio nosokomialen eragina baztertzeko, 72 orduko ebakipuntua erabiltzen dela²³²; lan honetan, ordea, irizpide murriztaileagoa aukeratu da, arnas-patologia larria duten pazienteen berezitasunetara egokitzeko.

“Atzerapena” definitzeko modu ezberdinak daude literaturan. Ikerketa honetan, pazienteak hasiera batean ospitalizazio arruntean ospitaleratu eta gero AEZUra lekualdatu zirenean hartu da atzerapentzat. ZIUan egindako hainbat ikerketek, berriz, atzerapena unitatean ospitaleratzeko erabakia hartzen denetik unitatera lekualdatzen diren arteko denbora (orduetan) gisa definitzen dute, hau 4 ordu^{233 234 235} edo 6 ordu^{114 236} izan daiteke. Nahiz eta ikuspegi hau zehatzagoa izan, azpiegitura eta AEZUko paziente-fluxuek ez dute aukera hori ematen ikerketa honetan.

Berehalako edo atzeratutako ospitaleratzea izan duten pazienteen ezaugarri soziodemografiko eta klinikoak konparatzean, oro har ezaugarri antzekotasuna ikusi da, etxeko AMEIaren erabilera (%17,12 vs %10,12) eta AG kronikoaren presentzia (%35.80 vs %28.66) izan ezik, zeinak ohikoagoak diren berehalako ospitaleratzean. Horrek, AG kronikoa duten edo etxeko AMEI erabiltzen duten pazienteak arnas-euskarriaren beharraren hautagai gisa errazago identifikatzen direla adierazten du.

Aldagai analitikoetan ere aldeak ikusi dira: berehalako ospitaleratzea izan zuten pazienteek pH baxuagoa eta pCO₂ arterial altuagoa dute Larrialdietan (pH 7,36 ± 0,10 vs. 7,39 ± 0,08; pCO₂ arteriala 55,96 ± 23,35 vs. 49,57 ± 17,43 mmHg). Kontuan hartu behar da AG hiperkapniko akutua edo AG kronikoaren areagotzea AMEI terapiaren indikazioak direla²³⁷, eta horrek AEZUarekin lotuta zuzena du;



ondorioz, berehalako ospitaleratzea behar duten pazienteak errazago identifikatuko dira.

Bestetik, Larrialdietan pazienteen larritasun klinikoa, APACHE II eskalarekin neurtuta, bi taldeetan antzekoa dela nabarmentzea garrantzitsua da ($16,04 \pm 7,43$ vs. $15,21 \pm 5,91$ puntu). Hala ere, AEZUan zuzenean ospitaleratutako pazienteek, onarpen unean larritasun txikiagoa eta hilkortasun baxuagoa dute, atzeratutako ospitaleratzea izan dutenen aldean. Azken hauek larritasun kliniko handiagoa eta pronostiko okerragoa aurkeztu dute ($11,89 \pm 5,58$ vs. $13,04 \pm 6,01$ puntu APACHE II eskalan). Larrialdietatik AEZUra bitartean, paziente hauen AG okertu egin da, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazioaren jaitsierarekin ($246,28\text{tik} \pm 83,09$, $221,37\text{ra} \pm 87,08$) eta pCO_2 arterialaren igoerarekin ($49,57\text{tik} \pm 17,43$, $53,96\text{ra} \pm 20,51$ mmHg).


Emaitza hauek, AEZUko azpiegitura eta baliabideek, paziente hauen bilakaera klinikoa funtsezko eginkizuna dutela iradokitzen dute. AEZUak duen ahalmena pazienteen kontrol zorrotza egiteko eta arnas-euskarri goiztiarra eta intentsiboa emateko, espezializatutako osasun-talde batek kudeatuta, emaitzen ezberdintasunak azaltzen lagun dezake. Izan ere, monitorizazio ez-inbaditzaile jarraituak hilkortasuna murrizten duela frogatu da ²³⁸. Beste eragile erabakigarri bat unitate hauetako erizain-paziente ratio hobe izan daiteke. Ikusi da erizaintzako lan-zama txikiagoa hilkortasun txikiagoarekin lotuta dagoela. Ikerketa multizentriko batean, Europako bederatzi herrialdeetako ospitalizazio-solairuetan, erizain kopurua %10 handitzeak 30 eguneko hilkortasuna %7 murrizten zuela ikusi zen ²³⁹. ZIUan antzeko emaitzak lortu dira: paziente-erizain ratioa 2,5tik gorakoa denean, hilkortasuna handitu egiten da ²⁴⁰.

Ospitaleratzea eragin duten diagnostikoei dagokionez, ezberdintasunak ikusi dira bi taldeetan. Berehalako taldean BGBK areagotzea (%24,75 vs. %17,03) eta BTE (%20 vs. %14,23) duten paziente proportzio handiagoa dago; atzerapen taldean, berriz, BEA (%14,63 vs. %10,43) eta BGI (%3,01 vs. %1,59) nabarmentzen dira. BGBK areagotzearen kasuan, paziente hauetan dagoen AMEI terapiaren ezagutza



handiagoak ^{47 48}, identifikazioa eta AEZUan ospitaleratze goiztiarra erraztu egiten du. BTE kasuan, PESI eskalaren erabilera ¹²⁶ eta gure ospitalean protokolo espezifikoak aplikatzeak, AEZUan ospitaleratzea behar duten pazienteen identifikazioa hobetu dute. Aldiz, pneumonia edo BGI bezalako gaixotasunetan, larritasun klinikoaren ebaluazioa eta neurri espezifikoen beharraren identifikazioa zailagoa izan daiteke, nahiz eta eskala espezifikoak egon (PSI ¹²⁰ eta CURB-65 ¹²¹ kasu). Honek ospitaleratzean atzerapena eragin dezake, eta ondorioz hilkortasuna handitu. Azkenik, BEA duten pazienteen kasuan, ikusitako ospitaleratze atzerapena harritzekoa da, patologia honek adierazpen oso akutua duelako. Baliteke atzerapen hori ospitalearen barne-antolakuntzarekin lotuta egotea: paziente hauek, kardiologiako zerbitzuan ospitaleratzen dira normalean, eta arnas-euskarria behar dutenean soilik lekualdatzen dira AEZUra, pneumologiako zerbitzuaren esku geratuz. Dinamika honek AEZUan ospitaleratze goiztiarra zailtzen du.

Orain arte ez da AEZUan ospitaleratzean izandako atzerapena aztertzen duten ikerketarik argitaratu. Hala ere, ZIUan egindako lanek atzerapenak ospitale-barneko hilkortasuna handitzen duela frogatu dute, K. Panagiotis et al.-en berrikuspen sistematiko eta metaanalisian ikus daitekeenez ¹¹³. Honetan, ZIUan ospitaleratzean atzerapena izandakoetan hilkortasun altuagoa ikusi zen (OR 1.61, KT 95% 1.44-1.81), nahiz eta ikerketen arteko heterogenotasuna eman. Era berean, J. Phua et al.-ek komunitatean hartutako pneumonia zuten pazienteekin egindako ikerketan ²⁴¹, atzerapena zutenengan hilkortasun altuagoa ikusi zen (OR 9.61, KT 95% 2.32-39.78). Azkenik, H. Chih-Chia et al.-ek AGA zuten pazienteekin egindako ikerketetan ¹¹⁵, ZIUan ordubete baino gehiagoko atzerapenak ere bilakaeran eragin kaltegarria zuela ikusi zen. Dena den, nahiz eta ZIUko aurkikuntza hauek garrantzitsuak izan, ZIU eta AEZUen arteko azpiegitura eta ezaugarri ezberdintasunek konparaketa zuzenak mugatzen dituzte.



Ondorioz, ikerketa honek arnas-patologia larria duten pazienteentzat AEZUan kudeaketa espezializatu eta goiztiarrak duen garrantzia agerian uzten du. Zentzu horretan, AEZUko ospitaleratze beharra duten pazienteak identifikatzeko protokolo espezifikoaren garapenak, atzerapenak murriztea eta emaitza klinikoen hobekuntza ekar dezake.



2. INDARGUNEAK ETA MUGAK

Ikerketa honek indargune nabarmen aurkezten ditu. Lehenik, AEZUan ospitaleratutako pazienteen ospitale-barneko hilkortasunaren faktore pronostikoak aztertzen dituen lehenengo ikerketa da. Gainera, laginaren tamaina handia eta ia 10 urteko iraupena dela medio, pazienteen profilaren bilakaera denboran zehar aztertzeko aukera eman du. Orain arte ez da argitaratu AEZUetan ospitaleratutako pazienteen ezaugarriak hain zehaztasunez aztertzen dituen ikerketarik, eta ondorioz, lan honek arlo honetan ekarpen esanguratsua egiten du.

Beste indargune aipagarria da, praktika klinikoan erraz eskuragarriak diren hamaika aldagai erabiliz, AEZUko pazienteen pronostikoa probabilitate altuarekin aurreikusteko eredua eraiki dela. Horri esker, larritasun handiena duten pazienteen detekzio goiztiarra egin daiteke, eta maneia egokitu eta estrategia terapeutikoak aurreratu daitezke.

Era berean, analisiak 48 ordu baino gehiagoko ospitale-egonaldiak baztertu zituen, eta horri esker AEZUan ospitaleratze indikazioa dutenen onarpenaren atzerapenak bilakaeran eragin kaltegarria duela frogatu da. Aurkikuntza honek unitate hauen garrantzia nabarmentzen du, eta ondorioz, prozesuen kudeaketa hobetzeko eta 24 orduko pneumologiako zaintza-medikuaren presentzia bermatzeko beharra, emaitza klinikoak hobetze aldera.

Hala ere, ikerketak zeinbait muga aurkezten ditu. Lehenik, ez zen hilkortasunaren kausa erregistratu, eta horrek AEZUko ospitaleratzeak pazienteen biziraupenean duen eragina zuzena ebaluatzea zaildu egiten du. Era berea, ez suspertzeko agindua duten pazienteen inguruko informazioa ez zen jaso, eta hori aldagai nahaslea izan daiteke bilakaeran eta hilkortasunaren interpretazioan.



Beste muga nabarmen bat AEZUko ospitaleratzean izandako atzerapenaren arrazoen inguruko informazio falta da. Datu horiek eskuragarri izan balira, pazienteen kudeaketa klinikoak hobetzeko estrategiak identifikatu ahal izango lirateke. Atzerapena hainbat arrazio dela medio izan daiteke: Larrialdietako balorazio desegokia, AEZUko ohe libre falta edo antolakuntza arazoak (adibidez, pneumologiako zaintza-medikuaren gabezia). Aldagai hauek zehazteak, ospitaleratze prozesuak optimizatzeko estrategia eraginkorrak diseinatzea ahalbidetuko luke. Era berean, patologia ezberdinek atzerapen horietan duten eragina aztertzeak etorkizuneko ikerketetarako informazio baliotsua eskain dezake.

Horrez gain, zentro bakarreko ikerketa izateak emaitzen orokortasuna mugatu dezake. AEZUetako antolakuntza, osasun-sistema eta asistentzia-maila aldakorrak direnez, aurkikuntzen interpretazioa eta aplikagarritasuna testuinguruaren araberakoak izan daitezke. Beste ospitale-inguruneekin konparazioa zaila da, azpiegitura, baliabide eta arreta-ereduen arteko ezberdintasunaren ondorioz. Barne-balioztapena egin bada ere, aurkikuntzen egiaztapena ikerketa multizentrikoen bidez egitea gomendagarria litzateke, beste testuinguru klinikoetan balioztatu ahal izateko. Hala ere, lan honek etorkizuneko ikerketetarako oinarri sendoa eskaintzen du, AEZUan ospitaleratutako pazienteen maneiuari buruzko ezagutza zabaltzen lagunduz.



3. APLIKAZIO KLINIKOA ETA ETORKIZUNeko IKERKUNTZAK

Prebentzioaren eta detekzio goiztiarraren aroan gaude, pazienteen hilkortasuna eta komorbilitatea murriztea helburu nagusitzat hartuta. Testuinguru honetan, ikerketa honetan identifikatutako hilkortasunarekin lotutako aldagaiak baliagarriak izan daitezke arriskuaren aurreikuspenarako tresnak garatzeko, esaterako eskala pronostikoa bat. Tresna horren aplikazioak AEZUan ospitaleratzen diren pazienteen artean bilakaera kliniko okerragoa izateko arriskuan daudenak identifikatzeko aukera emango luke, eta ondorioz, erabaki klinikoen optimizazioa ahalbidetuko luke. Ildo horretan, eskala pronostiko espezifiko baten garapena eta haren barne- eta kanpo-balioztapena abiatu dugu. Eskala horri CRIT-RICU izena eman zaio (*Critical Illness Mortality Score for Respiratory Intermediate Care Unit*).

Horrez gain, AEZUko ospitaleratzean atzerapena jasan duten pazienteek duten pronostiko okerragoa kontuan hartuta, beharrezkoa da unitate honetatik onura handiena aterako duten pazienteak modu eraginkorragoan identifikatzeko tresnak ezartzea. Horretarako, CRIT-RICU eskalaren aplikazioa Larrialdietan berariaz landu daiteke, edo, bestela patologia espezifikoetara egokitutako eskalen inplementazioaren bidez. Aldi berean, atzerapenaren arrazoiei buruzko ikerketa areagotzea ezinbestekoa da paziente hauen osasun-kudeaketa hobetzeko.

Bestalde, eskala pronostikoen eremuan aurrerapen nabarmenak gertatu dira azken urteetan, medikuntzan adimen artifizialak (AA) hartu duen protagonismoaren ondorioz. *Machine learning* tekniketan oinarritutako tresnek hilkortasunaren aurreikuspena eraldatzeko gaitasuna dutela frogatu da, pneumonia duten pazienteen kasuan adibidez²⁴² eta bereziki unitate espezializatuetan ospitaleratutako pazienteetan. ZIU, AEZU eta antzeko unitateetan, pazienteen jarraipen klinikoa etengabea da, bizi-konstanteen



etengabeko erregistro automatizatuarekin eta analitika errepikatuen bidez. Datu multzo horiek klinikoki okertzeko arriskua zehaztasun handiagoz aurreikusteko erabili daitezke, ohiko eskala pronostikoek edota osasun-langileen ebaluazio kliniko subjektiboek eskaintzen duten informazioaz haratago^{243 244 245}. Azken urteetako berrikuspen sistematikoek, AAn oinarritutako ereduak ZIUko hilkortasunaren aurreikuspen zehaztasuna hobetu dezaketela erakutsi dute. Hala ere, tresna hauen errendimendua populazioaren eta testuinguru klinikoaren arabera alda daiteke. Zeinbait ikerketek AUC 0,929ko emaitzak jaso dituzte, teknologia hauek arriskuaren estratifikazioan duten potentzial handia azpimarratuz²⁴⁶.

Ondorioz, AEZUan ospitaleratutako pazienteen pronostiko aztertzeke etorkizuneko ikerkuntzek, ikerketa honetan identifikatutako aldagaiak eta AA edo *machine learning* teknikak konbinatuz, tresna zehatzago eta dinamikoagoak garatzeko bide ematen dute. Honi esker, pazienteen estratifikazio klinikoa hobetu eta erabakiak eraginkortasun handiagoz hartu ahal izango lirateke.

VII. ONDORIOAK





Tesi honek AEZUan ospitaleratutako pazienteetan ospitaleratze unean neurtutako hainbat aldagaien eta ospitale-barneko hilkortasunaren arteko erlazioa frogatzen du. Halaber, pazienteen ezaugarriei eta bilakaera klinikoari buruzko informazio zehatza eskeintzen du. Azkenik, AEZUan ospitaleratzea behar duten pazienteen onarpenean izandako atzerapenek duten eragin negatiboa aztertuz, unitate hauen implementazioaren garrantzia azpimarratzen du.

Jarraian, ikerketaren helburu nagusiak aurkezten dira, proposatutako hipotesien arabera:

1. 2.008 paziente ebaluatu ziren ospitale-barneko hilkortasunaren faktore pronostikoak identifikatzeko. Hauetatik 201 (%10,01) ospitalean hil ziren. Aurreikuspen-faktore modura identifikatu ziren: adina >80 urte, ECOG eskala bidez neurtutako oinarrizko egoera funtzionala, >48 orduko ospitale-egonaldia ospitaleratze aurretik, hipotentsioa, takikardia, takipnea, $\text{PaO}_2/\text{FiO}_2$ erlazio baxua, leukozitosis, urea altua eta hipoalbuminemia.
2. Aurreko hamaika aldagaien oinarrian, aurreikuspen ahalmen altua duen aurreikuspen-eredu bat garatu zen (AUC 0,82), zeinak eskala pronostiko baten garapenerako balio dezakeen (CRIT-RICU).
3. Ia 10 urteetan zehar AEZUan ospitaleratutako 2.105 pazienteren ezaugarriak aztertu ziren. Aurkikuntza nagusiak hurrengo hauek izan ziren:
 - a. Pazienteen batezbesteko adina 69,20 urtekoa izan zen, gizonezkoen nagusitasunarekin (%59,89). Komorbiditate-zama ertaina zuten, ohikoenak arnas-gaixotasunak eta gaixotasun kardiobaskularrak izanik.
 - b. Larrialdietara iristerakoan, pazienteek hilkortasun-arrisku ertaina zuten, arnas-aparatua nagusiki erasanda. Pazienteen %43,37k AMEI



terapia hasteko izan zuten ospitaleratze arrazoia, baina gehienak Larrialdietatik igorriak izan ziren (%61,05).

c. Diagnostiko nagusia BGBK areagotzea izan zen (%21,90), pneumonia (%20,10) eta BTE (%16,48) jarraituz.

d. Ospitale-barneko hilkortasuna %10,7koa izan zen, ZIUan ospitaleratze tasa %3,85koa eta 30 eguneko berrospitaleratze-tasa %11,63koa.

e. Ikerketaren 10 urteko iraupenean zehar, ez ziren aldaketa esanguratsuak ikusi pazienteen ezaugarri nagusietan.

4. AEZUan ospitaleratzean atzerapena izan zuten pazienteek bilakaera okerragoa izan zuten, ospitale-barneko hilkortasuna handiagoarekin, ospitale-egonaldi luzeagoarekin eta ZIUan ospitaleratze-tasa altuagoarekin. AEZUan ospitaleratze beharraren detekzio berantiarrek arnas-patologia larria duten pazienteengan eragin kaltegarria duela ikusi da. Etorkizunean, ikerkuntza berrien beharra dago, atzerapenaren arrazoiak eta bilakaeran eragin dezaketen faktore nahasleak aztertzeko.

**FACTORES PRONÓSTICOS DE
MORTALIDAD EN PACIENTES
INGRESADOS EN UNA UNIDAD DE
CUIDADOS RESPIRATORIOS
INTERMEDIOS**

I. INTRODUCCIÓN





Las unidades de cuidados respiratorios intermedios (UCRI) son áreas hospitalarias especializadas cuyo objetivo es tratar pacientes con patología respiratoria grave. Su desarrollo a nivel mundial ha sido desigual en los distintos sistemas sanitarios, lo que ha limitado los estudios realizados en estas unidades.

La identificación de los factores pronósticos de los pacientes ingresados en las UCRI es crucial para optimizar el manejo clínico de los pacientes y realizar un uso más eficiente de los recursos sanitarios.

1. LAS UNIDADES DE CUIDADOS RESPIRATORIOS INTERMEDIOS

1.1. INTRODUCCIÓN Y DEFINICIÓN

Las unidades de cuidados intermedios (UCIm) están situadas logísticamente entre las unidades de cuidados intensivos (UCI) y la planta de hospitalización convencional ¹. En este contexto, existen UCIm “generales”, en las que ingresan pacientes con diferente tipo de patologías, o UCIm “específicas” en las que ingresan pacientes con patologías específicas, como son las unidades de ictus, las unidades coronarias o las unidades de cuidados respiratorios intermedios (UCRI) ². Por lo tanto, las UCRI son áreas de atención especializada de pacientes con patología respiratoria grave, que no precisan cuidados intensivos, pero por cuya complejidad no pueden ser tratados en la planta de hospitalización convencional ^{3,4}.

En las UCRI, los pacientes reciben monitorización continua junto con soporte respiratorio no invasivo (SRNI), principalmente mediante ventilación mecánica no invasiva (VMNI), presión positiva continua en la vía aérea (CPAP) o terapia de alto flujo mediante cánulas nasales (TAFCN). En algunos casos, también pueden ingresar pacientes con ventilación mecánica invasiva (VMI) a través de traqueostomía.



En 2002, un consenso de expertos publicado en la *European Respiratory Journal* ⁵, que incluyó neumólogos, anestesiólogos e intensivistas, definió cuatro niveles asistenciales en la atención de pacientes con patología respiratoria grave:

Nivel 0: pacientes que pueden ser atendidos en planta de hospitalización convencional.

Nivel 1: pacientes con riesgo de deterioro clínico o que provienen de niveles superiores.


Nivel 2: pacientes que requieren atención por fallo de un solo órgano (respiratorio), cuidados postoperatorios o que provienen del nivel superior.

Nivel 3: pacientes que necesitan soporte respiratorio avanzado o básico con fallo de, al menos, dos órganos.

Las UCRI se ubican en el nivel 2 de esta clasificación.

Dependiendo del nivel asistencial previo de los pacientes ingresados, el funcionamiento de una UCRI se clasifica en dos tipos:


- Step-up (subir de nivel): corresponde a pacientes en fases tempranas de la insuficiencia respiratoria aguda (IRA), normalmente provenientes de servicios de urgencias o plantas de hospitalización convencional. El objetivo es monitorizar y proporcionar soporte respiratorio para superar la fase aguda de la enfermedad, y así evitar el ingreso en UCI.
- Step-down (bajar de nivel): incluye pacientes que, tras un ingreso prolongado en unidades de intensivos, son trasladados a estas unidades como parte de su recuperación. Estos pacientes suelen presentar insuficiencia respiratoria (IR) persistente y/o dependencia de ventilación mecánica (VM). El objetivo principal es facilitar el destete de la ventilación (*weaning*).



Estas modalidades de funcionamiento implican diferencias en las características, necesidades y en los pronósticos de los pacientes, habiéndose observado una mayor mortalidad entre los ingresados mediante *step-up* ⁶. Esto se explica porque, en los pacientes provenientes mediante *step-down*, aunque persista la IR y la probable necesidad de terapias de soporte respiratorio, han superado el proceso agudo que requirió su ingreso en terapia intensiva.

El flujo de pacientes entre niveles asistenciales debe ser dinámico, como se muestra en la Figura 1.

Figura 1. Flujo de pacientes en diferentes niveles asistenciales. Modificado de Nava et al. ⁷.



UCI: Unidad de cuidados intensivos. UCRI: Unidad de cuidados respiratorios intermedios.

1.2. EVOLUCIÓN HISTÓRICA del SOPORTE RESPIRATORIO: DE LA POLIOMELITIS AL COVID-19.

Para entender la importancia actual de las UCRI, es importante analizar su origen y su evolución histórica.

El inicio: los pulmones de acero

El desarrollo de las terapias de soporte respiratorio en Europa y Norteamérica se inició durante las pandemias de poliomielitis a comienzos del siglo XX ⁸. Esta




enfermedad, al causar IR secundaria a alteración muscular, impulsó la creación de dispositivos como los "pulmones de acero" (Figura 2). Éstos, inventados en 1928 por Philip Drinker y Louis Agassiz Shaw⁹, se convirtieron rápidamente en instrumentos esenciales durante los brotes de poliomielitis entre las décadas de 1930 y 1950.

Los "pulmones de acero" eran cámaras metálicas de gran tamaño que cubrían todo el cuerpo del paciente, dejando solamente la cabeza fuera. Su funcionamiento se basaba en la creación de presión negativa alrededor del tórax, provocando su expansión. Gracias a esto, se transmitía la presión negativa al espacio pleural y alveolar, facilitando la entrada de aire a los pulmones y produciendo una ventilación pulmonar.

Las epidemias posteriores ocurridas en Europa pusieron de manifiesto la necesidad de crear unidades hospitalarias especializadas para el manejo de pacientes con IR. Estas unidades permitieron optimizar el uso de terapias de soporte respiratorio y mejorar los resultados en este tipo de pacientes.

Figura 2. Pulmón de acero. Hospital Sant'Orsola (Bologna, Italia).





La revolución de la ventilación mecánica y el desarrollo de las UCI

En la década de 1950, en Copenhague, Bjørn Ibsen revolucionó el tratamiento de la IR secundaria a la poliomielitis mediante el uso de la ventilación mecánica mediante presión positiva a través de traqueostomía^{10 11}. Este avance marcó un hito en la medicina y facilitó a la creación de las primeras UCI, creadas como áreas específicas para concentrar recursos y personal sanitario capacitado en el manejo de estas terapias.

La popularización de la ventilación mecánica invasiva y de las UCI durante las décadas posteriores relegó el uso de las terapias no invasivas, disminuyendo significativamente su aplicación⁸. En Europa, este cambio favoreció el desarrollo de las UCI generales, mientras que las unidades específicas para el tratamiento de la IRA perdieron fuerza. Por el contrario, en América del Norte, la evolución fue distinta: los cuidados intensivos permanecieron estrechamente relacionados al manejo del paciente respiratorio grave, lo que facilitó el desarrollo, en la década de 1960, de unidades específicas de cuidados respiratorios intensivos¹². Estas unidades funcionaban de manera paralela a las UCI generales, sin entrar en competencia. Estaban equipadas con tecnología y monitorización similares a las de una UCI, en las que se atendía a pacientes con IRA como con IR crónica agudizada.

Aparición de la ventilación no invasiva por presión positiva

En 1988 en Austria, el profesor H. Benzer fue el primero en describir la aplicación de la presión positiva en las terapias de SRNI, como tratamiento para la IR^{13 14}. La presión positiva binivel en vías aéreas (BiPAP) generaba, mediante una turbina, una presión positiva alta en la inspiración (IPAP) y una presión positiva menor en la espiración (EPAP). El dispositivo se conectaba al paciente mediante una tubuladura y una interfase nasal u oronasal. Este gradiente de presiones permitía la entrada y salida de aire de los pulmones del paciente, logrando así la



ventilación. Actualmente, esta terapia es conocida como ventilación mecánica no invasiva (VMNI).


Unidades intermedias y su evolución

La creciente popularización de estas terapias facilitó la creación de unidades *step-down* o también conocidas como “intermedias”, destinadas al manejo de los pacientes que requieren soporte respiratorio y monitorización básica. Estas áreas representaron una alternativa más coste-efectiva en comparación con las UCI respiratorias ¹⁵. Inicialmente, estas unidades fueron denominadas unidades de alta dependencia (*high dependency units*) o unidades de cuidados respiratorios no invasivos (*non-invasive respiratory care units*), siendo los precursores de las actuales UCRI.

Las primeras referencias sobre las UCRI aparecen en 1994 en Italia ¹⁶. En Europa, el desarrollo de las UCI respiratorias y de las UCRI ha sido heterogéneo. En 1998, una revisión sobre la situación de estas unidades en Europa ⁷, mostró un crecimiento desigual entre los distintos países. Italia lideraba el número de unidades, seguido de Francia ¹⁷, con amplia distribución geográfica. Pero cabe destacar que, en esa época, estas unidades solo estaban reconocidas oficialmente en un número muy limitado de países: Francia, Grecia, Italia, España, Eslovenia y Turquía.

En 2002, la *European Respiratory Society* llevó a cabo un análisis epidemiológico sobre las unidades respiratorias intermedias presentes en los diferentes países ⁵. Este estudio permitió clasificar las unidades en tres niveles asistenciales:

1. Unidades de cuidados respiratorios intensivos respiratorios (UCI respiratoria): diseñadas para pacientes con fallo de más de un órgano, con un ratio enfermería-paciente menor a 1:4.



2. Unidades de cuidados respiratorios intermedios (UCRI): áreas para el manejo de pacientes con IR que requieren soporte y monitorización avanzada.
3. Unidades de monitorización respiratoria (UMR): unidades con recursos limitados, generalmente sin pacientes que requieran VMNI y con un ratio enfermería-paciente mayor a 1:4.

En el análisis se recopiló información de 68 unidades, de las cuales 12 (18%) se clasificaron como UCI respiratoria, 42 (62%) como UCRI, y 14 (21%) como UMR. El 25% funcionaban como unidades independientes, el 59% estaban integradas en las plantas de neumología y el 9% asociadas a una UCI.

Como habían mostrado estudios previos, se observó que los países con mayor número de unidades respiratorias eran en Italia, Alemania y Francia, mostrando la importante heterogeneidad en la presencia de estas unidades a nivel europeo.

En España, la primera UCRI fue oficialmente inaugurada en 2007 en el Hospital San Pedro de Alcántara de Cáceres. Sin embargo, antes de esta inauguración formal, varios hospitales españoles habían implementado "unidades de monitorización" rudimentarias en torno al uso de la BiPAP. A nivel de Comunidad Autónoma del País Vasco, en Osakidetza, la primera UCRI se inauguró en febrero de 2007 en el Hospital de Galdakao-Usansolo ¹⁸, unidad en la que se lleva a cabo el estudio que aquí se presenta.

Durante las primeras décadas de los años 2000, el desarrollo y uso de las UCRI continuó siendo variable en diferentes regiones de España y de Europa ¹⁹. En este contexto, destacan las encuestas realizadas por la Sociedad Española de Neumología y Cirugía Torácica (SEPAR) en 2004 y 2008, que mostraron un incremento del 10% de estas unidades a nivel estatal, pero con un desarrollo desigual ²⁰. Mientras que algunos hospitales avanzaban en la consolidación de



las UCRI, otros permanecían en fases iniciales de su implementación, reflejando de nuevo una heterogeneidad en el desarrollo de estas unidades ²¹.

Sin embargo, la pandemia de COVID-19 iniciada en el año 2020, marcó de nuevo la importancia de las terapias de SRNI y la necesidad de manejarlas en unidades especializadas, como las UCRI. En los casos graves de infección por SARS-CoV-2, el desarrollo de un síndrome de distrés respiratorio del adulto (SDRA) fue una de las complicaciones más habituales ²². En el manejo precoz del SDRA, las terapias de SRNI tuvieron un papel muy importante ²³, puesto que permitieron evitar la VMI y, en consecuencia, el ingreso en UCI. Como respuesta a esta emergencia sanitaria a nivel mundial, en muchos hospitales se implementó rápidamente el desarrollo de unidades intermedias ^{24 25} para el manejo a los pacientes con COVID-19 y evitar una sobrecarga de las UCI ^{26 27}. En España, una nueva encuesta realizada por SEPAR a los servicios de neumología objetivó que, de los 67 hospitales participantes, 28 (42%) ya contaban con UCRI antes de la pandemia, mientras que 11 (16%) las crearon específicamente para hacer frente a la pandemia ²⁸.

Una vez finalizada la pandemia, queda por ver cuántas de estas UCRI se mantendrán en el tiempo ²¹.

1.3. IMPACTO DE LAS UCRI EN EL SISTEMA SANITARIO

El valor añadido de estas unidades ha sido cuestionado por parte de algunas especialidades médicas y gestores sanitarios. Sin embargo, a pesar de su breve trayectoria, existen argumentos y evidencias que respaldan su desarrollo y continuidad.

El desarrollo de las UCRI se justifica, en gran parte, por su impacto en el ahorro económico y asistencial, derivado de la optimización de camas en la UCI,



manteniendo la calidad asistencial¹⁵. Estas unidades permiten tanto evitar ingresos como facilitar altas precoces.

En la década de 1980, en Estados Unidos, se constató que el 20% del gasto sanitario estaba dirigido al mantenimiento de las UCI²⁹. No obstante, se objetivó que aproximadamente el 40% de los pacientes que ingresaban en estas unidades no requerían soporte invasivo^{30 31 32}. La implementación de las primeras UCRI en Estados Unidos permitió realizar análisis económicos que evidenciaron un ahorro significativo: los costes por paciente con ventilación mecánica ingresado en UCRI resultaron 1.976\$ menores que en la UCI³³. Más recientemente, un estudio local calculó un ahorro anual de 500.000€ al hospital, al reducir los días de estancia en la UCI²⁰. Un estudio italiano, por su parte, comparó el gasto hospitalario de pacientes ingresados por agudización de enfermedad pulmonar obstructiva crónica (EPOC) en UCI y UCRI, observando una reducción del 50% de los costes (1.507€ frente 754€)³⁴. Este ahorro se atribuye principalmente por el menor gasto en enfermería, el uso reducido de técnicas diagnósticas y una infraestructura más sencilla en las UCRI.

Además de evitar ingresos, las unidades de intermedios contribuyen a disminuir el tiempo de estancia en UCI y reducir reingresos. Se ha evidenciado que el 41% del tiempo que los pacientes permanecen bajo ventilación mecánica en la UCI corresponde al proceso de destete o *weaning*, porcentaje que se eleva al 59% en el caso de pacientes con EPOC³⁵, y que el 35,8% del tiempo que los pacientes permanecen en la UCI no requieren de intervenciones invasivas³⁶. Una vez estabilizados clínicamente, estos pacientes podrían ser transferidos a una UCRI para continuar su proceso, disminuyendo la estancia hospitalaria y reduciendo costes^{37 38}. Este flujo controlado (*step-down*) también permite una reducción de los reingresos en UCI³⁹, evitando altas demasiado tempranas a planta convencional que comprometen el pronóstico⁴⁰. Por ejemplo, el cierre de una unidad de cuidados intermedios en un hospital llevó a un aumento del tiempo



de permanencia de pacientes de bajo riesgo en la UCI ⁴¹. Asimismo, la disponibilidad de camas en UCI se optimiza, reservándolas para pacientes con necesidades críticas ⁴², ya que la falta de disponibilidad de camas en UCI puede conllevar un retraso en el ingreso de estos pacientes y un aumento de la mortalidad ⁴³.

Otro beneficio económico de las UCRI es la reducción de las complicaciones relacionadas con las técnicas de monitorización invasiva de la UCI ⁴⁴. Aunque la eficacia y el coste-efectividad de la monitorización no invasiva aún no se ha demostrado plenamente, representa un área prometedora de investigación.

Por otra parte, se han llevado a cabo estudios con objetivo de analizar el impacto de las UCRI en la dinámica hospitalaria. En uno de ellos, que incluyó pacientes con IR, EPOC y neumonía antes y después de la apertura de una UCRI, se observó una menor mortalidad intrahospitalaria y menor estancia hospitalaria tras la apertura de la UCRI ⁴⁵. Un estudio europeo multicéntrico que incluyó 5.834 pacientes de 17 países también concluyó que la presencia de UCIm en un hospital se asocia con una disminución significativa de la mortalidad de los pacientes ingresados en UCI ⁴⁶.

Otro pilar fundamental que sustenta el desarrollo de las UCRI es la implementación de la ventilación mecánica no invasiva (VMNI). Esta técnica ha demostrado ser eficaz en reducir la mortalidad y la necesidad de intubación orotraqueal en pacientes con agudización EPOC e IRA hipercápnica ^{47 48}. Como resultado, su utilización en este grupo de pacientes ha aumentado de manera notable durante las últimas décadas ⁴⁹. Su efectividad también se ha comprobado en otros escenarios, como el síndrome de hipoventilación obesidad (SHO) ⁵⁰; en el edema agudo de pulmón (EAP) de origen cardiogénico, mostrando resultados comparables a la CPAP en la reducción de la mortalidad ⁵¹; y la IR hipoxémica en pacientes inmunodeprimidos disminuyendo tanto la mortalidad como el uso de VMI ⁵². Clásicamente, el uso de esta terapia se evitaba en pacientes con acidosis



grave ($\text{pH} < 7,25$) dados los escasos resultados en estos pacientes ⁵³. A pesar de esto, recientemente en un estudio multicéntrico español se ha demostrado la seguridad y eficacia de la VMNI en estos pacientes ⁵⁴. Sin embargo, para una correcta implementación y control de esta terapia, es fundamental contar con un equipo sanitario especializado y sistemas de monitorización adecuados ^{55 56 57}.

Paralelamente, el uso de las terapias de alto flujo mediante cánulas nasales (TAFCN) cada vez son más frecuentes en el tratamiento de la IRA hipoxémica ⁵⁸. A pesar de no demostrar un impacto directo en la mortalidad, sí reduce la tasa de intubación en comparación con la oxigenoterapia convencional, lo que refuerza su valor en el manejo de los pacientes respiratorios graves ⁵⁹.

Más allá de los beneficios clínicos y económicos, estas unidades ofrecen un entorno más humanizado para los pacientes, con mayor privacidad, menos ruido y luz, y horarios de visita más flexibles ⁷.

A pesar de todo, algunos expertos cuestionan el coste-efectividad de las UCIm ⁶⁰, argumentado que no han demostrado una clara reducción global de costes y que podrían incrementar el gasto al ingresar pacientes con gravedad leve que previamente estarían ubicados en plantas convencionales. Además, abogan que tampoco se ha demostrado una reducción significativa en el uso de camas de UCI en hospitales con UCIm ⁶¹. Estos expertos proponen la creación de unidades mixtas, donde pacientes con patologías más graves y menos graves compartan espacio, optimizando el flujo de pacientes.

En conclusión, las UCRI se justifican por ser capaces de proporcionar una atención sanitaria de calidad, junto con:

- 1) Optimización de los recursos de la UCI, reservándola para pacientes que realmente requieren tratamiento intensivo ⁴¹.

2) Posibilidad de un alta más temprana de la UCI para pacientes que hayan superado la fase aguda de su enfermedad pero que aún requieran atención médica o de enfermería especializada, o VMNI para facilitar el destete, aspectos que no pueden ser proporcionados en las áreas hospitalarias convencionales.


3) Menores necesidades de personal sanitario, particularmente de enfermería y personal auxiliar, así como un menor consumo de recursos técnicos y asistenciales ⁶².

1.4. CARACTERÍSTICAS E INFRAESTRUCTURA

Al igual que la implantación de las UCRI ha sido desigual en distintas áreas geográficas, las características y la infraestructura básica requerida para estas unidades no han estado claramente definidas por las sociedades científicas. En 1998, un grupo italiano propuso la infraestructura necesaria ⁷, el cual fue adaptado a la realidad española en 2005 ⁴. Recientemente, en 2021 las sociedades científicas italianas ⁶³ y en 2022 la SEPAR ³, publicaron revisiones actualizadas que establecen las necesidades específicas de estas unidades.

Dotación de Personal

El equipo médico en una UCRI debería de estar liderado y coordinado por un especialista en neumología. Los médicos deben estar específicamente formados en cuidados respiratorios críticos, como es el manejo de la vía aérea, la ventilación mecánica y técnicas intervencionistas como broncoscopias y drenajes pleurales ⁶⁴. Se recomienda un ratio de un médico/a por cada 4-6 pacientes, con guardia médica presencial las 24 horas. Este médico/a no necesita estar físicamente en la UCRI, pudiendo atender también a pacientes de hospitalización convencional.



El personal de enfermería debe estar capacitado en el manejo de pacientes respiratorios críticos, incluyendo técnicas como manejo de la vía aérea, sedoanalgesia y soporte ventilatorio. Se sugiere un ratio de 1 enfermero/a por cada 4 pacientes durante las 24 horas.

El papel de fisioterapeuta o rehabilitador es también esencial, especialmente para fisioterapia respiratoria y funcional, en pacientes que ingresan desde la UCI (modelo *step-down*). Se recomienda un fisioterapeuta por cada 6 pacientes, idealmente en turno de mañana y tarde.

Los técnicos en cuidados auxiliares de enfermería son clave para los tratamientos no medicamentosos como la higiene, cambios posturales y asistencia en las actividades básicas de la vida diaria. Deben contar con formación básica en monitorización, oxigenoterapia y soporte respiratorio.

Infraestructura

La superficie disponible por cama debe ser superior a la empleada en hospitalización convencional, para alojar el material de monitorización y tratamiento necesario.

